

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2017-2018 ikasturtea

2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik

Egilea:

Ane Labaka Mayoz

Tutorea:

Jone Miren Hernández García

2018ko Iraila

Laburpena

Ikerketa lan honetan boterearekin harreman zuzena duten bi eremu, hau da, genero-sistema eta umore-sistema, gaur egungo bat-bateko bertsolaritzaren testuinguruaren baitan uztartzeko ahalegina egin dut. Iaz neuk burututako ikerlaneko ideia nagusiak aurrekaritzat hartu eta marko teoriko-analitiko orokorra Bertsolari Txapelketa Nagusiaren marko zehatzagora ekarri ondoren, bi izango dira ikerlan honek muinak: batetik, txapelketaren sistemako partaide ezberdinei (gai-jartzaile bat, parte hartu duten hiru bertsolari eta bi aditu) egindako elkarrizketekin hornitutako lan etnografikoa eta, bestetik, txapelketan zehar umorearekin lotuta sortutako bertsoaldi hautatuen analisia. Horrela, bertsolaritzaren baitan nagusi den umore hegemonikoaz gain beste umore mota bat(zuk) ere garatzen ari d(ir)ela defendituko dut datozen orriotan, umore mota hauek bereizteko zenbait gako azpimarratuz. Gainera, bereizketa honen zantzuek bertsolaritzaren gailurra den lau urtean behingo txapelketaren markoan zein forma/leku hartu duten aztertzen ahaleginduko naiz.

Hitz-gakoak

Antropologia, Generoa, Umorea(k), Botere-harremanak, Bertsolaritza, Txapelketa

Master Amaierako Lan honen proiektuak EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak bertsolaritzaren gaineko ikerketak aurrera eramateko esleitutako diru-laguntza jaso zuen 2017-2018 ikasturtean.

“Asfaltoa zartzeko bi modu daude. Bata animaliena, gizakiona: hartzen duzu eskutan lanabes bat, pikotxa edo, ahal bada, mailu pneumatikoa eta kolpeka, zarata eginez, puskatzen duzu hautsezina zirudien azala. Bigarren modua landareena da: bultzatzen dute azpitik, isilean, etengabe, eta halako batean, nahikoa tentsio bildu dutenean, eten egiten dute gainean duten geruza”.

Bidean ikasia, Arantxa Urretabizkaia

“Eman dezagun umore!”

Gu ta gutarrak.

*Amore eman gabe kantuan umorez aritu ziren eta ari diren emakumeei.
Joneri, bigarrenez, pazientziagatik.*



1/10

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	6
1.1. Interesak.....	6
1.2.I kerketa objektua.....	7
1.3. Helburuak.....	8
1.4. Hipotesiak.....	8
1.5. Diseinu metodologikoa.....	9
1.5.1. Elkarrizketa sakonak.....	9
1.5.2. Bertsaldien gaineko kasu azterketa.....	10
2. AURREKARIAK.....	12
2.1. Generoa, bertsolaritza eta umorea(k).....	12
2.2. Genero- sistemaz.....	16
2.3. Umore- sistemaz.....	21
2.3.1. Umorearen azterketarako proposamena.....	22
2.3.1.a Umorea prozesu gisa.....	22
2.3.1.b Umorea mediazio prozesu gisa.....	23
2.3.2. Umorearen noranzkoak.....	25
2.3.2.a Gotik behera.....	25
2.3.2.b Behetik gora.....	26
2.3.2.c Parez pare.....	27
2.4. Genero sistemaren eta umore-sistemaren gurutzaketa bertsolaritzaren baitan.....	28
2.4.1. Bertsolaritzaren transmisioa: Tradizioaren pisua eta publikoaren eragina.....	29
2.4.2. Bat-batekotasunaren inertziak.....	31
2.4.3. Hierarkizazioa: Umore mota.....	32
2.4.4. Umorearen hiztegia.....	34
3. MARKO TEORIKO- ANALITIKOA.....	35
3.1. Bertsolari txapelketa nagusiaren historia laburra.....	35
3.2. Gaur egungo txapelketaren garrantziaz.....	44
3.3. Umorearen mugak txapelketan.....	53
3.3.1. Azalari dagozkion mugak.....	53
3.3.2. Mamiari dagozkion mugak.....	56
4. ANALISIA.....	61
4.1. Umoreaz, oro har.....	61
4.2. Umore-sistemaz eta genero-sistemaz.....	62
4.3. Umorea euskal kulturaren.....	68
4.4. Umorea bertsolaritzan.....	70
4.5. Umorea txapelketan.....	78
5. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK.....	106
Erreferentziako bibliografia.....	110
Eranskina1: Elkarrizketa sakonetakarako gidioa.....	114
Eranskina2: Bertsaldi hautatuak.....	115

1. SARRERA

Lehen atal honek ikerketaren nondik norakoak barnebiltzen ditu, kokatzeko lagungarri izango direlakoan. Lehenik, ikerlan hau egiteko interesei buruz jardungo dut, jarraian ikerketa objektuaren bi norabideak zehaztu, ondoren ikerlanaren aurretiazko helburu eta hipotesiak formulatu eta azkenik diseinu metodologikoari buruzko xehetasunei helduko diet, sakoneko elkarrizketak zein bertsoaldien analisisa aipatuz.

1.1. **Interesak**

Gizarte Antropologiako masterra bukatu nuen iazko ikasturtean, irailean. Master amaierako ikerketa lanean boterearekin harreman zuzena duten bi eremu, hau da, genero-sistema eta umore-sistema, gaur egungo bat-bateko bertsolaritzaren testuinguruaren baitan uztartzeko ahalegina egin nuen. Kokapenerako gai hauen inguruko aurrekariak irakurri eta gurutzaketa hau ahalbidetzeko moduko marko teoriko-analitikoa zehaztu ondoren, oholtzan dabilzan emakumeen¹ (umoregileak, antzezleak, bertsolariak...) ahotsez hornitutako lan etnografikoa izan zen ikerlan honen muina, elkarrizketa sakonetan beraien emandako erantzunetako ideia interesgarrienak biltzen saiatu bainintzen. Autoetnografiatik ere izan zuen aipatutako ikerlanak, ikerlari moduan lehen pertsona idatzitako nire bizipenak tartekatuta bainituen lanean zehar, kapitulu bakoitzaren hasieran, osagarri eta aberasgarri izango zirelakoan.

Horrela, bertsolaritzaren baitan nagusi den umore hegemonikoaz gain beste umore mota bat(zuk) ere garatzen ari d(ir)ela defendatzen ahalegindu nintzen, umore mota hauek bereizteko zenbait gako azpimarratuz. Bertsolaritzari buruzko teorizazioa aberasteaz haratago, eraldaketarako bidean nire ekarpena egin nahi izan nuen honen bidez.

Hala ere, aurreko lan honen ondorioetan zehaztu bezala, ikerlan honen amaierak dakarren nekeari aurrera begira jartzeko gogo gailendu zitzaion batez ere. Etorkizuneko lanetarako inplikazio posibleak dagoeneko buruan nituela adieraziz bukatu nuen ordukoa eta oraingo ekinaldi hau da gogo horren erakusgarri.

Orain arteko lana teorikoa izan da huts hutsean, hasierako oinarri bat jartzea zelako nire helburu nagusia. Orain, ordea, pauso bat haratago ematea gustatuko litzaidake eta nolabait teoriatik praktikara jauzi egitea. Horretarako, kasu zehatzen azterketa egitea daukat xedetzat eta aurreko urteko irailaren 23an Baigorri hasitako Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia abagune perfektua iruditzen zait horretarako.

Aurreko lanaren amaieran aipatu bezala, jakitun naiz hasierako lan honetan bertso jardunean partaide diren agente batzuri soilik egin niela leku. Emakume bertsolariak

¹Uler bedi *emakume gisa sozializatua* eta *emakume gisa irakurria*, definizio sakonagoetan sartu gabe. Eta aplikatu bedi ikerlan honetan zehar *emakume* aipatzen den kasu guztietarako.

bihurtu nituen protagonista kontzienteki eta beraien ahotsak eta hitzak biltzen saiatu nintzen (besteak beste, lanaren luzera mugak baldintzatzen ninduelako). Alabaina, bertsolaritzan, oro har, eta umore prozesuen negoziaketan beste zenbait agentek ere pisu handia dutela kontuan hartuta, kasu honetan elkarriketatu nituen emakume bertsolariak kantukidetzat dituzten gizonezko bertsolarien hitzak ere ikerlanean barneratzea hobetsi dut, beraien esanak ere ikerketan tartekatzeak ikuspegi osoago bat erdiesten lagunduko didalakoan.

Horrez gain, elkarriketatuek behin baino gehiagotan azpimarratu zidaten bertsolaritzan gai-jartzaileek duten garrantzia. Gaiaren arabera delako bertsolariaren kokapena ere, gaiak berak zehazten duelako askotan erresistentzia izateko edo transgresiorako aukera, sorkuntza prozesuaren lehen katebegia delako. Beraz, sakontzeko helburua dudan honetan, nahitaez erreparatzeko moduko beste eremu bat litzateke gaiena.

Funtsean, txapelketan umoreak zein pitzadura edo tentsio eragin dituen ikertu nahiko nuke eta teoria feministatik irakurrita pitzadura edo tentsio horiek zer adieraz lezaketen. Izan ere, nire aburuz, posible da pitzadurak bi norabidetan jazo izana. Batetik, litekeena da genero-sistemak markatutakoa indartzen duen umore mota gaur egun ez izatea hain onartua eta txalotua eta kontrara, genero-sistemak markatutakoa iraultzea xede duen umoreak ere pitzadurak sortu ditzazke, oraindik orain ez delako (umoretzat) ulertzen.

Hipotesi nagusiak, beraz, azken txapelketan “bazterreko umoreak” esparru hegemonikoagoetara hedatzeko eta hauetan zirrikituak sortzeko saiakerak izan direla aurreikusiko luke.

Ikerlariaren interesei buruzko lehen atal honekin bukatzeko, aipagarria da nik neuk bertsolari, emakume eta feminista gisa² modu indibidual zein kolektiboan bizitakoa duela testu honek oinarritzat. Testu hau, beraz, ezagutza kokatuaren perspektibatik irakurri behar da, derrigorrez (Haraway, 1991): besteak beste, bertsolari, emakume eta feminista gisa idazten baititut idazten ditudanak.

1.2. Ikerketa objektua

Kasu honetan, ikerketa objektuak bi alde edukiko lituzke; batetik, genero-sistemak umorearen garapenean duen eragina eta, bestetik, umorearen erabilera genero-sistemaren eragin horrekiko erresistentzia edo transgresiorako bide bezala, beti ere Bertsolari Txapelketa Nagusiaren markoan.

²Lan hau burutu bitartean, gainera, “Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik” ikastaroa emateko aukera izan dut helduen hainbat bertso-eskolatan eta bertan partekatutakoak eta entzundakoak ere aberasgarri suertatu zaizkit.

1.3. Helburuak

Honakoak lirateke ikerlanaren xede nagusiak:

1. Umorea bertsolaritzaren eremuan izandako zereginean sakontzea.

1.1. Genero-sistemak bertsolaritzan nagusi den umorea izandako eraginaz hausnartzea: Umora hegemonikoa vs. bazterreko umorea(k).

1.2. Bertsolaritzan egun dauden umore eredu ezberdinak arakatzea, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren baitako kasu azterketa zehatzetan sakonduz.

1.3. Bertso munduko agente ezberdinek (emakume bertsolariak, gizonezko bertsolariak, gai-jartzaileak eta adituak) umorearen inguruan dituzten iritziak, esperientziak eta bizipenak biltzea.

2. Genero-sistemak umorea nola baldintzatzen duen aztertzea.

2.1. Genero-sistemak umorearen eraikuntzan duen eraginari buruzko hausnarketa egitea, gaiari buruzko bibliografia baliatuz.

2.2. Bertsolaritzan historikoki nagusitu den umore ereduaren gakoak zehaztea.

2.3. Txapelketako markoan garatzen den umorea aztertzea, genero ikuspegitik.

3. Umorearen bidetik, bertsolaritzaren eraldaketarako baliagarri izan daitezkeen elementuak identifikatzea.

1.4. Hipotesiak

Arestian aipaturako helburuei lotuta, honakoak dira ikerlan honen aurretiazko hipotesiak:

1. Genero-sistemak pisu handia dauka umorearen eraikuntzan.

1.1. Umora politikoa da, kulturalki eraikia eta botere-harremanetan oinarritzen dena.

1.2. Umora egiteko beharrezkoa da kode erreferentzial konpartitu bat eta genero-sistemak eragin zuzena dauka kode horren eratzean.

1.3. Umora estereotipoak indartzeko edo hauek zalantzan jartzeko balia

daiteke.

2. Plazetako umorea umore hegemonikoan (maskulinoan) oinarritzen da oraindik orain.

3. Umorea erresistentziarako edo trasgresiorako ere balia daiteke. Bertsolaritzaren kasuan, ari da (dira) beste umore mota bat(zuk) garatzen.

4. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian bi umore moten (hegemonikoa vs. bazterrekoak) arteko tentsioa sumatu ahal izango da.

1.5. Diseinu metodologikoa

Metodologiari dagokionez, bi ikerketa teknika hautatu ditut berariaz, elkarrizketa sakonak aletzea eta bertsoaldien gaineko kasu azterketa zehatzak garatzea deliberatuz.

1.5.1. Elkarrizketa sakonak

Metodologia kualitatiboa aukeratu dut interesgarri irizten niolako Bertsolari Txapelketa Nagusiaren sistema osatzen duten aktore edo agente ezberdinak protagonistatzat hartu eta beraien diskurtsoa ahalik eta modu osoenean agertzeari. Jakitun naiz elkarrizketa hauekin lagin bat baino ezin izan dudala erdietsi baina, hala eta guztiz ere, nire ikuspegitik behintzat gai honetan erreferente izan daitezkeenak elkarrizketatu ditudalakoan nago.

Sei elkarrizketa sakon burutu ditut guztira, ordu eta erdi inguruko iraupena dutenak. Elkarrizketatuen profilaria dagokionez, txapelketako hiru parte-hartzaile, aditutzat ditudan bi eta gai-jartzaile bat elkarrizketatu ditut.

Aurreko ikerlanean umorearekin lotura zuten bertso mundutik kanpoko lau emakume elkarrizketatu nituen eta horien ostean zazpi emakume bertsolari. Kasu honetan, parte hartzaileen artean bi gizonezko bertsolari hautatu ditut nahita, biak BEC-eko finalista izandakoak; Aitor Sarriegi (41 urte) eta Sustrai Colina (35). Gainera, hauen ikuspegia osatze aldera txapelketan parte hartu duen gazteenaren hitzak ere bildu nahi izan ditut, Nerea Ibarzabalenak (24), hain zuzen. Ibarzabal izan da txapelketan zehar lanketa feminista sumatu zaion emakume bertsolarietako bat³.

Hiru hauetaz gain, hedabide ezberdinetan txapelketari buruzko euren iritzia plazaratzen jardun diren bi bertsolari eta kasu honetan, aditu, ere elkarrizketatu nahi

³Amurrioko kanporaketan bakarkako lanean hilekoari buruz kantatutako bertsoak, esaterako, oso aipatuak izan dira.

izan ditut: Andoni Egaña (56) eta Uxue Alberdi (34). Lehena Lander Garrok zuzendutako EITB-ko "Aulki jokoa" programako aurkezle izan da Eurne Azkaraterekin batera eta bigarrena, aldiz, Aitzol Barandiaranekin aritu da zuzeneko emisio bidez EITB-n bertan Txapelketa Nagusiko iritzi-emaile gisa. Alberdi aurreko ikerlanerako ere elkarrizketatu nuen dagoeneko baina txapelketako markoan ardaztuta berarekin hitz egitea interesgarritzat nuelako bildu naiz bigarrenez berarekin.

Ahalik eta ikuspegi osoena erdietsi nahian, gainera, Maite Berriozabal (31) gai-jartzailea, txapelketako gai-jartzaile taldeko kidea, elkarrizketatzeko abagunea ere izan dut.

Elkarrizketa hauek 2018ko urtariletik uztaiera bitarte grabatu ditut. Antropologoaren begiradatik elkarrizketa sakonak burutu ditudan bigarren aldia izaki, eroso sentitu naizela baieztatu dezaket eta elkarrizketatuak aurretiaz ezagutzeak horretan lagundu didala esango nuke.

1.5.2. Bertsaldien gaineko kasu azterketa

Kasu azterketari ere garrantzia berezia emango diot ikerlanean zehar, bertsoen edukia aztertu nahi baitut bereziki. "Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik" lanean ezin izan nion atal honi lekuri egin eta txapelketa abagune ezin egokiagoa iruditu zait horretarako.

Geroago umorearen hiztegiari buruzko atalean zehaztu bezala hitzek boterea dute eta bertsolaritzan are nabarmenagoa da hori. Horregatik, oinarri teorikoa kasu zehatzez hornitu nahi nuke, bertsoen edukari, testuei, arrazoei, esamoldeei, gaiei, hitzei eta elipsiei zuzenean erreparatuz.

Lan hau burutzeko Txapelketako ia saio guztiak⁴ jarraitu ditut saioa zen tokira

⁴Bertsolari Txapelketa Nagusia hiru fasetan banatu zen: final laurdenak, finalurrekoak eta finala. Final laurdenetan hamasei bertsolari izan ziren lehian, denak herrialdeetako txapelketetatik sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egin ziren eta saio bakarrera lehiatu. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatu zen hurrengo fasera; puntu gehien batu zituztenekin osatu zen finalurrekoetara igaro zirenen taldea. Finalurrekoetan, hogeita lau bertsolari lehiatu ziren: izena eman zuten 2013ko sei finalista eta final laurdenetako saioetatik sailkatu ziren hemezortzi bertsolari. Bi itzuli izan zituen finalurreko faseak: lau finalurreko izan ziren lehenengoan eta hiru bigarrenean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egin ziren, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu zuten sei bertsolariek bigarren itzulian kantatzeko aukera galdu zuten. Taldeak aldatu egin ziren lehen itzultik bigarrenean. Finalean zortzi bertsolari lehiatu ziren: 2013ko txapelduna eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Hiru saiotan banatu zen ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak jardun ziren eta zortzi bertsolariekin eman zitzaion hasiera arratsaldeko jardunari ere; azkenean, puntu gehien metatu zuten bi bertsolarien arteko lehiarekin eman zitzaion amaiera. Egun osoko jardunean puntu gehien eskuratu zituena izendatu zen txapeldun: Maialen Lujanbio.

bertaratuta eta huts egin behar izan dudan kasuetan irrati bidez jarraitzen edo gerora sarean bertsoaldi nabarmenenak ikusten ahalegindu naiz. Edonola ere, txapelketaren inguruan ezin hedabide nahiz sare sozialetan hitz egindakoari bereziki adi egon natzaio, ahalik eta jarraipen osoena burutu nahirik.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, txapelketako saioetan normalki oso markatuta egoten da umoreari zein ariketa dagozkion (batez ere zortziko txikikoak) eta horregatik da zailagoa beste ariketetan umorea agertzea. Hala ere, ariketa batzuetan zergatik agertzen den eta besteetan zergatik ez gogoetatzea beharrezkotzat daukat, beste zenbait gogoeta posibleren artean.

Nik ere, kasu azterketa hauek burutzeko, zortziko txikiko zenbait ariketa hautatu ditut nahitaez (bai ofiziotakoak eta bai puntukakoak) baina salbuespen moduan beste ariketa batzutan lekututako umorearekin lotutako bertsoaldiak ere barneratu ditut analisi honetan, besteak beste, oro har tonu serioagoekin lotu ohi diren bakarkako ariketa nahiz zortziko handiko eta hamarreko txikiko bertsoaldiren bat edo beste.

Azken finean, esan liteke bi motatako bertsoaldiak barneratu ditudala nire aukeraketan: txapelketan zehar nolabaiteko tentsioa (zeresana, eztabaida...) sortu eta arreta gune bihurtu direnak, batetik, eta bestetik, kanpora begira zeresan handiegirik eman ez dudan arren nire analisirako interesgarriak begitandu zaizkidanak. Honakoak dira, beraz, hautatu ditudanak⁵:

Zortziko txikia

1. Zumaia (2017-10-08): Nahikari Gabilondo/Nerea Ibarzabal
2. Bastida (2017-10-28): Agin Laburu/Jon Martin
3. Durango (2017-11-12): Oihana Iguaran/ Miren Artetxe
4. Iruñea (2017-12-02): Aitor Sarriegi/ Alaia Martin
5. Iruñea (2017-12-02): Unai Agirre/ Oihana Iguaran
6. Barakaldo (2017-12-17): Sustrai Colina/ Aitor Mendiluze
7. Barakaldo (2017-12-17): Igor Elortza/ Maialen Lujanbio

Puntuka

8. Iruñea (2017-12-02): Miren Amuriza/ Alaia Martin

Zortziko handia

9. Barakaldo (2017-12-17): Unai Agirre/Maialen Lujanbio

⁵Informazio osagarria eta transkribapenak "Eranskina2" deitu diodan atalean topa daitezke, lanaren amaieran.

Hamarreko txikia

10. Iruñea (2017-12-02): Unai Agirre/ Aitor Sarriegi

Bakarka

11. Irun (2017-11-01): Aitor Sarriegi

12. Iruñea (2017-12-02): Aitor Sarriegi

2. AURREKARIAK

Ikerlanaren baitako marko teorikoa zedarritu aurretik, egoki deritzot kokatzeko lagungarri izan zaizkidan aurrekariei leku egiteari. Aurrez esan bezala lan hau “Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik” izenekoaren jarraipena izango denez, aurreko lan horretako marko-teorikoko zenbait ideia eta kontzeptu nagusi ekarri nahi izan ditut orriotara.

Atal honen hezurdura honakoa litzateke, beraz: lehenik, generoa, bertsolaritza eta umorea(k) izango ditut hizpide, sarrera moduan; ondoren, genero-sistemaz jardungo dut boterearekin duen lotura estua azaleratuz, jarraian umore-sistema deitu diodanari buruzkoak aletuko ditut aztergai hau ere boterearekin elkarlotuz, eta, azkenik, boterearekin lotura zuzena duten bi ardatz horiek bertsolaritzaren baitan egiten duten gurutzaketa izango dut mintzagai.

2.1. **Generoa, bertsolaritza eta umorea(k)**

“Gure umoreak gizartean nagusi den giroa islatuko ez balu bezala, grazia egiten digunarekin gure ideiak eta gure pentsatzeko moduak adieraziko ez bagenitu bezala”

Bárbara Diaz, Tribuna Feminista⁶

Eric Dicharryren (2012) arabera, euskaldunek irri egiteko aitzakia batzuk asmatu zituzten eta horien artean kokatzen ditu, besteak beste, maskaradak, pastoralak, herri antzerkia eta bertsolaritza. Bertsolaritzari dagokionez, ikerlariaren ustez umoreak leku garrantzitsua izan du historikoki bertso jardunean eta gaur egun ere hala du, jendea bertso-saioetara irri egitera ere joaten baita. Ehunekoei dagokienez, Dicharryren (2012) hitzetan, bertsolaritzan umorea litzateke %60-70 inguru.

Fokoa umoregaian jarri eta begirada atzera botaz gero, Iñigo Aranbarri idazleak (2017) zehaztu bezala, gurean umoregaia meendetan zehar berbera izan dela baieztatu daiteke. Bere aburuz, *Txanton Garrote* da euskaldunon gaineko umorearen arbaso arketipikoa, hau da, euskaldun baserriar arlotea, eta bere kalko moduan eraiki dira

⁶ Itzulpena nirea da. (in Nueve, A., (2018), “Otra vez los límites del humor”, *El Salto*, Tribuna)

ondorengoak.

Aranbarri umorearen aztarnategiari begira jartzen da eta XVII.mendearen amaierara jotzen du, Gipuzkoako ilustrazioaren baitan Peñaforida kondeak idatzitako *El borracho burlado* opera komiko ezaguna hizpide hartuz. Obra hontako protagonista da, hain zuzen ere aurrez aipatua:

“Aldaerak gorabehera, arketipo egokia zaio umoreari *Txanton Garrote*. Azken batean, bera dago mendeetan iraun duen eskemaren sorburuan: analfabetoa da, mozkortu egiten da (ikusleak ez bezala, bistan da), ez da haien maila ekonomikora heltzen, eta ez izateagatik, ez du ganorazko izenik ere. [...]

Kontua da igaro direla urteak eta gazteleraz gaizki egiten duen euskaldunak, eta bide batez inoiz gu izatea lortuko ez duen arlote ezjakin klixetuak, nahiko motibo ematen segitzen digula barre egiteko.” (Aranbarri 2017:17)

Uxue Alberdik (2010), bere aldetik, bertso jardunaren beraren ezaugarri den bat-batekotasunaren ondorioz maiz inertzietatik kantatzen dugula dio eta, bere ustez, bertsolarion diskurtsoa matxista, sexista, homofoboa... izaten da sarri, jendarteko estereotipoak erreproduzitzen ditugun heinean.

Alberdientzat (2010) ere eraginkorrak eta beharrezkoak (hausteko bada ere) ditugu estereotipoak, bertsolariak, komunikazioa gauzatuko bada, kode konpartitu bat behar baitu entzulearekin. Aurrez esan bezala, komunikazio oro da erreferentziala, eta bat-bateko komunikazioak azkar identifikatzeko moduko erreferenteak behar ditu. Tradizionalki espazio publikoa gizonezkoek okupatu dutenez, kode batu hori gizonezkoek eraikia izan da⁷.

Virginia Imazek (2005) dioen moduan, emakumeok, plaza publikoan eta are eremu pribatuan ere, umore hartzaile izan gara umore sortzaile baino gehiago eta zeri buruz, non eta noiz barre egin ikasi dugu, beti forma diskretuan eta eskuarekin aurpegia estaliz.

Arrazoi ezberdinak daude oholta ganean oso emakume umoregile gutxi ikusteko: eredu falta, emakumeoi espazio publikoa ukatu izana, sexu-genero sistemaren bidez barneratu ditugun baloreak, erantzunkizunez eta seriotasunez ardurak hartu beharra, biktimaren paperera lotu beharra, jendarte eredu honetan seduzitzaileak eta arduratsuak izatera mugatu, arretarik deitu gabe eta edertasunaren kanonak apurtu gabe ibili beharra...

⁷ Estitxu Eizagirre kazetariak “gizonkera batua” deitu zion kode honi.

Horrez gain, behin eta berriz leporatu izan zaigu graziarik eta umore-senik ez izatea. Horrek berekin dakarren “otzantzea” azpimarratzen du Imazek (2005), eta berak esana da publikoa emakumez bakarrik osatuta dagoenean hauek gehiago eta ozenago barre egin ohi dutela. Emakumeok eta emakumeentzat egiten ditugun bertso-saioetan ere halatsu gertatzen dela dio Alberdik (2010).

Bertsolari eta idazlearen ustez, hau guztia ez da “gizonezkoen umorea” eta “emakumezkoen umorea” desberdinak direlako. Baina Imazek (2005) aditzera ematen duen bezala, umorea erreferentziala denez, konfiantza, lasaitasuna eta “taldekoa” sentitzea ezinbesteko abiapuntuak dira umorea egiteko:

“Emakumeok, jendaurreko umorea (publiko mistoaren aurrean) egiten ari garenean, maiz zailtasunak izaten ditugu emakumezkoekin konpartitzen ditugun erreferente publikoak bilatzeko. Izan ere, gure uste eta bizipen asko ez ditugu publikoki konpartitu izan tabuak direlako (horietako asko gorputzari lotuak: sexu-grina, masturbazioa, menopausia, hilerokoa...) edo garrantzia kendu diegulako: etxe barruko mundua, emozionalitatea, egunerokoa, emakumeen borroka, zaintza, gure langintzak eta afizioak...” (Alberdi 2010: 9)

Horrela, maiz gure erreferenteak garrantzitsutzat jotzea kostatzen da egiten zaigunez, besteentzat garrantzitsua denaz egiten dugu umorea, “sozialki pisuzkoak” eta “unibertsalak” diren gaien haritik.

Alberdik (2010), gainera, otorduen jirako bertso-saioetan jende artera kantatzera irteteko momentuari azpimarra berezia egiten dio. Hainbat emakume bertsolari bat etorri izan dira eta zailagoa zaie emakumei buruzko umorea egitea gizonezkoen buruzkoa egitea baino:

“Gaur egungo bertsolariok umore-hari jakin batetik gatoz, gizonek eta gizonei/gizonentzat egina hau ere. Bertso-bazkari eta bertso-afari gehienak parranda eta festa-giroan egiten direnez, umorea jan-edanaren gehiegikeriara eta lige kontuetara lerratzen da sarri. Horri ezaugarri fisikoen inguruko umorea gehitu behar zaio. Kontestu horretan, kontuan hartzekoa da, gizonezkoak, oro har, askoz ere entrenatuago daudela elkarren arteko adarjotzean eta, bestetik, euren arteko zirisartze horretan biolentzia kuota handiagoak jasateko heziak izan direla, eta onartzen zaizkiela. Ez zaigu arrotza egiten, umore klabean, gizonezko batek beste bati jendaurrean “sudurluzea”, “jatuna”, “zaharra”, “lodia”, “sexuzalea”, “burusoila”, “mozkortia”, “alferra”... dela esatea edo iradokitzea. Eta denok ikasi dugu umore-klabe horretan barre egiten. Aldiz, badirudi, emakumeok babestu beharreko espeziea garela, eta emakumezko bati adjektibo desegoki bat gehituz gero, ez duela graziarik egiten, deseroso gertatzen dela (emakumea zenbat eta urtetsuago, gehiago). Hala, erreferente faltagatik eta desegokiak izateko beldurragatik, batzuetan, entzuleen arteko emakumeak ez ditugu aipatu ere egiten, eta,

ondorioz, haien ikusezintasuna areagotzen dugu [...]

Adarjotzea oso ariketa sana eta askatzailea izan daiteke botere-harreman parekideetan, baina zapaltzailea eta krudela ere izan daiteke, hain zuzen botereharreman desorekatuak mantentzeko eta berrezartzeko egiten bada.” (Alberdi 2010: 10)

Botere-harreman parekideen bidean, esaterako, besteei buruzko umorea egiteko modu inteligentea eta sana da norbere buruari buruzko umorea egitea. Publikoa ez da epaitua sentitzen, eta identifikazioz egiten da konplize. Bertsolaritzan, hala ere, ohikoagoa izan da beti besteetaz barre egitea norberari buruz barre egitea baino.

Hamaika aldiz entzun eta ikusi dugun umore motaren aurrean prestatuta gaude, azpian gordetzen dituen botere-harremanak ikusezin egiteraino domestikatuak. Gaur egun, orain dela urte batzuk baino zainduagoak izaten dira genero-rolak gaietan nahiz bertsolarien diskurtsoetan, baina hamaika urtetan eraikitako umore hori deseraikitzea ez da batere erraza, are gutxiago berria eraikitzea.

Leire Ibarguren (2010), umoreari buruz ari delarik, hizkuntzari garrantzia berezia ematen dio. Hizkuntza erabili daiteke umorea eraikitzeko tresna bezala eta zenbait hizkuntzatan gai batzuen inguruko terminologia egin gabe dago. Hizkuntza sexista denez, eta errealitate batzuk ez direnez izendatzen, ez dira ikusarazten eta oraindik hiztegi bat egiteko dago emakumeon errealitate askoren inguruan.

Sexua, esaterako, gure bizitzetako plazer handienetakoa den arren, gehienetan kulturalki tabu moduko bat izan ohi da. Nahiz eta barre egitea beldurra konpartitzeko era bat ere baden, umoreak gehienetan beldurrak estali eta mitoak elikatzen baino ez du balio izaten. Sexuaren inguruan egiten den umore gehiena gizonen sexualitatera mugatzen da, oraindik emakumeena ez baita errekonozitzen. Oraindik esploratzeke dago beste gaitegi baten inguruko umorea.

Izaro Zinkunegik (2014) 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean jarritako gaiak, bertsolariak hartutako paperak eta hauek sortutako testuak genero ikuspegitik aztertzen eta umorearen tratamenduari dagokionez zenbait gako ematen dituelakoan nago. Batetik, emakume bertsolari gehienek umorea lantzen den neurrietan, zortziko txikian edo puntutan adibidez, puntuazio baxuagoa lortzen dute gizonen baino. Halaber, gehienek nahiago dute bestelako neurrietan jardutea.

Zinkunegik (2014) erreferentzia konpartituen falta azpimarratzen du berriro ere; zakilari buruz milaka bertso abestu izan direnez, bertsolariak badaki nola egin umorea horren inguruan, baita entzuleak horren aurrean nola erreakzionatu ere. Aitzitik, aluari

buruz ez denez abesten, ez dago kode konpartiturik, bertsolariak ez du erreferentziarik eta publikoak ez daki nola erreakzionatu. Abesten ez denaren gaineko metaforizazioa ere eraikitzeke dago⁸.

Umoreak, ikusi dugunez, helburu ezberdinak izan ditzake eta gehienetan oharkabean aukeratzen dugu zein helburutarako erabili. Batetik, umorea jendarte eredu hegemonikoaren norma indartzeko eta bazterrean gelditzen den hori zuzentzeko sistemaren bitarteko oso eraginkor bat izan daiteke eta honek azal lezake emakumeak umore objektu bezala hainbestetan agertu izana.

Izan ere, emakumeok “arau” asko ditugu betetzeko⁹ eta marjen estu hauetatik ateratzen den guztia burlaren jomuga izan daiteke. Honek gaur egungo jendarte ereduak desberdintasunari dion beldurra islatzen du, denok egingo ditugu saiakerak berriro ere “dagozkigun” marjen estu horietara itzultzeko, burlaren jomuga izatea ekidin nahian.

Ondorioz, emakumeon patrioiak halako marjen estuak izaki eta gutaz esan daitekeen ia edozerrek “burla” izateko aukerak dituen oso zaila da gehiegi ezagutzen ez duzun emakume batekin barre egitea. Ikusi dugun bezala, hala gertatu ohi da bertso afarietako libreko saioetan.

Bestetik, bigarren helburu moduan aipatuko dugu umorea hausnarketa baten ondoren sortzen denean tresna oso garrantzitsua izan daitekeela ezarritako botereari aurre egiteko eta jendarte hegemonikoaren balioak ezbaian jartzeko, umoreak ez baitu zertan baztertzalea izan, ez baitu zertan ezarritako ereduak indartu.

Ibargurennek dioskun moduan, arte eszenikoak jendartean isla dira nolabait baina era berean, eraldaketarako tresna izan daitezke; “bertsolaritza ez da dibertsio hutserako zerbaite, eraldaketa sozialerako tresna ere izan daiteke” (Ibarguren 2010: 62).

2.2. Genero-sistemaz

“Besteen zapalkuntzei buruzko txisteak (heteroek *bollerei* buruz formulatutakoak, zuriak pertsona beltzei buruz...) desberdinkeriazko egoerak dibertigarri edo hutsalak direla adierazten duen ideia elikatzen dute”
Brigitte Vasallo, *Pikara Magazine*¹⁰

⁸“Txistorra” edo “makila” aipatuz gero, kodigo sexualetan ari badira seguraski entzuleak zuzenean egingo du lotura gizonezkoen genitalekin.

⁹Derrigorrez argalak izan behar dugu, atseginak, isilak, txukunak, politikak, depilatuak, laguntzeko prest daudenak, ahulak, negartiak... Gizonezkoek bete beharreko beste arau batzuk dituzte.

¹⁰ Itzulpena nirea da (in Nueve, A., (2018), “Otra vez los límites del humor”, *El Salto*, Tribuna).

“Zenbait pribilegio (arrazaz, generoa, orientazio sexuala, eskuratzeko-ahalmena, jaiotza lekua, hezkuntzarako sarbidea...) dituen norbaitek bere bromea diana moduan bera parte ez den gutxiengo bat edo ezin sektore zapaldu darabilenean ez da umorea egiten ari, baizik eta beste zapalkuntza bat gauzatzen ari da, edozein borroka tribializatuz”

*Pikara Magazine*¹¹

Ikerketa honen marko teorikoa zehazterakoan, ezinbestean garatu beharreko ardatza da genero-sistemarena, ikerlan osoan zeharlerro moduan presente izan (go) baita, gaiaren aukeraketarik bertatik.

Iratxe Retolazak 2017ko UEU-ko “Euskal Literatur Kritika eta Genero Ikerketak” ikastaroan gogorarazi bezala, generoa, kontzeptu analitiko bezala, erlazionala, historikoa eta lekuan lekukoa izateaz gain, esparruan esparrukoa ere bada. Espazio berezitu bakoitzak bere genero arauak ditu eta bertsolaritzak ere baditu bereak. Umorea aztertzeak emango digu bide, hain zuzen ere, bertsolaritzaren baitako genero-arau hauek identifikatzeko.

Generoaz hausnartzeak identitatearen kontzeptua berrikustera garamatza eta jakina da antropologiaren garai ezberdinetan zehar bilakaera nabarmena jasan duela kontzeptu hau ulertzeko moduk. Bilakaera honetan berrikuntza garrantzitsu bat Frederik Barthelemy (1969) eskainia izan zen bere garaian. Bere arabera, identitatea ez da finkoa, ez da definitiboa, interakzio bidez joaten gara eraikitzen eta norberak definitzen du aurrean dituenekiko harremanean.

Identitatearen kontzeptua, beraz, ez da estatikoa, estrategiko eta funtzionala baizik eta identitate ez-estatikokoaren ideia hau postmodernismoaren muinean dagoen ideia dela baieztatu genezake.

Kimberli Crenshawek (2016) erdigunean jartzen du interseksionalitatearen kontzeptua zapalkuntza batek baino gehiagok zeharkatzen gaituztela argudiatuz eta postmodernitatearekin erdi-talkan identitatearen defentsa egiten du, identitate egonkor zenbaitzuk –“bollera”, “beltza”...- gaitasun disidentea eta erresistentzia estrategiak ahalbidetzen dituztelakoan.

Nire kasuan ere, ikerlari moduan, zalantza-iturri zait identitatearen gaia. Izan ere, beste asko aurretiaz izan diren moduan, jakitun naiz ikerlanean zehar “emakume” eta “gizon” terminoak etengabe erabiltzeak bi genero identitate zurrun eta aldaezinetan oinarritzen den jendarte eredu dikotomikoa indartzeko arriskua sor dezakeela baina era berean, berau iruditzen zait kasu honetan beharrezko azalpenetarako egokiena

¹¹ Itzulpena nirea da (in Nueve, A., (2018), “Otra vez los límites del humor”, *El Salto*, Tribuna).

izango zaidan terminologia. Beraz, Crenshawen (2016) haritik tiraka, emakume bertsolarien identitatea egonkor moduan aurkeztuko dut beharrezko zaidan kasuetan, kontzeptu hau estrategiko eta funtzionaltzat hartuz eta, aldi berean, zapaldua den identitatea den heinean izendapenak berak erresistentziarako estrategiak ahalbidetzen dituelakoan.

Alabaina, ulertzen dut emakume bertsolariaren identitatea ez dela inondik inora monolitiko eta estatikoa, baizik prozesuala, etengabe negoziatzen ari garena. Gauza komun batzuk badaude, talde izaera bat eraikitzen deno identitate bat sortzen da eta emakume bertsolarien kasuan talde izaera gero eta sendoagoa dela esango nuke¹². Mina da gaur egun identitatearen hornitzaile nagusienetako bat eta, nire aburuz, ikergai hau hautatzera eraman ninduten zauri beretsuak dira gainerako emakume bertsolariekin talde izaera eta identitate konpartitu bat eraikitzen naramatenak.

Teoria feministaren baitan, Judith Butlerren arabera bulkada feminista askotan norbere mina, edo norbere isiltasuna, edo amorrua, edo pertzepzioa, azkenik norberarenak soilik ez dela ohartzetik eta onartzetik sortzen da, eta honek guztiak norbera ahalduntzea baimentzen dion egoera kultural konpartitu batean kokatzera daramala ohartzetik (1990: 103).

Dramaturgiaren kontzeptuak darabiltza Butlerrek, identitatea etengabe errepikatzen ditugun ekintza eraikitzaile gisa definituz *performance* kontzeptuaren bidez. Bere ustez, ekiteak eraikitzen gaitu, generoa etengabe jokatzen (performatzen) dugunez, generoa ez da identitatea, errituala baizik. Identitatearen osaketan, beraz, izateari baino ekiteari begiratu behar zaio, etengabea den prozesua dela kontutan hartuta: “generoa ez da burutzen tematu beharreko preskribatutako eginkizun bat, denbora guztian burutzen ari garen eginkizun bat baizik¹³” (Buttler 1990:198).

Butlerren arabera, emakumezko subjektua eraikia da, komunitate irudikatu batetik sortzen dena baina aldi berean kategoria funtzionala da, mugimendu feministan estrategikoa dena. Interseksionalitatearen eta performatibitatearen bidez guztia deseraikitzea dugu xede askotan, baina egia da zenbait kontzeptu izendatzeko behar ditugula, hizkuntza mugatua dela argi izanik ere.

Hizkuntzaren muga hauetaz jakitun, egungo gizartean nagusi den genero-sistema dikotomikoari buruzko zenbait oinarri bergogoratu nahi nituzke jarraian. Izan ere, Virginia Maqueirak idatzi bezala, “boterezko eta desberdinkeriazko harremanak genero

¹²Urtero urtero egiten diren Bertso Munduko Emakumeen Topaketek eta duela lau ikasturtetik zenbait emakume bertsolari burutzen ari garen *Ahalduntze Bertso Eskolak* berezibiziko eragina dute honetan, nire iritziz.

¹³ Itzulpena nirea da.

desberdintasun gisa eraiki izan dira sare soziokultural osoan¹⁴ (2001:129) eta egun, kritika feministari esker ez dugu zalantzan jartzen emakume eta gizonen kategoriak eta berauen arteko harremanak gizarte eraikuntzak ote diren.

Horrela, modernitatean identitate eraikuntza bi kategoria horien gainean eraikitzen da nagusiki, sozializazio prozesua zeharkatzen duen generoak banakako jarraibideen aukerak murriztuz eta elkarren artean ezberdinak diren subjektuak eraikiz. Gainera, bi multzoen artean harreman hierarkikoak ezartzen dira, gizonen ezaugarri maskulinoak prestigiatur eta horrela beraien botere posizioa eta hegemonia ahalbidetuz (Connell 1997:39). Izan ere, Carmen Diezek nabarmentzen duen bezala, generoa gizarte antolaketaren oinarri indartsuenetako bat da:

“Genero kontzeptuarekin antolaketa sozial dinamiko, aldakor eta oso boteretsu baten printzipioari egiten zaio erreferentzia. Antolaketa honek pertsonak ia sortzetik bertatik harrapatu ohi ditu eta aurrez ezarritako kanon batzuen arabera saiatzen da gorputzak, sentimenduak, emozioak, zaletasunak eta lan aukerak, hau da, bizi proiektuak, modelatzen. Modelatze hau praktika eta mandatu judizialen bidez burutzen du, erlazio dinamiko eta askotan gatazkatsu batean.”¹⁵(Diez 2002:160)

Generoaren bidez, beraz, identitateak sortu eta birsortu egiten dira (Del Valle 2015:15), kontrakoak diren bi unibertso (maskulinitatearena eta feminitatearena) eraikiz. Horrela, pertsona bakoitzari gizon edo emakume kategoria esleitzen zaio eta kategoria horren arabera jokatzera behartua izango da. Norbanakoak, gorputzak, gizarte rolak eta botere harremanak generoaren arabera arautzen dira eta honek guztiak emakumeak menpekotasunezko egoeran kokatzea ekartzen du.

Feminismoak oso argi identifikatu ditu genero sistemaren bidez botere maskulinoa ezartzeko dauden mekanismoak. Margaret Mead¹⁶ (1935) eta Simone de Beauvoir¹⁷-en (1949) ondoren, Gayle Rubin (1986) izan zen ezberdintasun sexualaren eraikuntza sozialaren ideia zehaztu eta zabaldu zuena:

“Sexu-genero sistema bat antolamendu multzo bat da, zeinaren bidez gizarteak sexualitate biologikoa giza jardueren produktu bilakatzen duen, eta zeinetan eraldatutako giza behar horiek asetzen diren.”¹⁸ (Rubin 1986:97)

¹⁴Itzulpena nirea da.

¹⁵Itzulpena nirea da.

¹⁶1935ean *Sex and Temperament in Three Primitive Societies* idatzi zuen sexu jokabideak kulturalak zirela adieraziz.

¹⁷1949an “emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da” baieztapen ezaguna idatzi zuen *Le Deuxième Sexe* izeneko liburuan.

¹⁸Itzulpena nirea da.

Rubinen ustez, beraz, gizarte orok sexu-genero sistema bat du haien arteko ezberdintasunak azpimarratuz eta antzekotasunak ezabatuz gizon eta emakumeak sortzen dituen (ibid.:115).

Mendebaldeko egungo gizarteetan bereizketa kulturaren sozializazioaren bidez ezartzen da:

“Mutilak eta neskak, hau da, etorkizuneko gizonak eta emakumeak, balio eta printzipio diferentekin eraiki behar dira, eta euren bizitzetara zentzu diferentek eman, heldu bihurtzean gizartearen funtzio desberdinak -eta hierarkizatuak- bete ditzaten” (Asensio 2015: 1¹⁹).

Sozializazio horren arabera, Modernitatean zirriboratu ziren eta gaur egun arte iritsi zaizkigun gizon eta emakumeen ezaugarri ezberdinak ezartzen dira. Gizonari arrazoa egotzen zaio, ezaugarri hauen bidez definituz: indarra, aktibitatea, autonomia, independentzia, sexualki oldarkorra izatea... Emakumeari, ordea, natura egotzen zaio ezaugarri hauen arabera: pasibotasuna, ahultasuna, besteen iritzien menpekotasuna, apaltasuna, lotsa, umiltasuna, sedukziorako gaitasuna... Ezberdintasun hauek garai eta tokiaren arabera ñabarduraz betetzen dira, baina oinarrian dauden sailkapen dikotomikoaren ezaugarriak errotikoak dira nonahi.

Eguno kultura hegemonikoan ere, eskema horren arabera neskak perfekziorako sozializatzen dira eta mutilak, aldiz, ausartak izateko. Hala adierazten digu Reshma Saujanik, XXI.mendeko gizartearen erdigunean genero sistemaren arabera desberdinkeria mantentzen eta elikatzen dela erakutsiz:

“Neskato gehienak perfektuak izateko sozializatzen ditugu, arriskuak eta porrotak ekiditeko, irribarre egiteko, segurtasunez jolasteko, nota bikainak ateratzeko... eta mutikoen gehiengoa ausartak izateko, zakar jolasteko, altu zabukatzeko, gailurreraino igotzeko eta ondoren jauzi egiteko. Helduarora iristean arriskura ohituta daude dagoeneko.”²⁰ (Saujani 2016)

Batzuei perfekzio nahia eta besteei ausardia esleitzeko generoaren arabera banaketa honek zuzeneko eragina dauka bertsolaritzan.

Genero-sistema, noski, hertsiki lotuta dago boterearen banaketarekin. Boterearen kontzeptua ez zaigu batere erraza definitzeko baina ikerlan honetan Flavio Guglielmi (2013) Pierre Bourdieu eta Michel Foucaulten proposamenetan oinarrituta

¹⁹Artikuluana Ana de Miguel Madrilgo URJC unibertsitateko Filosofia Moraleko irakaslearen hitzak biltzen ditu Asensiok, pasarte hau kasu.

²⁰ Itzulpena nirea da.

proposatzen duen definizio honi jarraituko diogu:

“Botere harremanak norbanako batzuek besteen ekintzetan eragina izan dezaketenean eraikitzen dira. Erlazio honek berarekin dakar desberdintasun edo bereizketatik (bereizketa izan daiteke ondasunena, gaitasunena, autoritatearena...) garatutako subjektu edo taldearen inposaketa bat. Inposaketa hau ekonomia batek administratzen du, zeinak ahalbidetzen dion modu ezinhobe batean jarduteko moduko bitartekoak kudeatzea (nahiz eta kasu partikular bakoitzari dagokion modu ezinhobe hori zein den zedarritzea) eta estrategia bati erantzuten dio ekintza posible guztiak agortzen ez dituzten agente erlatiboki librean arteko akzio-erreakzio joko baten estimazio bat bezala.”²¹(2013:1)

Genero-sistemaz ari garenean boterearen banaketa ez parekide baizik hierarkikoaz ari gara finean eta ikerlan honetan aldagai nagusia hau izango den arren, aldi berean genero-sistemaz haratagoko botere-harremanez ere jardun nahi nuke.

Erika Irustak (2016) hilerokoari buruzko bere liburu batean, adibidez, honako bereizketa egiten du gorputz zaurgarri eta normatiboak bereiziz:

“Gorputz zaurgarri bat zauritua izateko aukerak dituen gorputz bat da. Gorputz normatibo bat, aldiz, besteak zauritzeko gaitasuna duen gorputz bat. Gorputz zaurgarriak kolore askotakoak dira. Gorputz normatiboak kolore bakarrekoak. Gorputz zaurgarrien bereizgarri nagusietako bat da agintzen eta erregulatzen duten gorputzek (gorputz normatiboek) definitzen, hau da, idazten eta irakurtzen, dituzten gorputzak direla.”²² (2016: 16)

Irustaren ideiak neure egin eta boterea ematen edo kentzen diguna norma dela azpimarratuko dut nik ere. Hau da, gorputz normatiboak boteredunak izango dira eta beraien bilakatuko dituzte besteak boteregabe, zaurgarri eta are, barregarri. Genero sistemari erreparatuz, gizonezkoen gorputzak izango dira normatiboak eta emakumezkoenak, berriz, zaurgarriak. Are gehiago, gizonezkoen gorputz batzuk (zuriak, heterosexualak...), gizentasun hegemonikoari erantzuten diotenak, izango dira normatiboak. Eta emakumezko gorputzen artean ere batzuk, normari gutxien lotzen zaizkionak, izango dira zaurgarrienak (lodiak, zuriak ez direnak, aniztasun funtzionala dutenak, *bollerak*...) eta, ondorioz, barregarrienak.

2.3. Umore-sistemaz

“Umoreak ia beti egiten du boterearen alde. Beti nazio baten alde. Hegemoniaren alde. Beti

²¹Itzulpena nirea da.

²²Itzulpena nirea da.

Aurreko pasartean genero-sistema eta boterea elkarlotu ondoren, honetan umorearen eta boterearen arteko lotura esplizitatzen ahaleginduko naiz. Atal honek ondorengo bi azpiatalak izango ditu bere baitan: Anduagaren (2016) bidetik umorearen azterketarako proposamen bat luzatzen saiatuko naiz aurrena eta ondoren umorearen noranzkoei buruz jardungo dut.

2.3.1. Umorearen azterketarako proposamena

Ikerlan honetan umorearen azterketarako proposamena egiterakoan aurrez aipatutako Anduagaren (2016) doktore tesiko umorearen azterketa soziologikorako proposamena hartu da oinarritzat, paralelismo handia topatu baitut bere azterketaren eta nirearen artean.

Umore kategoria zehaztea ez da inondik ere langintza erraza. Izan ere, umorea urriki ikertu izan den fenomeno da eta, gainera, orotariko irakurketak egin dira bere inguruan. Hala ere, XX. mendearen azken hiru harmarkadetan garaiko mugimendu eta aldarrikapen soziopolitiko desberdinen sorrera medio (feminismoak, identitate etniko minoritarioak, etab.) interakzio sozial, emozio edota bizitza pribatua bezalako errealitateen inguruko ikerketak zabalduz joan dira gizarte zientziei loturiko diziplinetan, ordura arte garrantzirik aitortu ez zitzaizen zenbait fenomeno, besteak beste, umorea, ikerketarako esparru gisa hautematen hasiz.

Anduagak dioenez, umorea ikerketa objektu gisa zehaztasun edo lausotasun maila desberdinez erabili izan da eta iker esparruaren markoaren ezarpena zaila suertatzen da, umoreak hainbat ulerpen dituelako. Horregatik, umorearen definizio malgu eta aberatsago batetik abiatzea erabaki zuen berak umore kategoriaren eraketa (teorikoa) egin eta umore kasu desberdinetarako baliagarria den proposamen teoriko/analitiko baten proposamena egiterako garaian.

“Inguru sozialaren ezaugarriekiko sentikorra izanik, umorea azalduko duten definizioek nahitaez kontuan hartu beharko lukete haren aldagarritasuna” (Anduaga 2016: 152) eta ondorioz, Anduagak umorea *mediazio prozesu* gisa aurkezten duela ikusiko dugu jarraian.

2.3.1. a Umorea prozesu gisa

Anduagak, beraz, umorea orotara definitzen eta ikertzen saiatu beharrean, bere

kontingentzia kontuan hartzea planteatzen du aipagai dugun tesian, horretarako baliagarria den kategoria analitiko bat proposatuz.

Bide horretan, ikergaiaren izaera aldakor, eragile, “eragindu” eta interaktiboan oinarrituz, umorea *prozesu* bezala ulertzeko proposamena luzatzen du ikerlariak. Bere aburuz, umoreari bi ezaugarri nagusi esleitu dakizkioke, praktika sozial bezala ulertua den heinean. Alde batetik, umorea errealitate sozialari atxikia dagoen fenomenoa denez, testuinguruaren baldintza eta ezaugarrien arabera aldakorra izatea; inguru sozialak umorean eragina duela ulertuz, baina baita alderantziz ere, errealitate sozialaren parte den neurrian, umorea gauzatu ahala, errealitate hori (ber)eraiki edo osatzeko gaitasuna duela. Eta, bestetik, umorea *praktika* ere badela kontuan izan behar da eta ondorioz, suerta dadin, umorea *gauzatzea* beharrezkoa dela, subjektuen arteko interakzio jardueraren ondorioa baita.

Laburbilduz, “umoreak errealitate sozialaren baitan gauzatzen diren interakzio dinamiko osatua dagoen eraldaketa ziklo jarraitu bezala jokatzen du” (ibid: 153).

Errealitate bakarra izanik ere, prozesua den heinean izaera, adierazpen edota funtzio anitzak izan ditzake umoreak eta “umoreaz” baino “umoreez” hitz egiteko aukera sortzen da, baldintza desberdinen arabera umore prozesu desberdinak sortuko direlarik. Elkarren artean desberdinak dira, adibidez, inauteriak edo Internet bidez igorritako saio umoretsuak. Batak eta besteak espazio, denbora, bitartekari, agente, funtzio, ondorio edota formatu desberdinak daukate, eta horrek elkarren artean desberdinak diren umore eredu izatea ekartzen du, hots, umore prozesu ezberdinak dira. Nire aburuz, berdinez jazoko da bertsolaritzan garatutako umorearekin (umoreekin) ere.

2.3.1. b *Umorea mediazio prozesu gisa*

Anduagak mediazioa ere prozesu gisa aurkezten digu eta honela definitzen du:

“Botere posizioetatik gizarte osora zabaltzen den errealitate konkretu baten eraketa homogeneo eta aldibereko bat sortzeko modua litzateke, eta ondorioz, baita errealitate sozial hegemonikoaren ezarpena bideratzekoa ere.” (ibid: 160)

Anduagarentzat, mediazioaren kontzeptua komunikabidetan ez bestelako esparru batzuetan ere aplikatu daiteke, umorean kasu:

“Mediazioa komunikabideen bitartekaritzaz gaindi, irakurgarri eta ulergarriak diren orotariko bitartekari sinbolikoak (zeinuak, hizkuntza, praktikak, errituak, irudikarioak...) erabiliz gauzatzen den komunikazio prozesua da. [...] Prozesu honek, komunikazio

harremanean parte hartzen duten agenteez gaindi (subjektu, objektu, diskurtso eta praktikak) eta komunikazio hori ematen den kronotopoaz harago, gizartearen bestelako agente eta esfera sozialetan sinergikoki eragina izateko gaitasuna duen etengabeko interakzio komunikatiboa ahalbidetzen du.” (ibid: 166)

Hala, mediazioa ez da esparru bezala ulertzen, aldatzen doan eta agente zein interakzio desberdinez elikatzen den fenomeno malgu bezala baizik, zeinak errealitate sozialaren (ber)irakurketa eta (bir)sortze iraunkorra ahalbidetzen duen. Negoziaketa horretan edonola ere, agente desberdinen artean dauden botere-harremanek eragina dute.

Eragin horiek tarteko egonik, beraz, mediazioa (komunikazio) interakzio sinbolikoaren bidezko errealitate sozialaren (bir)produktzioarako abagunea eskaintzen duen prozesutzat ulertzea proposatzen du Anduagak; bai eta ezaugarri horiei erantzunez, umore prozesuek euskal nazioaren eraketarako mediazio bezala funtzionatzen dutela ere.

Nire kasuan, nazioaren eraketarako balio duen bezala, genero-sistemaren baitako botere-harremanen eraketarako ere balio duela defendituko dut ikerlan honetan, Anduagaren bidetik umorea prozesu bezala ulertuta, umore prozesuek errealitate sozialaren eraketan (zehazki, genero-sisteman) betetzen duten mediazio funtzioan funtsatutako iker-objektua eratuz.

Anduagaren arabera, mediazioak eta umore prozesuek performatzeko gaitasuna konpartitzen dute, harreman komunikatiboan informazioa transmititzeaz gainera, errealitate soziala (bir)produzitzeko gaitasuna ere badutelako. Fenomeno diskurtsibo moduan funtzionatzen duten heinean, aipatu eta ukitzen dituzten errealitate horietan (eta sinergikoki beste batzuetan ere bai) eragina izateko gaitasun politikoa (performatiboa) izango dute.

Umoreak bertan parte hartzen dutenei gozamina sentiarazteko gaitasuna du ezaugarritzat. Hala ere, Anduagak argitu moduan, hau lortzeko umore prozesuak duen haustura edo distantziarekiko onarpena egotea ezinbestekoa da. Horrela jakin dezakegu proposatzen diren umore prozesu guztien artetik gizartean zein diren onartuak eta zein ez, eta horrela bistaratu ditzazkegu hierarkiak, hots, botere-harremanak.

Esandakoak kontuan izanik Anduagaren lanean honakoa ulertzen da, modu esplizituan:

“a) umore prozesuak mediazio gisa proposatu daitezke euskal nazioaren eraketan duten rol politikoa zein den ulertzeko; b) horrek umore prozesuen ezaugarriak mediazioaren ezaugarri gisa ere ulertzea dakar, eta beraz, *haustura*, *distantzia* eta *gozamina*

(gutxienez) umore prozesuen mediazioaren aldagai gisa ere hauteman daitezke; eta c) hala antzemateak aukera ematen du umorea zertaz egiten den, egite horretan zer esaten (eta performatzen) den eta esaten den guzti hori nola kudeatzen eta artikulatzen den ikusteko. Finean, hiru urratseko bilakaera horrek ahalbidetzen duelarik umore prozesuek euskal nazioaren eraketan betetzen duten rol politikoa (mediazio prozesua) nolakoa den ezagutzea.” (2016: 170)

Ikerketa honetan ere hiru urrats horiek bereiztea gustatuko litzaidake, ikerketa lehen bietan ardaztuko dudalarik. Hau da, genero-sistemaren eraketan (eta mantentzean) umore prozesuek betetzen duten rol politikoa ezagutzerako bidean, umorea zertaz egiten den eta egiterakoan zer esaten eta performatzen den aztertzen ahaleginduko naiz gehienbat.

2.3.2. Umorearen noranzkoak

Unai Iturriagak (2017) ohartarazi bezala, geuk hautatzen dugunean pertsona, pertsonaia edo jendarte konkretu bat umoregai izan daitekeela eta, gainera, jakin badakigunean parean dugunak irizpide hori konpartitu edo ontzat eman dezakeela, epaia emana dago: gu eta haiek. Guk egiten dugu umorea, eurak dira umoregaia (2017: 42).

Laura Mintegiren arabera ere umoreak taldea mugatzen du, barreak markatzen baitu nor den taldekidea eta nor ez (2017: 61). Lan honetan ere umoregilea eta umoregaia bereiziko ditut botere-harremanei buruz hitz egiteko, 2.2 atalean burututako gorputz zaugarri eta normatiboen arteko bereizketa kontuan hartuz umoreak hiru noranzko izan ditzakeela defendituz: goitik beherakoa, behetik gorakoa eta parez parekoa.

2.3.2. *Goitik behera*

“Umoreak umore izateko, igorlearen eta hartzailearen mundu ikuskera partekatua behar omen du. *Gutasun* bat, *bestetasun* batek definitua. Gu ez-ezjakinak. Gu ez-emakumeak. Gu ez baserritarrak. Ez-homosexualak. Ez-ijitoak. Eta jakinik ez dagoela umore neutrorik, testuinguruaren baitan zein guk zein besteri egiten dion barre, horren arabera izango da umorea subertsiboa edo *statu quoaren* aldekoa, zapaltzailea ala askatzailea. Ez gaitezen engaina, ordea. Beltzek izango dituzte zuriei buruzko txisteak, baina, ezin esan txiste horiek arrazistak direnik, ez dutelako atzean mendetako egiturazko zapalkuntza historia bat. Besterik da beltz talde batean dagoen zuria deseroso sentitu daitekeela txiste horien osteko barre-argaren artean”.

Miren Artetxe, 2017

Iñigo Aranbarriren (2017) hitzetan, umorea jendartea da, jendartean bizi da eta jendarteak bizi du:

“Horregatik dator hiperreko umore hau goitik behera, horregatik da hierarkizatua, ezinago bertikala. Eta horrexegatik, hain zuzen, dute horrenbesteko arrakasta gehiengo onartutik bazter geratzen diren kolektibo horiei guztiei buruzko txisteeak, eta berdin da *borono ezjakin* izan, *marikoi lumadun* zein *machu pichu metroerdiko*. Izan ere, jendartean mendeetan mamitutako egituren errailetan dabil umorea, ezagunak zaizkion txokoetan egiten du habia, han espero du txaloa eta algara. Hala, *performancean* parte hartuko duten guztiek ongi ezagutzen dute aldamia, hasierako eta amaierako posizioak ondo markatuak daude, legeak zein diren azaldu beharrik ez dago. Eta nola ez, hizkera markatuak erabileraren bermea du. Esan gabe doa, errepikatuaren errepikatuz, umorearen bidez finkatu egiten da norberaren posizioa piramidean, barre onartuaren bidez itxura ematen zaio eguneroko egiturari, sendotu egiten dira jendartearen zimentuak. Bai, bere itxura arau-hauslean, pentsatu aldean asko du erritutik umoreak.” (2017:21)

Bistakoa da, beraz, “bestea”ri buruz egiten dela umorea gehienetan, gu ez garena da zaurgarri, gu ez garena da barregarri, eta aukeran, gu izateko ahalmenik ez duena.

2.3.2.b Behetik gora

“Zapalduak zapaltzaileaz umorea egiten duenean eta zapaltzaileak zapalduaz egiten duenean, kasu beraren bi bertsiori buruz ari al gara? Ezezkoan nago. Zapaldua zapaltzaileaz ari denean bere komunitateari ari zaio gehienetan. Labana izan nahi du baina ukendua da, batez ere, umore hori. Zapaltzaileak zapalduarekiko darabilena mailua da, bere hegemonia indartzeko darabilen zartailu bat gehiago”
Unai Iturriaga, 2017

Aranbarriren arabera, umore klasista, arrazista, matxista egitea ez da batere zaila:

“Mendeetako entrenamendua dugu, gizarte finkatu baten egituretan hazten da, eta bitartekoetara heltzen garen neurrian, bera da seinale jakiteko badugula norbait gu baino beherago, hondorago, lokatzago haren lepotik uxatzeko tristura zirin hau. Eta hor dago hain zuzen ere galdera. Hau da, zer umore klase egin liteke goitik behera erabiltzen diren mekanismo horien gaitzetan erori gabe? Europako herri literatura guztia dago jende xehearen mendeku txikiz josia. Literatura pikareskatik ahozko hamaika kontaketatara, nonahi ditugu zirtotxoak, sistema antolatua osatu gabe gehiago direnak mundu ikuskera baten adierazle alternatiba sendoa baino.” (2017: 21)

Hala ere, umoreak transgresioaren atea zabaldu dezake. Umorea aho biko tresna bat da: ‘boterea’ eta ‘kontraboterea’ izan daiteke aldi berean. Askotan, pentsamendu nagusiaren isla garbia da eta ideologia hegemonikoaren balioak eta mugak azpimarratzen ditu, baina kontraboterea ere izan daitekeenez, botereak beldurrez begiratu ohi dio umoreari.

Behetik gorako umore hau ez da agian goitik beherakoa bezain hedatua izango baina ezin da esan sektore zapalduak umore mota honetara maiztasunez jotzen ez dutenik. Izan ere, bertsolaritzaren kasuan ikusiko dugun bezala, erresistentziarako nahiz pauso bat gehiago emanda transgresiorako baliabide izan daiteke umore mota hau.

Pasarte honekin bukatze aldera, Dolores Julianoren (1992) aipu hau ekarri nahi nuke orriotara, bazterreko sektoreen (gorputz zaurgarrien) eraldaketarako grina azpimarratuz:

“Subalternitate posizioan dauden gizarteko sektore sozial guztiak, beraien egoera ezein izanik ere, pairatzen duten bazterketa soziala modifikatzen edo, gutxienez, orekatzen ahalegintzen dira, eta horrela ez ikustea ez da erabiltzen ari garen erraminta teoriko kontzeptualen arazoa baino.”²³ (Juliano 1992: 243)

2.3.2. c *Parez pare*

“Niretzat ezinbestekoa da umore beltza, kartzelako umorea... Sasian sekulako beldurra genuenean, baten batek sekulako ergelkeria botatzen zuen, eta denok kriston barreak egiten genituen. Umeak bezala. Egoerari buelta emateko balio du”.

Arantza Arruti, 2015²⁴

Goitik beherako nahiz behetik gorako umoreaz gain, bada umorearen beste noranzko posible bat ere, parez parekoa deitu diodana, berdinetik berdinerara gauzatzen dena. Besteak beste, Anduagak aipatutako Donna Goldsteinen lana (2003 in Anduaga 2016) dugu honen erakusgarri. Autoreak Brasilgo auzo txiroetako emakumeen umorea aztertzeke egindako etnografian haien egoera prekario eta menderakuntzakoaz barre egiten dutela erakusten du, horrek emakumeen artean kontzientzia politiko bat partekatzen eta indartzen laguntzen duela ohartaraziz.

Nork bere buruaz eginiko umorea praktikatzeko beharrezkoa da parekideen arteko harreman bat egotea, egoera edo posizio berekoak izateak bermatzen baitu askatasunez eta lasaitasunez jardutea.

Anduagaren ustez, azken ideia honen adibidetzat har daiteke, esaterako, juduek euren kolektiboaz egiten duten umorea: oso ezaguna baita haien buruaz umorea egiten dutelako, baina harrigarria da haiek soilik (juduak direnek soilik) egin dezaketela, hala izan ezean oso gaizki hartu ohi baitute (Cotte 2012 in Anduaga 2016).

²³ Itzulpena nirea da.

²⁴ (Rodriguez eta Etxebarrieta 2016: 17)

Noranzko honetan eraikitako umoreak umore sortzailea nahiz hartzailea berdintzen ditu, botere-harreman parekideak bilatuz eta umore fokua norbere buruarengan jarrita sortzen da maiz.

2.4. Genero-sistemaren eta umore-sistemaren gurutzaketa bertsolaritzaren baitan

Ikusi dugu jada generoa boterearekin estuki lotuta dagoela eta berdina gertatzen dela umorearekin ere. Ikus dezagun, bada, zer gertatzen den boterearekin hain estuki lotutako genero-sistema eta umore-sistema bertsolaritza bezalako jardun batean uztartzen direnean.

Hernándezek (2016: 38) ohartarazi bezala gizartearen isla dugu bertsolaritza eta, halaber, gizarteak bezalaxe, genero-sistema du antolaketaren erdigunean. Bertsolaritza bera, gainera, sistema konplexua da eta are konplexuagoa da aurrez aipatu ditugun bi sistemetako prozesu abstraktuek adierazpen kultural honetan duten gauzaren konkretua aztertzea.

Egañak, Gartziak eta Sarasuak bertsolaritza garaikideari loturiko teoria osatuena plazaratu zuten 2001ean. 2.1 puntuan aipatu bezala, Manuel Lekuonak bertsolaritzari egokitutako tokitik —alegia, ahozko literaturatik— atera, eta komunikazioaren arloan kokatu zuen hirukoteak, erretorikaren generoari atxikita. Lan horretan, bertsoa zer den deskribatzeko honako definizio teknikoak darabilte: «Bertsoa berbaldi bat da, kantatuz, erimatuz eta neurtuz burutzen dena» (Egaña et al., 2001: 81).

Alabaina, Hernándezek (2016:39) dioskun bezala, bertsolaritzaz hitz egitean, argi dago bertsoa hori baino gehiago dela.

Bertsolaritzan emakumeen ibilbidean agertutako mugez eta oztopoez ari dela, Hernándezek (2016) baliagarri zaidan beste ideia bat ere badakar. Muga eta oztopo horietako asko gizarte-egituraren azterketatik identifikatu badaitezke ere beste batzuk jardueraren beraren izaera eta logikatik soilik uler daitezkeela azpimarratzen digu antropologoak eta bertsolaritzak euskal kulturaren duen pisuaz ohartuta, bertsolaritzaren esparrua zabaltzearen alde egiten du ertzetan geratu izan diren hainbat elementu azterketan integratu asmoz: bertso-saio baten testuinguru erreferentziala (aurretik izandako bertso-saioak, bertsoaldiak, bertsoak...), bertsolari zein publikoen gorputzak eta afektuak, bertsolari eta publikoaren arteko (huts)unea, bertso baten barruan esan gabe geratzen den hori, etab. (2016: 27).

Ikuspegi bereziki interesgarria iruditu zait Hernándezen hau eta neuk ere, 2.2 atalean genero-sistemaz esandakoek azterketan lagunduko didatela jakinda, bertsolaritzaren beraren izaera eta logikari dagozkion zenbait elementu ere analisirako behar

beharrezkotzat jo ditut.

Hain zuzen ere, atal horretan genero identitatearen eraketa (genero rolak), hierarkizazio prozesuak (desberdinkeria sortu eta boterea gauzatzea ahalbidetzen dutenak) eta sozializazio edo transmisio prozesua (sistemak funtzionatzea ziurtatzen duten mekanismoak) izan ditut mintzagai, batik bat. Horien aurrean ispilu bat kokatu eta paralelismo moduko bat eginez, kasu honetan bertsolaritzaren baitan elkarrekin harremanetan dauden hiru elementu izango ditut hizpide: sozializazio edo transmisio prozesua (bertsolaritzan umore sistemak (ere) berdin jarraitzen duela ziurtatzen duten elementuak), identitatearen eraketa (bat-batekotasunak dakartzan inertziak eta umorean dauden genero estereotipoak) eta hierarkizazio prozesuak (umorearen noranzkoak kontuan hartuz bereiziko ditudan umore motak). Azkenik, umorearen hiztegiari buruz jardungo dut.

2.4.1. Bertsolaritzaren transmisioa: Tradizioaren pisua eta publikoaren eragina

Atal honetan bertsolaritzaren baitako sozializazioari edo bertsolaritzaren formazio prozesuari egingo diot azpimarra.

Genero-ikuspegitik egindako bertsolaritzaren gaineko diagnostikoak genero-sistemaren eragina eremu ezberdinetan detektatu du. Eremu horietako bat da, hain zuzen, jarraian arreta berezia eskainiko diodana: bertsolaritzaren transmisioan gertatzen diren emakume-gizonen arteko desoreka eta genero-rolen erreprodukzioa.

Nabarmena da tradizioak pisua handia duela bertsolaritzan. Oholtza gainean gertatzen denak garrantzia izateaz gain, aurrez gertatu izan denak ere pisu handia izan ohi du. Bertsoen transmisioaren aldetik, interesgarria da behatzea zein bertsoaldi umoretsu gogoratzen diren, zein errepikatzen diren, zein jartzen diren eredu gisa, etab.

Tradizioaren transmisio lan horretan, gainera, publikoaren eragina ezin ukatuzkoa da. Publikoa gizartea da, gizartearen lagin bat behintzat, eta publikoak ere tradizioaren iturritik edan du, ikasi du, eta berak espero duenak eragin handia dauka bertso jardunean. Bertsolariak entzulearekin negoziatu behar du uneoro, eta erresistentziak eta tentsioak publikotik datoz, neurri handi batean behintzat. Negoziaketa hori gizarteak oro har onartutako diskurtsoarekin erakusgarritzat har daiteke.

Hernándezek (2016) 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Xalbadorren txistualdia²⁵ gogorarazten du eta antropologoaren hitzetan, "Xalbadorrek bizi izandako une horrek argi uzten du bertsolaritza zerbait bada, publiko eta bertsolarien artean

²⁵Sarean: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Xalbador> [Azken kontsulta: 2018-08-30]

sortzen den lotura likido hori dela” (2016: 32).

Linda Whiten arabera ere bertsolariaren lanak entzuleria bat behar du eta entzuleriak bertsoaren sortze-lanean hartzen du parte, bai ahoz, bai ez-ahozko moduan, *performancean* artistak eta publikoak bat egiten dutelarik (2001: 12 in Hernández 2016:35). Egañak, Gartziak eta Sarasuak (2001) ere teorizatu dute bertsolari eta publikoaren arteko harremanen inguruan, kasu honetan ere bien arteko lotura egiaztatuz: «Jendaurreko bertso-emanaldietan entzuleak saioaren emaitzan duen esku-hartzea berezia da: sorkuntzaren garapenean entzulearen erantzunak eragin nabarmena du, errokoa. Azken batean, ingurunea sorkuntzarako oinarritzko osagaia da bertso saioetan» (Egaña et al. 2001: 54).

Hernándezen (2016: 38) arabera ere bertso-jardunean bi ikuspegi gurutzatzen dira: batetik, bertsoa eta bertsolariarena; eta, bestetik, ikusle edo publikoarena. Biak aztertu eta ulertu beharko genituzke eta, horrekin batera, bien arteko logika; elementu horiek guztiek bertso-saioaren eraketa-prozesuan parte hartzen dutelako.

Hernándezentzat (2016), gainera, elipsia bertsoaren muin bihurtzen da eta bertsoan isiltasunak (esaten ez denak) hitzak bezainbesteko pisua duela esan daiteke.

Ahozko tradizioen ikerkuntzan erreferente den John Foley Wolfgang Iser-ek (Iser 1978 in Foley 1991) idatzizko literaturan aplikatutako ikuspegia ahozko testuaren eremuan garatzen saiatzen da. Foley-ren arabera, ahozko zein idatzizko testua jarduera partekatua da eta bertan, egilea, testua eta entzulegoa (edo irakurlea) dira parte-hartzaileak. Bai Iserrek, bai Foleyk, hartzaileen jarrera aktiboa azpimarratzen dute eta jarrera aktibo horrek zeregin berezi bat bideratzen du: testuak dituen elipsiak edo *hutsuneak* betetzea.

Foleyk funtsezko ñabardura bat egiten du. Izan ere, bere ustez, ahozko testuaren eremuan tradizioak paper garrantzitsua izango luke entzulegoaren jarrera aktibo horretan: «Esan beharko genuke publikoak testua interpretatzen duela ondaregintza bezala duen partekatutako jakintzaren arabera» (Foley 1991: 45). Ondorioz, jarrera aktibo horretan, tradizioaren edo, Foleyren hitzak erabiliz, *traditional referenciality*aren bitartez aurretik sortutako testuak eta egindako *performanceak* orainaldira ekartzen dira, sortze- edo ahozko produkzioaren parte bilakatu (Foley 1991: 7).

Foleyk ahozko tradizioan *traditional referenciality* kontzeptuak duen pisua nabarmentzen du, testuaz gain, testuinguruak sortze- eta zabaltze-prozesuan duen pisua azpimarratuz. Testuak ez dira hutsetik sortzen, baizik eta aurretik sortutakoaren

gainean.

Jakina delako esaten ez den horrek (Hernández 2016: 41) badu bere karga bertsolaritzan; Foleyk *metonymy* izendatu zuenak, tradizioak biltzen duen ezagupen eta esperientzia metatuak produkzioa (testua eta abar) osatzen duela argudiatuz.

Hernándezengana itzuliz, antropologoak gogorarazten digu emakume bertsolariek ere aipatzen dutela oholtza gainean agertzen diren bakoitzean iragan bati egiten diotela uko, isiltasun inposatu bati, genero-agindu eta -rolei, inertziei... Haien presentziak, gorputzak eta ahotsek tradizioa jartzen dute kinkan eta hura deseraikitzeke deia egiten dute (2016: 41). Horrela, bertsoak ezarritako komunikazio eremuan, publiko eta bertsolariaren arteko topaketa gertatzean, genero sistemak ezarritako arauak eta betebeharrak *performancearen* parte dira, ezinbestean.

Bi agente horiek uneoro ari dira negoziaketan eta publikoak pisu handia duela nabaria da:

“Lau edo sei bertsolarik osatzen duten oholtza batean ez da Einstein izan behar kalkulatzeko zein izan daitekeen norberaren rola. Baina kontuz! Zoru labainkorra. Estereotipoek nortasunaren zantzu batzuk ematen dituzte, baina, batzuetan, azti ibili ezean kaiola bihurtzen dira.”(Iturriaga 2017: 44-45)

Iturriagak aipatu bezala, publikoak bertsolari bakoitzari esleitzen dion rola ez da negoziaketaren zati bakarra. Sakoneko elkarrizketen analisisian ikusiko dugun bezala, bertso-jardunean hainbat eta hainbat talka sor daitezke umorearekin lotuta. Gerta liteke bertsolari batek umore hegemonikoari heltzea eta besteak umore molde hori ukatzea, publikoarengan nolabaiteko distortsioa sortuz. Gerta liteke baita ere bertsolari batek espero den hori bete beharrean umore erresistentea edo are subertsiboa edo bazterrekoa sortzea erabaki eta entzuleak ez ulertzea, entzulearengana ez iristea. Gerta liteke talka bertsolariaren beraren baitan jazo eta zer ez duen kantatu nahi argi izan arren zer kantatu nahi duen hain argi ez izatea. Negoziaketa etengabea da.

2.4.2. Bat-batekotasunaren inertziak

“Hemen eta orain aldagaia hain da premiatsua, bertsoa bera eta harekin batera umorea bera ere, urjentziak baldintzatzen dituela”.

Unai Iturriaga, 2017

Identitatearekin lotuta, publikoak bertsolari bakoitzari esleitzen dion rolaz gogoetatzea interesgarria litzateke. Bertsolari batzuk baino ez dira hartzen umorearen ordezkariak, historikoki Lazkao Txiki eta gaur egun Iker Zubeldia, esaterako. Ordezkar

horiek, gainera, zein umore mota ordezkatzeko duten hausnartzea dagokit. Emakume bertsolariek, oro har, ez dute umorea ordezkatzeko bertsolaritzan.

Publikoak esleitutako roletaz gain, bertsolaritzaren baitako umorezko jardunean genero rola eta estereotipoak behatzea dagokit jarraian.

Lehenik eta behin ikerlan honetan bertsolaritzari buruz ari naizenean bat-bateko bertsolaritzaz ari naizela zehaztea komeni da. Ahozko inprobisazio kantatua mundu mailako fenomeno da eta Euskal Herriko kasuan, bertsolaritza deitzen zaio bertsolariek jendaurrean eta bat-batean bertsoak kantatzeari. Berbaldi kantatu hauek neurri metriko bat errespetatu behar dute eta errimatuak izan behar dute nahitaez:

“Plazako kantariaren bertsogintza ez da, bertso-sorta buruan eta paperean osatzen duenaren bertsogintza astiroa. Jendaurrean ari denak bapatean egingo ditu bertsoak, musika doinuaren arauera tajutuko ditu esaerak, eta jende-talde baten aurrean hotsegingo ditu bere poemak”. (Lekuona 1980: 100)

Nabarmena da, beraz, egungo bertsolaritzan bat-batekotasunak duen pisua. Formari dagozkion muga zurrun batzuk eduki eta bat-batekotasunez (segundu gutxiren buruan) eta urjentziaz sortzen den jarduna izateak, berezi bilakatzen du aztergai dugun eremua. Bat-batean eta dioguna bi aldiz pentsatzeko tarterik apenas izan gabe aritzeak leku gehiago egiten die inertziei nahiz topikoei eta alde honetatik, bistakoa da bat-bateko bertsolaritzaren interesgarritasuna, jendartearen gehien hedatutako uste eta balioen ispilu gardena izan daitekeelako.

Unai Iturriagak ere bat egiten du aurrekoarekin:

“Denborak eta distantziak hartara ekarrita, laburrean bertsolariak gehiago tirako dio fisikoari, begitik sartzen denari, topikoari, eraikita dagoen moldeari, horrek berarekin dakartzan arrisku guztiekin. Azken finean, topikoen eraikuntzak asko du gizartean nagusi diren balioetatik. Bizkor ibili beharrak, inprobisatzeak berarekin duen urjentziak, burutik ezpainetarako bidean berbak norberaren eraikuntzak diren arrazoia edo ideologia lako galbaheak pasa barik jaurtitzera garamatza. Horrekin ez dut, inondik ere, neure burua zuritu nahi. Ez da gure ahotik gure baitan ez dagoen ezer aterako, bai osteraz bazegoela ez zenekienik.” (2017:44)

2.4.3. Hierarkizazioa: Umore motak

“Pailazo izatea umore ona (errespetuzkoa, berritzailea, kritikoa...) egitea da; umorea pentsatzea, alegia”.
Miren Amuriza, 2017

Umorea hiru talaiatetik, hiru noranzko ezberdinetan (behintzat) “pentsatu” daitekeela aipatu dut 2.3.2 azpiatalean. Gainera, ikerlan honen izenburutik bertatik umorea(k) daudela adierazi dut, umorea singularrean baino pluralean deklinatzeko hautu kontzientea eginez²⁶. Izan ere, orain arte esandakoak kontuan hartuta bi umore mota bereiziko ditut hurrengo lerrootan: umore hegemonikoa eta bazterrekoa edo subertsiboa. Bi umore mota hauek bide emango didate genero-sistemari buruzko 2.2 atalean aipatutako hierarkizazioaz mintzatzeko.

Umore hegemonikoa, hitzak berak dioen moduan, hegemonia elikatzen duena litzateke, normatik bertatik sortua.

Anduagak bere lanean zehar hegemonia adieraren ulerkera zabala darabil, ondorengo pasarteetan laburbiltzen dena:

“Klase edo sektore sozial mugatu batek (bai eta horri loturiko praktika, diskurtso edota bestelako errealitateek) gehiengoarekiko agertzen duen nagusitasuna, gailentasuna edo domeinua, baina baita ere domeinu eta nagusitasun horrek eragin ditzakeen ondorioak ere. Hala, hegemonia adieraren baitan jasotzen dugu, besteak beste, klase edo sektore sozial jakin batek besteekiko duen nagusitasun horretan bere kosmobisio eta diskurtsoak besteengan inposatzeko duen gaitasuna (botere-harremana eta dominazioa).” (2016: 152)

Anduaga Jesús Martín Barberoren (1991) hitzetan oinarritzen da hegemoniaren ulerkera hau proposatzeko, izan ere honela definitzen du hegemonia Barberok:

“Klase jakin batek egiten duen prozesu hegemonizatzailea, harenak diren interesak azpiratuak dauden taldeek ere propiotzat hartzen dituzten heinean gertatzen dena (...) indarrak ez ezik zentzuaren bidez egiten dena (...) liluraz eta konplizitatez.” (Barbero 1991: 84 in Anduaga 2017: 152).

Beste batzuetan, ordea, hegemoniaren zerbitzura jardun beharrean, umoreak beste logika bati erantzuten dio. Mario Zubiaga eta Edorta Aranak (2017) binetetako umorearen balio subertsibo edo eraldatzaileaz dihardute eta bertsolaritzan ere antzeko gertatzen dela azpimarratu behar da:

“Egituratik egitura ezara garamatza umoreak, ordena jakin baten apurketa dakar: dena delako ordenarena, esaterako, bortizkeriaren ‘normalitatea’ barne hartzen duen horrena. Horixe da bere balio subertsiboa, eraldatzailea.” (Várnagy 2016 in Zubiaga eta Arana 2017: 73)

²⁶*Bertsoa.eus* atarian egindako elkarrizketan Miren Amurizak azpimarratzen du gaur egun bertsolaritza baino bertsolaritza(k) esan beharko genukeela, pluralean.

“Pentsamenduaren ildo arruntean, klitzez betetako mundu ikuskeran, *lapsus* edo haustura bat eragiten du umoreak, pentsamendu modu alternatiboei lekua eginez.”
(Knott 2015 in Zubiaga eta Arana 2017: 73)

Bazterreko umorea edo umore subertsiboa deritzot bigarren umore mota honi eta bertan kokatuko nituzke behetik gorako noranzkoan nahiz parez parekoan eraikitako umoreak, erresistentzia gisa eta batzuean transgresio gisa ere jokutzen dutenak.

Azken bereizketa egitea garrantzitsua da, analisian zehar ere bereizi egingo dugulako umorea zein kasutan den erresistentzia eta zein kasutan transgresioa. Erresistentziak aurrez zeunden lekuan kokatzen zaitu, posizio horretatik egindako defentsak litzateke. Transgresioa, aldiz, pauso bat aurrera egitea litzateke, eta pauso honek lege, norma edo ohituren apurketa ekarriko luke berarekin. Transgresioa probokazioaren lotuta dago nolabait.

Hierarkizazioari erreparatuz, beraz, bertsolaritzaren umorerako zein norabide nagusitzen diren behatuko dut analisiaren bidez.

2.4.4. Umorearen hiztegia

“Bai, hitzak behar ditugu bestelako umorea nahi badugu, horra abiapuntua [...]. Monsantok bahitu eta Bayerrek komertzializatu gabeko hiztegi libre bat, ezinezkoa baita beste logika batean saiatzea, barreari ziri-ziri aritzea, hasieratik bertatik bagaituzte gatibu”
Iñigo Aranbarri, 2017

Gauza jakina da diskurtsoak errealitatea irudikatzen duenean eraiki ere egiten duela. Askotan errepikatzen dugu aipatzen ez dena ez dela existitzen eta zenbait hizkutzatan gai batzuen inguruko terminologia eraiki gabe dago. Hizkuntza sexista denez errealitate batzuk ez dira izendatzen eta ez dira ikusarazten eta oraindik hiztegi oso bat eratzeko dago emakumeon errealitate askoren inguruan, gure sexualitatearen inguruan, besteak beste.

Honetaz ohartuta, nik ere hizkuntzari garrantzia berezia eman nahi izan diot, umorearen kasuan ere garrantzi berezia dutelako hitzek, hiztegiak. Izan ere, umorea nola, zein noranzkotan, egiten den aztertzeaz gain, ezinbestekoa deritzot umorea *zertaz* eta *zer* esanez egiten den ikertzeari. Hori dela eta, umorerako zein gai (eta zein ez), zein hizkera (eta zein ez), zein hitz (eta zein ez)... baliatzen diren hausnartzen ahaleginduko naiz elkarrizketatuei gai honen inguruan beren beregi eskatutako gogoetak aletuz.

Zulaikak (1988 in Hernández 2016) gurean hitzak duen garrantzia azpimarratu izan du

eta tarte luzea eskaini dio hitzaren ideologiaren azterketari. Hasteko esan behar da hitzaren ideologiak euskal kulturaren duen nagusitasuna ahozotasunak duen protagonismoarekin lotu behar dela, bien arteko loturak nabarmenak direlako (ibid). Bertso-saioak hitzaren inguruko erritual gisa agertzen zaizkigu eta bertan emozioak sortzea helburu bilakatzen da, afektu horien bitartez hitza sortu eta performatzeko eta, azkenik, hitzak mundua (egoera, testuingurua...) eraldatu ahal izateko.

Eginkizun sozial argia du, beraz, bertsolaritzak. Horrexegatik izan nahi nuke ikerketa osoan zehar heldulekutzat umorearen hiztegiaren azterketa, hitzen gaineko gogoeta zeharlerrotzat landuko dudalarik.

3. MARKO TEORIKO-ANALITIKOA

Aurretik esandako moduan, 2.atal sakonean landu dudana Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren marko zehatzagora ekartzea dagokit jarraian. Horretarako, txapelketa honen historia laburbilduko dut aurrena, laburpen horren ondoren gaur egun txapelketak duen balioaz hitz egingo dut eta puntu horren barruan sare sozialek hauspotutako “metatxapelketaz”. Azkenik, umorearen mugez (azalari nahiz mamia-ri dagozkionez) ere jardun nahiko nuke amaitu aurretik.

3.1. **Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia laburra**

“Bertsolaria ez da bakarrik kantatzen egotekoa; batetik entzulea bear du eta bestetik kontrarioa eta emendik sortzen dira desafioak, norgeiagokak, txapelketak eta abar. Euskalerrria berriz, aspalditik apustu-zalea izan eta abildade guzietan abillena nor dan jakin naia betidanik izan. Ortik jaio dira euskal joku guziak, aizkolarienak, sega-apustuak, arraunlarienak... Olaxe sortu izan dira bertsolarien desafioak, guduak, txapelketak”
J.M. Etxezarreta, 1993²⁷

Gaur egun txapelketak duen garrantziaz eta pisuaz ohartzeko, katebegiz katebegi jarduera horren historiaren erreposoa egingo dugu lehenik eta behin. Jexux Larrañagak (2013) dioskunez, Txapelketaren ibilbide kulturalaren abiapuntuak 1935 eta 1936ko gerra aurreko bi txapelketetara garamatza.

Juan Mari Lekuonak (1987 in Larrañaga 2013) garai hau jotzen du gaurko bertsolaritza modernoaren mugarritzat “Bertsolaritza modernoaren bideak” izeneko artikuluan. Larrañagaren hitzetan, “Txirritaren inguruan bertsolaritza entretenigarri eta usadiozkoa da, bizi-bizirik dago eta indartsu, jendeak estimatzen du” (Larrañaga 2013:137). Gainera, liburu eta aldizkarietako aipamenen hastapenak ere garai honetan

²⁷Grafiari dagokionez zenbait akats egon daitezke Etxezarretaren aipuetan baina berak idatzi moduan ekarri ditudanez, zuzenketarik ez egitea hobetsi dut.

kokatu behar dira.

Guzti honek eraginda bertsolaritza goraka zihoan eta gorakada horri bide egoki bat jarri behar zitzaion, giroa baliatuz:

“<Aitzolen>²⁸ proiektu berriak bertsolaritza berritzeko belaunaldi berri baten agerketarekin bat egiten du, eta 1935eko txapelketarako ordezkari hori ondo beteko zuen gizon ereduaz azaltzen da: Iñaki Eizmendi, “Basarri”. Sozialki EAJ-ren politika kulturala egiteko bide aproposa suertatzen da bertsolaritzaren berrikuntza eta guzti horren eraginean hasiko da antolatzen lehenengo Bertsolari eguna, geroko txapelketen aitzindaria.” (Larrañaga 2013: 138)

Hala ere, historiaren soka aurrera jarraitu baino lehen, Josu Landak (1987) bertsolari txapelketaren historiaurrez atzera egin nahiko genioke leku. Izan ere, berak aitortu moduan, bertsolariak elkarren lehian jarduteko usadio oso zaharra da eta bertso-saioak eta lehiak noiztik burutzen diren zehaztea aski gauza zaila.

Landaren hitzetan, “horrelakoez dagoen lehen berria 1609koa da; Iruñeko apezpiku zen Antonio Venegas de Figueroak "bertso-gudu" bat antolatu omen zuen Eukaristiaren omenez” eta “Pedro Ezkurra, Mikel Aldatz, Joan Elizalde eta Martin Portal aurkeztu ziren hartara” (Landa 1987: 35).

Etxezarretak kontatzen duenez, aipagarria da baita ere 1801ean izandako desafioa:

“Euskal herri guztiak ezagutzen duana. Parte artu zuten bertsolariak Juan Ignacio de Zabala, Amezketa eta José Joaquín de Erroicena "Txabalategi" Hernanikoa. Apustua bosna ontzako urre (dena 10 ontzako urre). Lekua Billabonako plaza aundia, bi erritatik erdibidera zegoana. Garaia, Otsailean karnabal-inguruan. Diotenez lau mila entzule bildu omen ziran (Badakizute pertsonen kontaketa oso zaila izaten dala) Edozein modutara jendetza izugarria bildu zala bi bertsolariei entzutera” (1993: 10)

Hemeretzigarren mendean zehar bertso-mundua apur bat piztu eta bertso-jaialdiak antolatzen hasten dira. Eboluzio hori Abbadie lapurtar euskaltzalearen saioarekin gauzatu zen, Lore Jokoen mugimenduaren gailurrarekin.

1860an izan ziren Abbadiek antolatutako lehen Lore Jokoak, eta handik aurrera kasik mende-erdiz iraun zuten bizirik. 1926. urtean euskaltzale-talde batek "Euskaltzaleak" elkarte sortu zuen, eta berehala ekin zioten urtero Olerki Egunak zeritzen antolatzeari. Egun horien garapen bezala har genitzake 1935 eta 1936an antolatu ziren

²⁸Jose Ariztimuño Olaso, "Aitzol" ezizenez ezaguna, (Tolosa, 1896 - Hernani, 1936) euskal idazle, kazetari eta elizgizon abertzale eta euskaltzalea izan zen.

estreinako Bertsolari Txapelketak.

-Lehenengo Bertsolari Eguna

<Aitzolek> “Euskaltzaleak” Elkartearen zuzendaritza bereganatu zuen eta kultur sustatzaile lanetan Eusko Pizkundea mugimenduaren hastapenerako oinarriak jartzen egin zuen lana (Larrañaga 2013: 138)

Bertsolari eguna, 1935eko abenduaren 20an Donostiako Poxpolin antzokian ospatu zen, goizez bakarrik egindako ospakizunean²⁹. Kontatzen dutenez, goizeko hamarretarako *Poxpolin* antzokira etengabeko jendetza zihoan; leku ezberdinetatik etorritako bertsozaleak. Hogei bertsolari bildu ziren guztira kanporaketarik egin gabe. Hemezortzi gipuzkoarrak eta bizkaitar bi³⁰. (ibid: 139)

Iñaki Eizmendi, “Basarri” ezizenaz ezagunagoa, izan zen txapelduna, hogeita bi urte zituela eta ia inork ezagutzen ez zuen garaian. Orduko bertsolariak baino jantziagoa zen eta ordezkatzeko zuen bertsolari ereduak Jose Manuel Lujanbio “Txirrita”-ren aldean molde berritzailea zuena. Larrañagaren hitzetan, “Basarrik aldaketa soziokultural berrietara eramane nahi zuen bertsolaritzaren bidea eta bertsogintza komunikabideetara (kazetaritza, irratia) zabaltzeko ahalegina egin zuen” (ibid: 140)

Lehen txapelketa hau aipagarria da, beraz, bi belaunaldi desberdin elkartzen dituelako: batetik, Txirrita, Sailburu... itzal handiko herri bertsolariak, tradizionalak, eta bestetik, uhin berria, euskal Pizkundearen eraginpean Basarrik ordezkaria. Hori dela eta, bi belaunaldi horien arteko talka handia nabari daiteke garaiko iritzietan.

-Bigarren Bertsolari eguna

Bigarren Bertsolari eguna Donostiako *Victoria Eugenia* Antzokian ospatu zen 1936ko abenduaren 19an. Bertaratu ziren 10 bertsolari finalistak aukeratzeko hiru kanporaketa jokatu ziren aurrez eta hauetan guztira hogeita hamar bertsolarik baino gehiagok hartu zuten parte. Larrañagak horrela ematen du garai hartako berri:

“Behin Txirrita txapeldun izendatu eta gero, bai Txirritak, eta bai Basarrik ordezkatzeko zuten eredu soziokultural ezberdinen arteko trantsizioa etendura bortizik gabe egiteko

²⁹Landari (1987) esker dakigu txapelketa hartan aurkezleek bertsoz adierazten zitelako bertsolariei egin beharreko lana, antzinako erara.

³⁰Iñaki Sarriugarterentzat azpimarragarria da garai hartako dokumentuen artean bizkaitarren inguruan agertzen den aipamen urritasuna eta ondorioz “Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 urte: P.Abarategi eta E.Uriarte Poxpolin antzokian” (2010) izeneko artikuluan bi bizkaitar hauek goratzeko ahalegina egiten du.

baldintzak leunduta daude. Bi bertsolari horietan ikus bailiteke aldaketa soziokulturalen nondik norakoa, bai aberria, gaiak, kultur janzkera eta jendurrekotasuna. Baserri giroko gizarte legeen orde zizarte hiritarragoranzko joera” (ibid: 142).

Gerra aurreko bi txapelketa hauetan herri tradizio hutsezko bertso gintza eta eskolatuaren arteko talka ageriko bihurtzen da. Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea Txapelketen aroarekin, ordura arte ez bezala, bertso gintza bera bihurtzen dela jaialdi baten izateko arrazoi.

Deskribatzen ari garen gerra aurreko bi txapelketa hauek jo ditugu honezkero bertso txapelketen tradizioaren sorreraren aitzindari, gerraondoko Bertsolari Txapelketekin homologa baitaitezke. Hargatik berrikusi nahi izan ditugu xeheago txapelketaren hasiera urteak.

-Gerra ondorengo ilunaldia

Bi txapelketa horietan jarri dugu bertso txapelketen tradizioaren aurrekaria baina bide hori laster etenda gelditu zen Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) eraginez. Larrañagak dioskunez, “gerra ondoreneko bertso ilunaldia luzea izango zen” (ibid: 144)

Garai honen barnean bi aro bereiz litezke. Batetik, “Isiltasunaren aroa” (1936-1945) eta bestetik, “Biziraupen aroa” (1945-1960), oinarrizko erreferentetzat Baserri eta Uztapide izango zituen.

Giro horren eraginpean, bertso gintza, umore eta denbora pasa jardun hutsa izatetik, bestelako itzala izatera igaroko zen. Bertsolaria bera ere arlotetzat hartzetik, jendaurrera txukun eta hizkuntza jasoagoan agertzeko berebiziko aldaketa egiten ziharduena zen (Larrañaga 2013: 147).

-Hirurogeiko hamarkada

Gerra zibilak eragindako hogeitau urte pasako etenaldiaren ondoren, 1958 urtean, “Euskaltzaindiak” lortu zuen Bertsolari Txapelketa antolatze baimena. Bizkaian 1958 eta 1959an lurraldeko txapelketak antolatu ziren dagoeneko eta aurrekari honen ostean antolatu zen gerraren ondoreneko lehen Txapelketa Euskal Herri mailan.

Larrañagak dioenez (ibid), hirurogeiko hamarkadako bertso gintzaren ardatz bat da txapelketa ez bairik gabe, bertso gintza berriz hauspotzen lagundu zuelako. Bideabar, bertsolariak gero eta gehiago kantatzen dute herriz-herriko bertso saioetan ere.

Gainera, hamarkada honetako giro soziokulturala aldatuz doa pixkana, “zentsura eta

errepresio giroa zertxobait leunduta, euskal kulturaren zapalkuntza zertxobait bigundu egiten da". (ibid.: 149)

Garaiko egunkariek agertzen dutenez, izugarrizko sona izan zuen "Campeonato Mundial de Bertsolaris" (1962) afixarekin iragarria izan zen txapelketak. Ospatzeko lekua, *Victoria Eugenia* antzokia, txiki gelditu zen. Hori dela eta kanpoaldean bozgorailuak jarri eta horrela jarraitu ahal izango zuten saioa hainbat bertsozalek.

Esan liteke parte hartzaileen jatorriari begira Euskal Herri guztiko bertsolariekin egindako lehen txapelketa izan zela, Iparraldeko ordezkariak ere, Fernando Aire "Xalbador" eta Mattin Trekuk, kantatu baitzuten.

1962 urtean Manuel Olaizola "Uztapide" k irabazi zuen txapela eta bere nagusigoa markatuko zuten 1965 eta 1967ko Txapelketek ere. "Uztapide" molde zaharreko bertsolari seguru eta egokia izango zen, herriak asko maitatua.

Larrañagaren arabera, "txapelketa bolada honek bertsolaritzaren panorama asko aldatuko zuen, entzuleria berriz ere asko piztu baitzen eta bertsolari mordo berri bat agertu". (ibid: 150)

Beste aldaketa batzuk ere nabarmentzen ditu ikerlariak. Batetik, mikrofonoaren erabilerari esker bertsolariak nahitaez altu kantatu beharrean goxoago edo leunago kanta zezakeen, kantakerak esaten zuenean ere eragin zezakelarik. Bigarrenik, grabagailuak (magnetofonia) bertsoak jasotzea erraztu zuen.

Gaiei dagokienez, gaiak denentzat berdintsu jartzeko saiakera egin zen, eta zotz egin ahalik eta baldintza berdinenak lotu asmoz. Kartzelako gaia ere orduan sartu zen³¹.

Gainera, epaitzeko irizpidea ere lantzen da. Landak (1987) kontatuta dakigu 1962ko Txapelketak korapilo hau agertarazi zuela bere kontraesanik bortitzenean: epaimahaiaren balorazioen neurketa³².

Garai honek beste zenbait pasarte jakingarri ere bildu zituen. Ezaguna da egun 1967an Xalbador-i jotako bost minutu eta erdiko txistualdia. Bi urte lehenago, arratsaldera

³¹"Kartzelako gaia" deritzon ariketan gai bakarra jartzen zaio txandaka bertsolari bakoitzari. Bertsolariak aretotik kanpo eramaten dira ez ditzaten aurrekoen bertsoak entzun.

³²"Aurrez, 1935ekoan, epaimahaikide guztiei esan egin zitzaian aurretik zein modutan eman behar zuten beren balorazioa. Kontutan eduki behar ziren: bertsolarien sormena, irudimena, bertsoetarako erraztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oinen berdintasuna. Hori guztiori neurtzeko, bost puntuaketa-mota: oso txarrari, 0; txar samarrari, 5; on samarrari, 10; onan, 15; eta oso onari, 20". (Landa 1987: 41)

igaroko ziren bertsolarien artean Mattin aukeratzean jazo zena ere Xalbadorrekin gertatuko zenarekin aurrerapen gisa har genezake, Iparraldeko bertsolarien euskara ulertzeko zailtasunak estreinako arazoak sortu baitzituen orduko hartan, 67koan lehertuko zena aurreikusiz.

Zoritxarrez, eta eskandalu hark izan zuen bere eragina horretan, hurrengo hamabi urteetan ez zen txapelketarik antolatu.

-Erresistentziaren azken urteak (1979 bitarte): bertsolaritza soziala

Bitarte horretan giro politiko eta soziala gorantz joango zen, baita Franko hil eta geroago ere. Txapelketa Nagusirik antolatu ez bazen ere, beste maila bateko txapelketa txikiagoak eta batez ere gazteei zuzendutakoak ugaltu ziren.

Franko hil (1975) ondorenean berotasun politiko handiagoak jaialdien ugartasuna ekarri zuen eta bertsolariak mitin, jaialdi edota manifestazioetan parte hartzeko gonbidapenak jasoko zituen. Bertsolaritzaren mugimenduak berpizten ari zen mugimendu sozial horrekin bat egingo zuen eta Lopategi eta Azpillaga nabarmendu ziren ekinaldi honetan.

Lau urte beranduago, txapelketaren bideari berrekin zitzaien.

-Berrikuntzaren aroa eta gailur berria: Xabier Amuriza

1980ko urtarrilaren 6an Donostian jokaturako finalean bi bertsolari nabarmendu ziren: Jon Enbeita eta Xabier Amuriza. Txomin Garmendia, Jon Azpillaga eta Jose Luis Gorrotxategi 67ko finalean egondakoak ziren; bertsogintza herrikoia eredu Patxi Etxeberria eta Angel Larrañaga agertuko dira; Iparraldeko ordezkaria Manuel Sein "Xanpun" izan zen.

Larrañagak aipatu moduan (2013: 153) berrikuntza handiena Amurizak ekarriko zuen: bertsolaritzaren aro modernoari atea irekitzen zion bertsogintza ulertzeko beste modu bat. Kutsu poetiko handiko bertsokeraz, egungo bertsolaritza modernoaren oinarriak ezarri eta euskara batuan kantatzeko hautu kontzientea egingo zuen.

Bestalde, ordura arteko uste errotua, bertsolariaren berezkotasuna, gaituriko zuen, bertsoaren sorkuntza tekniken bidez bertsoan ikas zitekeela frogatuz.

Txapelketa honek trantsizio bat markatzen du baita entzuleengan ere. Ordura arteko entzuleriaren balio eta uste partekatuen ikuspegi nuklearra sakabanatuagoa gelditzen

baita, “ez dago jadanik hain nabarmen iraganean partekatutako balio absoluturik, eta ondorioz entzuleria ezpalduagoa azaltzen da, baita jende jantziagoa ere eta giro urbanokoa ere”. (ibid: 155)

-Bertsolaritzaren arrakasta berria

Amuriza aitzindaritzat duen berrikuntzaren aro honek aldi batetako erreferentzia markatuko du. Bere garaikide izango dira, esaterako, Jon Enbeita eta Jon Lopategi.

Bertsolaritza gustagarri egiteak zekarren arrakasta berriaren ondorioz, hitzaldi eta ikastaro franko antolatu ziren Amuriza bera emaile nagusi zela, bai bertsolaritzaren alde baina baita euskararen alde aritzeko.

Bertso-eskolek ere eragin handia izango dute mugimendu horretan eta azpimarragarria da emakumearen presentzia bertso-eskolen bidez hasten eta hazten dela.

1986ko Txapelketak berarekin ekarri zuen Bertsolari Elkartearen sorrera. Orduetik aurrera Elkarte horrek hartuko du Txapelketa antolatzeko ardura, ordura arte antolatze lanetan ibilitako Euskaltzaindia eta bertsolarien arteko urruntzearen ondorioz. Izan ere, 82ko Txapelketaren ondorenean bertsolari, epaile eta entzuleen artean iritzi ezberdinak izan ziren eta zenbait errezelo sortu zituen, besteak beste, puntuaketa emateko moduak³³.

Txapelketa honetan, lehen aldiz emakume batek hartu zuen parte, Kristina Mardarasek, hain zuzen.

Gainera, lurralde bakoitzeko saioen antolaketak eta autonomoki antolatzeak asko herriratu zuen antolakuntza lana, bertsozaleak ere lanean jarrita eta txapelketa honek gailur bat markatuko zuen hedabideetan izan zuen eraginean, lehen aldiz arreta bereganatu baitzuen modu masiboan³⁴. Espazio aldetik beste urrats bat emango zen txapelketa Anoetako belodromora eraman eta 8.000 lagun inguru bilduz.

Sebastian Lizaso azpeitiarra izan zen garaile³⁵.

-Laurogeita hamarreko hamarkada

³³“Txapelketa horretan, Amuriza izan zen irabazle buruz burukoa Lopategirekin jokatu ondoren. Gertatutako polemikaren ondoren txapelketa ez zen berriz jokatu 1986ra arte”. (Larrañaga 2013: 158)

³⁴Lehenengo aldiz eman zuen EITB-k zati bat zuzenean.

³⁵Lehenagotik zetozen Amuriza, Lopategi, Enbeita-ri, esandako txapeldun Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Jon Sarasua eta Andoni Egaña bildu zitzaizkien.

1993ko Txapelketa jokatzeko denerako, bertsolariak jada euskal kulturako pertsonaia ezagunak bihurtu dira; sarritan agertzen dira telebistan eta irratan eta herriz herriko mugimendu handia dute. Larrañagaren hitzetan, “bertsolaritzaren ezandaren garaia da eta Andoni Egañak (Zarautz, 1961) irabaziko duen lehen txapelarekin bertsolariak, gizarte arrakastaren unerik gorena biziko du” (ibid: 161).

Egaña izango da bere belaunaldiaren estiloari eta bertsolariari ekarpen handiena egiten dion bertsolaria. Harekin batera, Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966), Xabier Euzkitze (Azpeitia, 1966), Angel Mari Peñagarikano (Anoeta, 1957) lehiatzen dira.

Berritasunaren emaria etengabekoa da eta txapelketaz txapelketa izen berriak plazaratzen joaten dira. Aldaketa azkar hauen eraginez bertsolaria eta entzuleria eraldatzen doaz; entzuleria jada ez da baserritarra, eskolatu gabea, gizonetzkoa bakarrik. Horrek asko eragiten du sorkuntzaren nolakoan, bertsozintza bera aldaraziz.

Bertsolarien prestaketa mailari dagokionean ere teorizazioan ekarpena egiten da eta bertsolari bakoitzak bere estiloa (bertsokera) garatzeari garrantzia ematen zaio, forma eta mamia, biak uztartuz.

Hamarkada honetan, lehenagoko entzuleriaren heterogenotasuna zatikatu egiten da, anitzagoa sortzen doan neurrian, adin, ideologia, jatorri, gizarte maila desberdinetako jendea biltzen da bertso ekitaldien inguruan.

Esan liteke bertso saioen eraketa orokorra irizpide oso landuen arabera egiten hasten dela eta Txapelketa Nagusiaren antolatetari begira are gehiago, arreta eta bitarteko guztiak jartzen direla ahalik eta baldintza onenetan plazaratzeko. Ondorioz, txapelketa da indar handiena hartu duen kultur gertakizuna eta erregulariki antolatua izan da 67ko etenaldiaren ondorenetik, behin 80.ean berrekin zitzaionetik, eta azken garaian lau urtetik behingo maiztasunarekin.

Larrañagak egoki dion moduan, “txapelketak bertsolariari geroz eta bertso maila jasoagoa eskatzen dio, dizdira eragin eta goia jotzeko ahalegina ikusgarri bihurtzen du eta bertsolariaren ahalegina gailurra jotzera bideratua izaten da.” (ibid:163)

Txapelketa Nagusia berrikuntza guztien erakusleho nagusi bihurtzen da, beraz.

-Azken txapelketak

Aro oso bat markatu duen bertsolaria izaki, Andoni Egañaren nagusigoa erakutsi zuten

1993, 1997, 2001 eta 2005ko txapelketek. 2009ko Txapelketa Nagusian, aldiz, Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) izan zen Txapelketaren historiaren lehen emakume txapelduna. Ondorengo bietan Amets Arzallus (Hendaia, 1983) eta Lujanbio bera izan dira txapeldun, hurrenez hurren.

2005eko Txapelketaren finala izan zen Barakaldoko BECen ospatu zen lehena. Larrañagak horrela kontatzen du ordukoa:

“Eszenaratze erraldoia zirudiena jendez bete zen. Hamalau mila lagun biltoki bihurtu zen urte horretako txapelketa, ordura arteko marka guztiak hautsita. Zabalkunde eta hedapen handiagoaren bila emandako urratsa, arrakastatsua izan zen. Belodromoaren biribiltasuna gaituz, Barakaldok, Euskal Herrietako zoko guztietako jendetza zabalagoa bildu zuen”. (ibid: 96)

Ondorengoetan ere gainezka egin du BEC-ek, hamalau mila entzule ingururi leku eginez. Izan ere, “ahozkotasunaren festa horrek entzuleria eta igorlearen arteko komunikazio kanala suspertu ohi du bizipen emozioak eraginez” (ibid: 97).

1. TAULA: EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK

Urtea	Txapelduna	Lekua
1935	Iñaki Eizmendi “Basarri”	Donostia
1936	Jose Manuel Lujanbio “Txirrita”	Donostia
1960	Iñaki Eizmendi “Basarri”	Donostia
1962	Manuel Olaizola “Uztapide”	Donostia
1965	Manuel Olaizola “Uztapide”	Donostia
1967	Manuel Olaizola “Uztapide”	Donostia
1980	Xabier Amuriza	Donostia
1982	Xabier Amuriza	Donostia
1986	Sebastian Lizaso	Donostia
1989	Jon Lopategi	Donostia
1993	Andoni Egaña	Donostia
1997	Andoni Egaña	Donostia
2001	Andoni Egaña	Donostia
2005	Andoni Egaña	BEC (Barakaldo)
2009	Maialen Lujanbio	BEC (Barakaldo)
2013	Amets Arzallus	BEC (Barakaldo)
2017	Maialen Lujanbio	BEC (Barakaldo)

Iturria: Norberak egina

Atal hau Larrañagaren hitzekin bukatze aldera, honako ideia gaineratuko nuke: “Bertsoak erakutsi digu hitzaren ondarea jaso badugu ahozko ondarea berritzeko jaso

dugula, eta berrituta bakarrik jarrai dezakeela ondare izaten” (ibid: 95). Etengabeko berrikuntza horren erakusgarri da, hortaz, txapelketaz txapelketa historiaren zirrikituetan zehar egin berri dugun errepasotxo.

3.2. Gaur egungo Txapelketaren garrantziaz

“Bertso-saioa egiteko era, askotan behintzat, elkarrizketan egina izan ohi da, ahotik ahora egindako talkan eta joalditan, inoiz apustuera ere hartzen duela saioak. Apustuaren piper honek, adibidez txapelketa giroan jokatzenean, bizitasun handia ematen dio bertsogintzari. [...] Aipatzekoa da elkarren arteko lehiak bertsogintzari ematen dion ñabardura: giza-indar gorenak sartzen dira jokoan, eta giroaren arauerakoak dira joko hauetako poemak eta kanta-saioak”
J.M. Lekuona, 1980

Juan Mari Lekuonak bere garaian idatzi bezala, bertsolariak ondo ezagutu behar ditu entzuleen kultur gaiak, kezkek eta zaletasunak:

“Horregatik, bertsolariaren eta entzuleen arteko harreman honek dohain bereziak eskatzen dizkio bertsolariari plazako bertsogintzan: entzuleen munduarekiko sentiberatasuna, begirunea eta maitasuna. Entzuten dagoen jendetza ondo ezagutu behar du. Entzuleek bezala pentsatu behar du, publikoarekin batera pentsatu ere”.
(Lekuona 1980, 103)

Bertso-saioak antolatzeko moldeei erreparatuz, sailkapen moduko bat finkatzen du Lekuonak. Usadiozko bertso-saioak edo librekoak aipatzen ditu lehenik eta hauekin batera desafioak. Beranduago, Txapelketei buruz ari delarik, honakoa gehitzen du:

“Txapelketako bertso-saioa ez da festaburu baten edota antzeko jai baten osakai, usariozko ihardunaldietan aipatu dugun bezala. Ez da ere beste kirol, dantza eta kultur erakustekin batera ematen den zerbait, lore-jokoetan egin zenez. Txapelketekin bertsolaritza bera da jaialdiaren izateko-arrazoi bakarra eta betea.
Horrelako saio-moldeak entzulego berezia du: erabat bertso-zalea. Beraz, entzulea kantaldian parte-hartzera doa, ez bakarrik bere baitako bertsogintza ahopekoan (bertso-zale jatorrek egiten duten eran), baizik-eta epaiketan parte hartzera doa. Bera bertsotan aritzera, bera epaile izatera. Eta alderdi honek su handia sortzen du txapelketa giroan”.
(Lekuona 1980: 109)

Ariketa kolektiboari azpimarra egin eta txapelketan entzulea “epailego” dela³⁶ aipatu ondoren, honela jarraitzen du Lekuonak:

³⁶Joko-arau zehatzak dituen eszenatoki oso mugatua da txapelketa eta publikoaren eta bertsolariaren arteko harremana aldatzen da marko zehatz horretan. Harreman hau, noski, genero-sistemak gurutzatzen du.

“Kantaldiaren ardatza nor-gehiagokan datza. Denek baldintza beretan kantatu behar dute. Gaiak aukeratuak izaten dira. Denek lan berdina egiten dute. Laburra eta aldezaurretik mugatua. Bakarkako saioei leku gehiago ematen zaie, behar bada, eztabaidako saioei baino. Hala ere, inoiz ez bezalako trantzean aurki daiteke bertsolaria, bertso onak kantatzera, eta bestela inoiz aterako ez zituen bertsoak ateratzera behartua aurkitzen delarik”. (ibid: 110)

Aurrez aipatutako sailkapen horretan jaialdiekin erkatzen ditu Lekuonak txapelketak. Jaialdiek, bere arabera, gehiago dute ikuskizunetik norgehiagokatik baino. Gainera, herriz herriko jaialdietan gaiak bertsolari bakoitzari egokituak izan ohi dira³⁷. Lekuonaren iritziz txapelketak eta jaialdiak elkarren osagarri gertatu ohi dira. Izan ere, “txapelketa hutsez jendea ez litzateke aseko; eta jaialdi hutsez gauzak ez dira berritzen eta azkartzen”. (ibid: 110).

Larrañagak ere saio motak bereizterakoan tarte bat eskeintzen die txapelketei. Bere datuen arabera, eskolartekoak, sustapenekoak eta herrialdetako txapelketak daude. Guztien erpinean Euskal Herriko Txapelketa Nagusia legoke, lau urtetik behin antolatzen dena eta sailkapen sistema eta egitura landuak dituena³⁸.

Interesgarria da “txapelketa sistema bizigarri moduan” (ibid: 394) aurkezten duela bertsolaritzak aktore-sare baten funtzionamendua duela aditzera emanez:

“Txapelketak osatzen duen sistemaren eragiletza, partaidetza harremana elikatzen duen neurrian, osagaien etengabeko auto-gogoetatik elikatzen duen sistema kulturala berresten ari da. Barruti horren autoretza, eragileen arteko elkarlanaren azpitalde nagusietan aurkitu dugu, antolaketa taldea, komunikazio taldea, epaile taldea, gai jartzaile taldea eta bertsolarien taldea, antolaketaren sistema ezaugarria erakusten duten talde eragileak dira”. (ibid: 395)

Larrañagak, gainera, jarraian landuko ditugun beste zenbait ideia interesgarri ere badakartza bere tesian.

Clifford Geertz-ek (1973 in Larrañaga 2013: 14) zioenaren arabera, “adierazpide kultural batek duen dimentsio sinbolikoan, giza taldeek bere mundu ikuskera eta

³⁷Bada harrigarri egin zaidan datu bat hemen. Lekuonak dioenez, bakarka kantatzeko gaiak aldezaurretik jakinarazten zitzaizkien bertsolariei.

³⁸2009ko datuak ematen ditu berak: “44 bertsolarik hartu dute parte: 2 Arabatik, 12 Bizkaitik, 21 Gipuzkoatik, 4 Nafarroatik eta bost Lapurdi Behe-Nafarroa eta Zuberoatik (Larrañaga 2013: 38). Azken txapelketan aldaketa bat izan zen kopuruetan, Nafarroatik bertsolari bat gehiago eta Gipuzkoatik bat gutxiago sailkatzea adostu baitzen.

balioak adierazi ahal izango lituzkete". Honekin lotuta, "txapelketaren gizarte eszena ziklikoki azaleratzen den *ikur bizigarria* da". (ibid: 15)

Ikerlanaren hasieran bost aurre-baieztapen egiten ditu Larrañagak eta egoki deritzot horietako bi orriotara ekartzeari. Lehenak dienez, "egungo txapelketak lortu duen distiragarritasun eta ikusgarritasunak duen ikur izaera nabarmentzen dute":

"Txapelketa nekazal-landa giroko herri-kulturaren adierazpide izatetik, batez ere azken hamarkadetan bizi izandako goraldia bide, egungo gizarte kulturalean agerpen handiagoa izatera igaro da, komunikazio prozesu baten erpin iragarlea bihurtzen zaigu" (ibid: 22)

Bigarren aurre-baieztapenaren arabera, txapelketa egungo kulturgintzaren eraberrikuntzaren paradigman koka liteke:

"Bertsolaritza orobat, eta txapelketak ordezkatzeko duen lurralde eremua, egungo gizarte-kulturalaren berrikuntza paradigman kokatzen dute, balio baten jabegoa garraiatu egiten baitu euskal kulturgintzaren esparruan, giza kolektibo baten ahozko ondare adierazgarri eta emankorra eszenaratuz."(ibid23).

Kondentsatzen duen sozializazio esparru horren balioa, belaunaldien arteko komunikazio zubia irudikatzen funtzio erritualari atxikia dagoela uste dugu, memoria eta sorkuntzaren arteko bitartekaritza espazio azalagarria bihurtzen dute. Ildo horretan, memoria sortzailea duela esango dugu". (ibid: 24)

Larrañagak komunitatearen ideia garatzen du txapelketak erritotik asko duela baieztatuz. Aurreko atalean, txapelketaren historiari buruz ari ginela, ikusi ahal izan dugu nola joaten den errito moduan finkatzen. 1935eko txapelketatik aurrera bertsoa –hitz- erritualizatzen da, testuinguru jakin batean eta protagonista jakin batzuekin; gizonezkoekin, hain justu.

Arestian ikusi dugunez, Txapelketaren historian³⁹ egoera politiko, soziala eta kulturala aldiro aldatzen doanez, txapelketa bakoitza garaian garaiko giro eta egoera soziokulturalaren agerkeria izan da.

Giro sozialaren baldintzak aldatzearekin batera, batez ere 1980tik aurrera apurka-apurka, bertsolarien ikasketa maila jantziagoak, eragin-gune zabalagoak, hedabideen eraginak eta txapelketen oihartzunak, entzuleria zabaltzea ekarri zuen. Larrañagak gogorarazten duenez, "aldaketa guztien ondorioz, inguru-testu ezpalduko

³⁹Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia gaingiroki hiru arotan banatu liteke lehen hurbilketan: Gerra aurreko txapelketak (1935-36), Euskaltzaindiak antolatutakoak (1960-1982) eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarrekin antolatutakoak (1986tik aurrera).

bertsogintzaren aroan sartzen da txapelketa, Gartziak berak erabiltzen duen izendapenari jarraiki, entzuleria zatikatuagoa agertzen baita hortik aurrera” (ibid: 66). Azken bi hamarkadetan bertsolaritzaren jardunak bizi izandako goraldia bide, nekazal-landa giroko herri-kulturaren adierazpide izatetik egungo gizarte-kulturalaren erdigunerantz jauzi egiten du. Bertsolaritzaren ibilbidean, Txapelketa Nagusiak gizarte presentziaren eferbeszentzia unerik gorena adierazten duen ekimen kulturalaren gailurra mugarrizten duen gertaera azaltzen du, prozesu oso baten ageriko erpina.

Horrela, Larrañagaren moduan, ekoizpen kultural batek, berau ekoitzi duen komunitatearen begien aurrean, funtzio sinboliko nabarmena betetzen duela ulertzen ari gara.

Joseba Zulaikak (1985) jokoaren eta jolasaren ereduak euskal kulturaren barruan aztertzen ditu. Jokoaren ereduaren arabera batek galdu egiten duen bitartean, besteak irabazi egiten du; ez du zalantzarako tokirik uzten. Jolasean, aldiz, ez dago irabazle ez galtzailerik; anbigua eta metaforikoa da jolasa.

Zulaikak (1985) azaltzen duenez, paradoxa honetan dago bertsoaren indarra, hain zuzen, fikzioaren bidez, egiak esateko duen ahaltasunean. Fikzioa eta “izan liteke”-enaren mugetan, jolasaren eremua eta sorkuntzaren alorra dago, eta eremu sortzaile horretan, pentsabide egiazkoenari eman lekiok bide. (Larrañaga 2013: 67)

Zulaikak (1985) azaltzen duenez, hitzaren unibertso metaforikoa ekoitzi duen sistema kulturalaren baitan ulertu eta kokatu behar dugu:

“Txapelketa Nagusiak plazaratzen duen borroka konpetitibo hori, “joko”-aren ereduak elikatzen du, baina aldi berean borroka hori, benetako borroka baino fikziozko borroka den neurrian jolasaren eremu kulturean kokatu liteke. Jolas kulturearen eremu sinbolikoa interpretatzeko jolas sakonaren kontzeptu ahaltsua erabiliko dugu gure tesia berresteko: jolasaren erresuma metaforikoan bete-betean sarturik gaude honezkero. Izan ere, fikziozko borroka hori marko sozialaren eszenategian irudikatua izaten denean, “agora” biziberritzeko funtzioa betetzen dihardu, harreman bat indartuz, taldeetasun sentimendua biziberrituz, proiektu komunitarioaren afektuzko ehundura trinkotzen laguntzen duen eszena tolestaturik, elkarrekin partekatze sentiera bat pitzarazteko eraginak birsortzen ditu”. (ibid: 71)

Txapelketaren gertaera paradoxikoa da zentzu honetan: lehiaketa arauen arabera eratzen den testuinguru zurrunean sortzen da (jokoaren araubidetara makurtua denez gero) baina jolasaren eremu kulturala biziberritzen esanguratzen da bene-benetan, jolasaren eremu sinbolikoan.

Larrañagarentzat (ibid) txapelketaren eszenaratzea liturgia jakinaren arabera eratzen den prozesu erritualaren baitan gertatzen da. Identifikazioa sortu eta elkarreragina sustatu lezakeen espazio erritualak *performance*ak duen indar komunikatiboa areagotu besterik ez du egingo. Erritual komunitarioak txapelketaren eszenak biziberritzen duen gertaera ezaugarriak betetzen ditu, izan ere taldearekiko identifikazio maila bat sortzen du, liturgia baten baitan gauzatzen den zeremonia-errituala antolatzen, memoria kolektiboak ainguratuko duen gertaera ixteko. (ibid: 115)

Larrañagaren ikerlanaren ondorio gisa⁴⁰, beraz, honakoak aipa ditzakegu:

“1. Txapelketaren gertaera, jendaurreko kultur adierazpena da eta ezaugarri berezkoenean kultur gertaera beregaina dela erakusten du. Performantza aldetik, sortu eta erakutsi aldi berean egiten ditu eta sorkuntza unea errepika-ezina gertatuko da unean-uneko testuinguruaren erreferentzian. 2. Belaunaldien arteko transmisioan kontuan izateko hainbat giza balore azaltzen dira, iraungarriak direnez, transmisio bidearen gidaritzaz egiteko duten garrantzian. Belaunaldi artekotasunaren harremanek, egindako bidearen kontzientzia balioa erakusten dute. 3. Tradizioa, izaera erlazionalaren erakusgarri azaltzen da, alajaina gizarteratze eta partaidetza harreman elikatzailea, komunitate zentzua, eraketa prozesuarean etengabe birsortzen baitu. 4. Tradizioak iragana, oraina eta etorkizuna loturan jartzen ditu. Norbere tradizioaren errotik, etengabe eraberritzen eta moldatzen ari da jabego bat eguneratzeko zereginari loturik. 5. Ahozko tradizioaren eremua hitzaren kultura alorra izan da. Hitz hori ez da hitz betegarri hutsa, hitzari eskatzen zaiona zentzuduna izatea da. Gizabanakoak eta pertsona taldeak bat egiten duten harreman sare komunitarioan enborraturik dago. Txapelketa, garaian garaiko gizartearen islapena da, orobat gizarte prozesuaren arabera da. Gizarteak elikatzen duena gaiek jaten dutena da eta horrek gaurkotasuna eta aberastasuna ematen dio sorkuntza prozesuari. 6. Tradizioaren eraikuntza komunitatean sustraiturik azaltzen da eta txapelketa garaikidea horren ispilua da”. (ibid: 170)

Ondorio hauetatik gain beste zenbait ere azpimarratu nahi genituzke jarraian. Hasteko, “bertsolaritza ezaugarritu duen tradiziozko identitate hegemoniko maskulinoa lausotzen da identitate berri horren eraikuntzan emakumeak irabazitako plazaren esparruari esker”. Gainera, txapelketa gertaera, bidegurutze baten elkarreraginezko espazio soziokultural historiko eta identitarioan azaleratzen da, hots, espazio sinbolikoa da eta alde hortatik “jendarte baten kondentsatzailea da” eta “diskurtso berria birsortzen egiten du lan”. Espazio-denbora dimentsio kulturalaren bilakabidean, txapelketa, egindako aldaketa kulturalaren agertoki azaltzen da, aldaketa kulturala txapelketan ispiatzen da eta txapelketa gizartearekin batera aldatuz doa; aurreko mundukeraren jakintza galdu gabe mundukera berrirantz begira dago, memoria

⁴⁰Doktorego tesiaren amaieran gehiago aipatzen dituen arren lan honekin bat zetozenak hautatu ditugu hemen.

sortzailea du. Txapelketa, berrikuntzaren paradigmaren kokatzen dugu, kulturgintzan bide eraikitzailea eginez eta gaurkotasan ondo atxikia. Txapelketa gertaerak, etengabe berrasmutzen ari den ekosistema oso bat islatzen du egun. Berritasun honen adierazleak agerikoak dira: bertsolari gazteen protagonismoa, emakumeen presentzia, profilararen aldaketa, kultur maila jaso, jatorri anitza, giro hiritarra... aipa litezke, esaterako.

Maialen Akizuk (2018), bere aldetik, bertsolaritza diskurtso komunitate bezala aztertu du, 2001 eta 2017ko finalerako gaitatik abiatuta Txapelketa Nagusien diskurtso analisi kritiko konparatua eginez. Bere hitzetan, bertsolaritzaren komunitatea, praktikan bilakatzen da komunitate, eta praktika horietan esanguratsuenetako bat da Txapelketarena. Praktikan egiten da diskurtsoa, eta diskurtsoaren bidez egikaritzen dira komunitatearen iruditegi, balio, bateragune eta abarrak. Diskurtso praktika komunen bidez sortzen da aldi berean, komunitatea (harreman-sarea) eta diskurtsoa. Beraz, "final nagusiak bertsolaritzaren nolabaiteko ispilu dira" (Akizu 2018: 53):

"Taldeen konpartitzen duguna ez da ikuskizun hutsa, ez arratsalde pasa bat edo hizkuntzaren aldeko aldarria (bakarrik). [...] Elkarrekintza da. Sentimenduak, pentsamenduak eta jarrerak taldearen eraginpean daude". (ibid: 4)

Hizkuntza errealitatearen deskribatzaile soila ez dela azpimarratzen du Akizuk, aitzitik, errealitatea sortzen eta eragiten duen elementua dela. Hizkuntzaren kontzeptzio aktiboa garatzen da beraz, *gauzak egiteko gaitasuna du* (Austin, 1982 in Akizu 2018). Lan honetan bertsolaritza diskurtso komunitate bezala aztertzea da helburu. Hau da, diskurtso eta praktika multzo batzuen ondorioz komunitatea sortzen du bertsolaritzak eta komunitateak eratzen ditu diskurtso eta praktika hauek era berean. Horretarako komunitatea, diskurtsoa eta praktika definitzen ditu eta ondoren bertsolaritzarekin lotu. (ibid: 8)

Komunitateari⁴¹ dagokionez, diskurtsoaren eginkizun nagusietakoa, komunitatearen zentzua sortzea da. Ikuspegi honetatik, bertso-komunitatea ere irudikatze lan baten produktu da. Irudikatze hau bi modutan egiten da: batetik zuzenki, komunitatea zer den zehazten duten diskurtsoen bidez; bestetik zeharka, diskurtso unibertsoa osatuko duten praktika, erritual, sinbolo eta abarren bitartez. Txapelketa, izan ere, "bertsoaren gauzapena izateaz gain, bertsolaritza biltzen duen komunitatearen argazkia ateratzeko lagina da, bertsoaren bilakaeraren errebisio momentua". (ibid: 10)

⁴¹"Bertsolaritzaren baitan biltzen den komunitateak ez du bere burua "multzo" edo "talde soiltzat" hartzen, "herria" dela adierazten du. Herri kontzeptua bi finalerako ageri da". (Akizu 2018: 56)

Diskurtsoa⁴² ulertzeko, aldiz, Diskurtso Analisi Kritikoaren (DAK) ikuspuntua hartzen du kontuan Akizuk. Honek esan nahi du diskurtsoa praktika sozial gisara (Fairclough, 2003, van Dijk 2000) eta mundua irudikatzeko eta baloratzeko modura (Fairclough, 2003: 124) ulertzen duela. Zentzu honetan, bertsoa publiko bati botatzen zaio eta bien arteko elkarrekintzan bihurtzen da diskurtsoa arrakastatsu. Interakzio soziala ezinbestekoa da.

Michael Foucaultentzat diskurtsoak "hizkuntzaz baliatzen diren eta arauak dituzten praktika materialak dira", ez dira zeinu eta sinboloen konbinaketa hutsak, eta esanguraren produkzioaz gain, boterearen eta jakituriaren praktika bezala aztertu behar dira. (ibid: 12)

Joxerra Garziarentzat (2008) "xede-taldea" hartu behar da kontuan eta bere arabera, "zure audientzian eragin nahi baduzu, audientzia hori nolakoa den jakitea komeni da aurrez, eta hortik abiatu" (2008: 63). Txapelketaren testuinguruan, bi aldeak nabarmentzen dira: batetik diskurtsoa egikaritzarako bertsolariaren aurretiko lanketa pertsonala dago, eta bestetik, publikoarekiko egiten duen irakurketa, hauengan eragiteko jakintza. (ibid: 14)

Txapelketa espazio eta denbora konkretu batean gertatzen bada ere, espazio-denborako garapena dauka, komunitatea sortzeko beste ezinbesteko baldintzetako bat. Orain arteko kontzeptuak batuta: komunitatea gehi diskurtsoa, berdin diskurtso-komunitatea⁴³. Gure kasuan generoa Txapelketa bera litzateke, bertsolaritza eta praktika diskurtsiboa garatzeko modalitatea baita. (ibid:15)

Praktika komunitateari eta imaginarioei dagokienez, diskurtsoa praktika bat da, eta diskurtsoak komunitatea egiten badu, praktikak ere bai. Diskurtso komunitatea eta praktika komunitatea eskutik helduta doaz. Lengoiak beti du aurretiaz sortutakoaren eta sor dezakeenaren arteko tentsioa (ibid: 16)

John Austinek ere, erabiltzen ditugun hitzek funtzio deskriptiboa gainditzen dutela azpimarratzen zuen bere *Como hacer cosas con palabras* bere idatzian (Austin, 1998 in Akizu 2018). Bi multzotan bereizten zituen: esamolde baieztatzaileak (errealitatea berresten zutenak) eta performatiboak. Bigarren hauek, errealitatea baieztatzeaz

⁴²"Komunikazio egoera arautu samar baten aurrean xede jakin bat lortzeko propio prestatzen dugun estrategiari eta estrategia horren gauzatzeari esaten diogu diskurtsoa (Garzia, 2008 in Akizu 2018: 11).

⁴³Swales-ek honela definitzen ditu diskurtso komunitateak: "Sare sozioerretorikoak dira, helburu komunak lortzeko batera lan egiten dutenak. Komunitate diskurtsiboko kideen ezaugarrietako bat, helburu horiek xendan, komunitateak dituen generoekiko duten familiartasuna da (...). Generoak, ekitaldi komunikatibo desberdinak dira, egonkortasunaren berme direnak, izendapen onartua dutenak eta abar". (Swales, 1990: 9 in Suarez, 2005 in Akizu 2018)

harago beratu eraldatu edo produzitu egingo lukete.

Gure kasuan, gaien bitartez ezartzen da imaginarioaren (erreferentzia komunetako multzo dinamikoaren) markoa, diskurtso komunitateak partekatzen duen mundu edo unibertso alegiazko hori izatea ahalbidetzen du eta bertsolariak, komunikatzaileak, horren jakitun ekingo dio praktikari. (ibid: 17)

Bistakoa da, beraz, bertsolaritzak praktika-diskurtsiboen bidez zedarritu duela bere komunitatea eta "komunitateak denboraren eta espazioaren dimentsioak ezinbestean barnebiltzen dituenek, denboran zehar aldatu egin dela". (ibid: 18):

"Kontua da bertsolaritza goitik behera eta behetik goratu zela XX. mendean zehar. Izen bera erabiltzen den arren, XX. mende hasierako bertsolaritza eta mende amaierakoa guztiz bestelakoak dira. Ez da azaleko aldaketa soilik, barrebarreneraino iristen dena baizik" (Egaña et al. 2001: 21).

"Txapelketa sortzeko tresna da, baina baita ispilua ere. Mahai borobil bat da, bazkalosteko mahai bat, eta hor agertzen diren gaiak gizartearen dauden gaiak dira nagusiki. Iritzi ezberdinak agertzen dira, eraldatzaileak izan daitezkeenak. Bertsolariengan jartzen dugu fokua, baina gu denok gaude oholtza hortan komunitate gisa" (Hernández, 2017).

Txapelketak, beraz, lagin tenporal-espaziala zedarritzeko aukera emateaz gain, komunitatearen egoeraren berri jakiteko ere balio du. (Akizu 2018, 22)

Diskurtsoek *statu quo* soziala elikatzen eta erreproduzitzen dute, baita beratu eraldatzea eragiten ere. Diskurtsoaren eta gizartearen arteko harreman estuaren ondorioz, gizartean gertatutako aldaketak diskurtsoan agertuko direla suposatzen da. Eta alderantziz. Arestian esan bezala, harremana bi norabidetakoa baita. Bertsolaritzaren kasuan, praktika sozial diskurtsiboa den heinean, harreman sozialak, mundu-irudikapenak zein ahozko hartu-eman berbalak bertsoan adieraztea aurreikusten da. (ibid: 27)

Bertsolariaren zailtasuna, publikoak entzun "nahi" duena kantatzea eta era berean publikoak "heztearen" ariketa egitea da. Eta hezkuntza horretarako erabakigarria da lau urtetik behin egiten den Txapelketa Nagusia. Txapelketa ez baita lehia hutsa. Txapelketan praktika komunitate horren praktika zein den erabakitzen da, zein balioren alde egin, zeintzuk "ez diren" komunitate horren parte⁴⁴ (ibid: 57)

⁴⁴2000. urtean lehenengoz, *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak* liburuxka argitaratu zuen Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak gerora, Txapelketaz Txapelketa berrituko dena. Epaitzeko irizpideek diskurtso komunitatearen kontsentsua bermatzea dute helburu. 2001eko Txapelketarako, besteak beste, "gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztien onarpena" zein "topikoen gehiegizko erabilera ontzat ez jotzea" erabaki zen. (Akizu 2018: 25)

Akizuk esandakoekin estuki lotuta, Idurre Eskisabelek ere bat egiten du aurrekoarekin:

“BECen, eta, oro har, txapelketan, erabaki dena ez da soilik nork egiten duen bertsotan ondoen. Aitzitik, hori baino askoz gehiago da: kontsentsu kultural bat ebatzi da, hizkuntz estandarrak ezartzetik balio soziokulturalak finkatzerainokoa. Laburbilduz, komunitate baten autoidentifikazio eta autoerrekonozimendurako zumeak zeintzuk diren erabaki da”. (Eskisabel 2017)

Eskisabelen aburuz, ordea, adostu denak adina esaten du lortu den kontsentsuari buruz adostu ez denak. Edo gutxienez, adostasunera iritsi aurretik izan den tentsioak:

“Alde batean, *twitter*ren hainbesteko arrakasta izan duen Patxi Bakallo trollaren⁴⁵ eta, askoz esparru zabalagoan, haren ildoan dabiltzan asko eta askotarikoen inkorrektzio errebolta kokatuko nuke. Bestean, emakumezkoen kristalezko sabaiaren auzia. Eta zer diren gauzak, ezin ditut biak bereizita ikusi: hari fin eta lurpekoz bada ere, bata besteari tinko lotuta sumatzen ditut, soka beraren bi mutur. Patxibakallotarren errebolta inkorrektzioarena bainoago autentizitatearen eta esentziaren lurrinak baitakarzkit, horrek esan nahi duen guztiarekin. Autentizitateak, bertsolaritzan bezala jardun publiko guztietan, gizona, maskulinoa baitu eredu bakar, ezinbestean. Non bilatuko du emakumezkoak benetakoa, naturala? Edo gure inurritegiaren ezaugarriei erreparatuta, non euskaldun berriak, edo ez eremu euskaldunekoak, edo hiri eremukoak? (Eskisabel 2017)

Sustrai Colina bertsolariak (2018) ez du hain argi ikusten adostasunarena, finala igaro berritan egindako elkarrizketa batean agertu moduan:

“Gauzak ongi ateratzen direnean, bai badago intentzio bat horretarako, badago bestelako gai batzuk ateratzeko grina bat, badago bertsoetan fokua toki jakin batzuetan jartzeko gogo bat, baina gero hortik esatera adostasun kultural berri bat sortzen dugula... Badago ahalegin bat, baina ez da erabat erreala. Han 15.000 lagun daude, beroaldian esandako gauza asko ere bai, eta ez dakit zenbateraino den ispilu orokor bat ispilu hori. [...]

15.000 lagun dituzunean parean, eta beste ez dakit zenbat milaka telebistan, jada gizartearen soziologia osoago bat aplikatzen da, eta hor bada eskuineko jendea, ezkerrekoa, botorik ematen ez duena... Ez gara hain komunitate txikia eta hain trinkoa. Uste dut denetik dagoela eta hori dela sana. [...]

⁴⁵Patxi Bakallo trollak sareak astindu ditu bere iruzkinen bidez. *Zirtolari vs. puntulari* paradigma sortu du, genero-ikuspegitik behatuz larri samarra dena eta bertsolaritzaren tradizioaren eta berezkitasunaren alde egin du etengabe. Bere izena han-hemenka ibili da txapelketan zehar, Unai Agirrek behin bukaerako agur batean aipatzeraino.

Aipatzen den korriente hori badago, baina era berean badago oso korriente kontserbadorea, bai gizartean, eta baita bertso munduan ere. Nik txapelketa honetan sumatu dut. Behar bada ez bertsolarien artean, baina bai sare sozialetan”.

Atal hau bukatutzat eman aurretik, eta Eskisabelen eta Colinaren esanek bide eman digutenez, “metatxapelketaz” hitz egin nahi nuke laburki, azkenekoan bereziki sare sozialek izan duten pisuari azpimarra eginez.

Esan gabe doa lau urtean behingo bertsolaritzaren gailurrak inpaktu handia izan ohi duela eta honekin lotuta oihartzun mediatiko handia. Kasu honetan, prentsan leku handia izateaz gain⁴⁶, sare sozialek ere berebiziko garrantzia izan dutela azpimarratzera nator.

“Metatxapelketa” izendatu dut lehenago presentziala denaz gain sortu den geruza berria. Izan ere, momentuko *feedback*az gain, beste espazio berri bat ireki da bertsolari eta entzulearen arteko interakzioan eta, bide batez, epaitzeko leku berri bat ere bai. Ariketa kolektiboan beste leiho bat irekiz, entzuleak bi dimentsio izateko aukera izan du oraingoan; presentziala eta sarearen bidezkoa.

Aurrerago ikusiko duzueenez, berritasun hau azken txapelketaren bereizgarritzat hartu eta ez dut elkarrizketatuei ere honen inguruan galdetzeko aukera galdu nahi izan.

Bukatzeaz dagoen atal honetan txapelketaren gainerako irakurketa kulturala egiten ahalegindu naiz eta amaitzeko, nire analisirako baliagarri zaizkidan ideia nagusiak laburbildu nahiko nituzke jarraian. Argi utzi nahi nuke ikerlari moduan txapelketa lau urtean behingo erritotzat dudala, arestian aipatu bezala ariketa kolektibo honen baitan entzulegoaren eta bertsolariaren arteko harremana aldatzen dela ulertzen dudala eta nire aburuz ere, bertsoan diskurtsoen bidez komunitatea (bir)sortzen dela.

Txapelketa, horrela, giza talde baten mundu ikuskeraren nahiz balioen adierazgarritzat ulertzen dut eta aurreko atalean txapelketaren historiako nondik norakoei erreparatzean azaldu bezala, garai batean landa eremutik hiriranzko aldaketaren erakusgarri izan zen moduan egun ere gainerako aldaketen erakusgarri izan daitekeela uste dut. Izan ere, Txapelketa den erritoak gizarteko *statu quoa* elikatzen eta mantentzen lagundu dezake edo, kontrara, eraberritzei eta aldaketei bide eman.

3.3. Umorearen mugak txapelketan

⁴⁶*Argia* astekarian Kepa Matxain eta Kattalin Minerrek burutu dituzte saioetako iruzkinak eta horretaz gain, Bertsozale Elkarteko weborrian bi astetik behin plazaratu da adituren batek egindako iritziren bat.

3.3.1. Azalari dagozkion mugak

“Txapelketaz kanpoko ohiko plazetan duen nagusitasunarekin alderatuta, zer hausnartua eman dit txapelketako markoan umoreak izandako presentzia urriak.

Esango nuke eskema zurrunezi bat eraiki dela gai-jartzaile taldeak eskatutakoaren, entzuleak espero duenaren, eta ondorioz, bertsolariak egin dezakeela sentitzen duenaren artean. Kaiola txikiegi eta kortse estuegi bat. Eta hor ez da umorea kabitzen”.

Labaka, 2017b

Formarekin lotura duten mugei behatuz, ariketei dagokienez eta salbuespenak salbuespen, zortziko txikiko ariketara⁴⁷ mugatu da umorea egiteko aukera edo zuzenago esanda, ariketa horretan nahitaezko bilakatu da umoreari leku egitea.

Nire ustez, gainera, ariketa bakoitzaren aurrean eskatzen zaion kokapenak bertsolariaren gorputzaldia aurrez modu homogeen samarrean zehaztea dakar berarekin, doinuen aukeraketatik bertatik hasita. Segurako saioan zortziko txikirako baliatutako gai bat aipatuko dut honen erakusgarritzat. Gai-jartzaileak nagusiaren eta menpeko langilearen paperean jarri zituen bi bertsolari, ostiral arratsaldea zen eta nagusiak etxera joan aurretik lan gehiago agindu zion langileari. Lan baldintzei buruzko gai bera hitzez hitz hartu eta hurrengo ariketan proposatu izan balitzaie (hamarreko txikikoan) umoreari leku egiteko beharra sentituko al lukete bertsolariak?

Ezezkoan nago ni, eta, hain zuzen ere, ezezkoan nagoelako, iruditzen zait ohiko plazetan askoz mementokoagoa dela gaiak iradoki dienaren arabera bertsolariak hartu nahi duten enfokearen, sortu nahi duten emozioaren edo bertso moduaren aukeraketa, askoz askatasun gehiago sentitzen duela bertsolariak eta askatasun horrek umorearen alde egiten duela sarritan.

Funtsean, zortziko txikiko esparrua da txapelketan umoreari esleitzen zaiona –bai ofiziotako ariketetan bai puntuka osatutakoan-. Horretaz gain, izatekotan, kopletoak ariketa ere lotu daiteke zortziko txikiaren bizitasun, zirto eta graziarekin. Gainerako ariketak, aldiz, berbaldi dramatiko eta epikoagoei leku egiteko modukotzat hartu ohi dira.

Gaiei dagokienez, badirudi, 1935ean jokatutako "bertso gudueta" ezarri zela gai eta gai-jartzailearen presentzia, hau da, gai-jartzea Txapelketarako asmatu zen (Bertsozale Elkarte, 2002: 6).

⁴⁷Zortziko txikia: Lau puntu eta zortzi lerroko ahapaldia da. Lerro bakoitian zazpi silaba ditu eta sei bikoitian. Silaba kopurua urriagoa izatean berbaldia laburragoa eskatzen du eta maizen temako egoera bizi eta umoretsuetan erabili ahal izango da. Puntua erantzuteko ere erabiltzen da. Bere egitura metrikoa honakoa da: 7/6A 7/6A 7/6A 7/6A. (Larrañaga 2013: 109)

Gaiak, noski, aldatzen joan dira garaiko testuinguruaren arabera, eta, beraz, gaiak dira egoeraren markoa ezartzen dutenak, "bertsolariaren eta entzulearen arteko komunikazioaren txinparta sortzeko gakoak" (Garzia, 1995).

"Gai-jartzailearen eskuliburua" 2002 urtekoa da eta bertan azaltzen denez, gaiak oholtza gainekoen zein azpikoen mundu erreferentzialarekin bat etorri behar du (Bertsozale Elkartea 2002: 12). Hargatik zioen Akizuk (2018) bere lanean gaiak aztertuta, bertsolariaren, eta bertsolariak sortzen duen mundu erreferentzialaren erradiografia bat egitea posible zela.

Azken ideia honi jarraiki adierazten du ikerlariak, esaterako, sexualitatea umorerako gaia dela egun:

"Ezkutukoa azaleratzeak sortzen du. Sexualitatea eraikia izan bada ere, tabuzat hartu izan da eta beraz, hortaz hitz egitea boterearen aurkako ekintza zen. Umoreak aukera ematen du tonu informal eta ez konprometitu batean hitz egiteko, diskurtso hegemonikotik ihes egiteko, arma kritiko gisa, dominazio mekanismoei erantzuna ematekoa.

2001eko zazpi gaietatik hiru izan ziren 8ko txikian ezarriak, hirurak ere sexualitatea ardatz zutenak. 8ko txikiko neurriak umorerako bide ematen du eta bertsolariak amodioa sexuarekin, erotismoarekin eta plazerarekin lotzen dute. [...]

Hamasei urte beranduago, sexuaren eremua zabaldu bada ere, grazia egiten jarraitzen du sexuak⁴⁸. Publikoak "sexu-jolasen" aipamena entzuterako egin zuen barre, eta saioko bertso-aldi txalotuenetako bat izan zen. Sexualitatearen gaiak grazia eragiten du". (Akizu 2018: 48)

Sexu jolasak konnotazio positiboa du, beraz, eta umorea eragiten du komunitatean.

Sexuarena adibide bat baino ez den arren, nabarmena da txapelketaren testuinguruan, Larrañagak (2013) dioen moduan, gaia dela komunikazio egoeraren abiapuntua baina jarritako gai hori testuinguru zabalagoaren egoeran txertatua dagoela, gizarte prozesuaren erreferentzialtasunean. Testuinguru sozial hori aldatzen joan den neurrian, halaxe joan da aldatzen jarritako gaien izaera eta nolakoa, gaiaren edukia bera. Eduki hori gizarte gaiaren eskutik aldatu da nabarmenki azken garaiotan eta gizarteak egindako bilakaera azkarraren eskarrietara moldatzeko aldaketa erakusten du. Ikerlariaren hitzetan, "gaiak prozesu sozialaren norantza islatzen duten neurrian, garai bakoitzak dagokion gaiaren edukia eta formulazio estiloa⁴⁹ izango du". (Larrañaga

⁴⁸Bertsoaldi hautatuen gure lagineko 7. gaia kasu.

⁴⁹"Gaitegian bi urteen artean aurkitu dugun desberdintasun handiena terminologian egon da, bai

2013: 111)

Badirudi, beraz, gaiak muga eta abiapuntu izango direla aldi berean. Inon datzi gabeko arau hedatuaren ondorioz, zortziko txikia, neurririk laburrena, eta beraz, azkarrena izaki, doinu biziakin erabiltzen da eta umoreko gaiekin, hots, arinekin⁵⁰, lotzen da.

3.3.2. Mamiari dagozkion mugak

“Desberdintasun garbi bat dago satiraren eta umore zapaltzailearen artean. Satirak, izatekotan, gorantz eta barrurantz apuntatu behar du; beherantz apuntatzen duena, bortxatutako emakumeari buruzko txiste tipikoa, beltzari buruzkoa... hori umore zapaltzailea da, pribilegiadunari grazia egiten diona eta gainerakooi graziaz egiten ez diguna”
Brigitte Vasallo⁵¹.

El salto atarian irakurritako artikuluan umorearen mugei buruzko zenbait ideia interesgarri biltzen direla esango nuke. Artikuluan kontatzen denez, zenbait gizon iritzia ematen jardun dira han-hemenka, umoreak mugarik izan beharko ez lukeela esanez. Beraien arabera, dagoeneko ez dago adierazpen askatasunik eta eskubideetan atzerantz goaz.

Aysa Nuevek aipatu artikuluan erantzun moduan, ordea, munduan zehar milioika pertsona historian lehen aldiz ahotsa goratzen ari dira, emakumeen, LGTB pertsonen, aniztasun funtzionala dutenen nahiz arrazializatuen iritzia entzuten ari gara lehen aldiz eta hau eskubideetan atzerantz egitea da benetan? Nola izango da ba galera bat gure pribilegio nahiz zapalkuntzen gero eta kontzienteago izatea?

Bertsolaritzaren markora ekartzeko moduko beste ideia bat ere badakar Nuevek jarraian:

“Norbaitek publikoki beste norbait iraintzen duenean, parte hartzeko beharra sentitzen dugun botere dinamika bat garatzen da. Irain horrek apelatu egiten gaitu. Edo jaso duenaren bandoan gaude edo esan duenarenean. Seguru sentitzeko iraina burutu duenaren alde jartzea beharrezko zaigu, bestela, gu bihurtu gaitezkeelako bere hurrengo helburu. Eta akosatzailearekin alineatzeko modurik azkar eta zuzenena bere graziei barre egitea da” (Nueve 2018⁵²)

Hau are agerikoagoa bihurtzen da bertsolaritzaz ari garenean. Izan ere, bertso bakoitzaren amaieran txalo jotzeko ohitura daukagu. Bat-batean ari garenean

egoerei erreferentzia egiterako garaian, bai bertsolariek garatutako diskurtsoetan”. (Akizu 2018: 56)

⁵⁰Azken txapelketan behin baina gehiagotan izan da kritikarako gai zortziko txikiko gai gehigizko arinkeria.

⁵¹ Itzulpena nirea da. (in Nueve, A., (2018), “Otra vez los límites del humor”, *El Salto*, Tribuna)

⁵² Itzulpena nirea da.

(entzuleak ere bat-batean txalotzen du entzundakoa) inertziek leku gehiago dute, gainera, eta umoreak berarekin dakarren dibertsioaren baitan ez dago filtroa pasatzeko tarterik.

Kasu honetan edukiarekin lotutako umorearen mugei buruz ari garenez gero, iaz burututako lanetik (Labaka 2017) zenbait ideia berreskuratu ditut, galbahetik pasa ostean orriotara ekartzeko. Lan horretako atal batek, hain zuzen ere, umorearen mugei buruz dihardu; “zuzentasun politikoaz” eta zentsuraz.

Umorea ez baita inondik inora neutroa, aitzitik politikoa da eta estuki erlazionatuta dago boterearekin. Erlazio estu hori inoiz baino bistakoagoa bihurtu dute, gainera, Euskal Herrian jazotako zenbait gertaerek. Izan ere, Lorea Agirre *Jakin* aldizkariko zuzendariak gogorarazi bezala sortutako zalapartak umorea oso-oso kontu serioa dela pentsatzera garamatza:

“Umorea zer den eta zer ez, eta nork egin lezakeen eta nork ez, zer den barregarri eta zer ez, kasik eguneroko ogia dugu azkenaldian. Hortxe daude *Ocho apellidos vascos* eta haren ahaide galiarra den eta berriki estreinatu den *Mission Pays Basque* film barregarri eta arrakastatsuak; eta hortxe dago ETBk martxoan emititu zuen *Euskalduna naiz eta zu?* Espainiaren gaineko umore programa ‘iraingarri’ eta ‘deitoragarria’. [...] Zertaz egiten dugun barre baino, zertaz barre egiten erakutsi diguten da kontua. Zein umore den zilegi eta zein ez. Eta horretan, adierazpen askatasuna eta (auto)zentsura nola uztartzen diren.” (2017: 7)

Agirrek (2017:8) dioen moduan, bereizi egin behar da nork egiten duen noren gainean umorea, nor den subjektua eta nor objektua, umore egilea eta umoregaia. Nork eta nori, alegia. Ekuazio horrek markatzen baitu umorearen muga, grazia egitea edo grazia zipitzik ez izatea, eta are zilegi izatea edo ez, eta areago, legezko izatea edo ez. Hain zuzen, umoreak adierazten duen ertz interesgarrienetarikoa hortik eratortzen da: umore/ez-umore arteko muga labainkorra; eskubide, zilegitasun, errespetu, demokrazia eta adierazpen askatasunaren auziak harilkatzen dituenekoa.

Anduagak, hain zuzen ere, honako galderak planteatzen dizkigu:

“Zein ‘barne pulsiok’ garamatza eduki batzuekin barrez lehertu eta beste batzuk nardagarritzat ikustera? Nolatan da zilegi kolektibo batzuen aurkako umorea egitea, beste batzuk ukiezintzat hartzen direnean?” (2017: 26)

Umorez esan daitekeenaren eta galarazten denaren arteko mugaz ohartzean, eta Anduagaren (2017) beraren metafora baliatuz, umorea zulo gutxiko gerrikoak inguratuta datorrela ikusten dugu. Baina gerrikoa estutzen duen eskuaren jabea identifikatzea zaila egiten zaigu gehienetan, ohikoagoa baitugu umorea kontu

pertsonal, berezko edo naturala dela pentsatzea.

Anduagaren hitzetan “onartuak, iragarriak, diru publikoz lagunduak edo masiboki kontsumituak diren umore diskurtsoek estatu baten meneko kultura nazionalari koherenteki eusten diote” (2017:28). Bere aburuz, nazioaren eta umorearen arteko harremana ez da inondik inora berria, nazio modernoaren eraketan hasten dira agertzen lotura horren lehen zantzuak. XVIII. eta XIX. mendeetan “berdinen” arteko sistema berriaren biziraupena bermatzeko, ezinbestekoa zen botere egitura berria zilegiztatuko zuen sinesmen berri bat sortzea eta funtzio hori beteko duen sinesmen edo kontzientzia nazioa izango da (2017: 29).

Bada, egunerokotasuneko praktikei sozialki egozten zaien izaera espontaneotik urruti, uste eta ikuskera horiek guztiak neurtutako kultura nazional baten emaitza dira, zeinak, finean, estatu boterearen zilegitasuna bermatzea bilatzen duen. Umorea bera ere, aurrez ikusi dugun moduan, ikuspegi soziologiko batetik begiratuta prozesu sozial gisa definitu daitekeen fenomeno da, gizartean ikasi eta irakatsia dena, eta, beraz, gizarte horrek dauzkan kultura ikuspegiak partekatuko dituena. Hain zuzen ere, horregatik ez da berdina hemen, Euskal Herrian, eta Etiopiako herrixka batean erabiltzen den umorea.

Haatik, boterean dagoenak nekez onartuko ditu bere autoritatearen galera ekar diezaioketen jarduerak, eta hori neutralizatzeko neurriak hartuko ditu⁵³. Neurri horiek balio dute ‘normaltasunaren’ monopolioa zeinek duen birgogoratzeko, bai eta ezarritako ordena berreskuratzeko ere. Hala, *statu quo*a aztoratzen duten praktiken aurrean aplikatzen den hiru urratseko protokoloa honakoa da:

“Lehen urratsa birdefinizioarena da: “ez dira umore”. Bigarren urratsa diskurtsoa zentsuratzea: umorea ez denez, diskurtso horrek zilegitasuna galtzen du eta, beraz, haren hedapena moztu beharra dago, zigor baten ezarpenaz (zigor mediatikoa, politikoa...) diskurtso horien erabiltzaileak boikot, bazterketa sozial edo jazarpen publikora bultzatuz. Azkenik, kaltea egin aurreko ordenara bueltatzeko ezinbesteko urratsa da hirugarrena: barkamenarena. Hegemonikoa ez den diskurtso bat darabilenak barkamena edo damua erakutsi beharko baitu egindakoarengatik, horren bidez boterea zeinek duen baieztatuz eta onartuz.” (2017: 39)

Miren Artetxe bertsolari eta ikerlariak bat egiten du aurreko ideiarekin:

⁵³*Euskalduna naiz eta zu?* saioak gure artean nagusi den umore logika iraultzea ekarri zuen: euskal nazioa anomaliatik atera eta normaltasunean kokatu baitzuen espainiarren inguruko umorea sortuz. Une batez ‘haiek’ ziren arraroak, bereziak, ezaugarri desberdin eta desiragaitzak zeuzkatenak, eta ‘gu’ euskalduna bihurtu zen normaltasun desiragarri baten eredu (2017: 38).

“Botereak erabaki du umore jakin bat iraingarria dela batzuentzat eta, beraz, onartezina denontzat. Atera du aniztasunaren eta elkarbizitzaren *jokerra* eta orain barkamena eskatzea dagokionari dagokio eta ongi merezia du zigorra.” (2017:1)

Botereak umorearen kontrolean inbertitzen duen esfortzua hain handia dela ikusirik, bidezkoa da pentsatzea hainbestekoa izan daitekeela umoreak duen gaitasun eraldatzailea ere. Umoreak duen garrantzia ikusarazten baita, hain zuzen ere, umorea desagertzen den horietan (Anduaga 2017: 39).

Laura Mintegik (2017) gogorarazten digu, Anduagak zioen moduan botereari burla egin dakiokeela, baina beti dagoela muga bat, gurutzatu ezin den ‘errespetuaren’ marra bat. Marra hori, gorago azpimarratu bezala, botereak marrazten du eta igaroz gero zentsuraren bitartez isilaraziko du. Marra hori igarotzeko beldurak eragiten du nork bere burua zentsuratzea kanpoko zentsura jaso aurretik.

Anduagaren (2017) arabera, autozentsurarako joera indartu egin da. Testuinguru politikoa duela urte batzuk gogorragoa bazen ere, badirudi posizio eta ideologia politikoak argiagoak zirela eta umore diskurtsoak ere (espazio pribatuan ematen zirenak) koherenteki jokatzeko zuten horrekin. Orain, trantsizio batean gaudela ulertzen badugu, ikuspegi horiek leuntzen joan dira: muturreko umorea ‘gustu txarrekotzat’ jotzen da eta gero eta gutxiago antzematen da baita esparru intimoetan ere. Aldaketa politikoak bideratuta batetik, eta errepresio politikoaren ondorioz bestetik (kartzelaratzea, jazarpenak...), umorea ere moderatuagoa bihurtzen joan dela diosku, eta neurri handi batean gure burua autozentsuratzen ikasi dugula. Anduagarentzat (2017), autozentsura da zentsuraren modu sotilena, eta, horri esker, zentsura ofiziala luzatu eta egonkortu egiten da, barneratu eta fosilizatuz.

Anduagaren hitzetan, beraz, “sarritan umorea ‘politikoki zuzena’ den hori iraultzeko tresna dela saltzen digute, baina, gehienetan, ‘politikoki zuzena’ dena zurkaizteko tresna izan ohi da” (2017: 7).

Boterearekin lotuta nazio-eraikuntzaz esan ditugunak genero-sistemaren eraikuntza eta mantentzera estrapola daitezke eta umorearen mugak bertsolaritzaren markora egokituz, aurrekaritzat dudan ikerlanean Maialen Lujanbiori egindako elkarrizketa sakoneko bi pasarte azpimarratu nahi izan ditut jarraian.

Batetik, Lujanbiorentzat “politikoki *korrektoa* denarekin ez dago umorerik” eta ondorioz, gaur egun bizi dugun egoerak bereziki kezkatzen du hernaniarra:

“Politikoki *korrektoaren* hesiek eta gure kezka etikoek oso *konfundituta* gauzkatzen garai bat dela esango nuke. Delikatua dela transgresio hori gaur egun. Askotan ideologikoki ez dakigu zenbateraino, zenbateraino bai zenbateraino ez. [...]

Politikoki *korrektoa* denarekin ez dago umorerik. Umorea justu hori puskatzea da. [...] Genero gaiekin, adibidez, zaila da umorearen pertinentzia detektatzea. Oso testuinguru erosoan edo familiarrean agian errazagoa da transgreditzea, baina jendaurrean ez da beti erraza. [...]

Gaur egun iruditzen zait jendaurreko jardunetan gure *korrekzio* politikoan oso polizi gaudela jarrita denok ere. [...] Lehen, *klaro*, umorea egin izan da edozeren bizkar. Eta, batez ere, talde baztertuenen bizkar. Orduan, hori errebisatzen hasi garenez, oso interesantea ideologikoki baina, bestetik umorea egiteko garaian *ostra!* kaiola estua ere bada. Ni behintzat sentitzen naiz askotan ataka horretan: zenbateraino bai, zenbateraino ez. [...]

Horregatik kriston barne eztabaida izaten dut, neure buruan kriston katiamentua edukitzen dut hor. Eta gero baita zeinek esaten duen. Zer intentziorekin esaten duen. Zertarako. Zer testuingurutan. Horrek ere asko esan nahi du.” (Labaka 2017a: 62)

Bestetik, Lujanbiorentzat gai baten aurrean “ez dut hori egin nahi” erabakitzea eta espero den umorea ez erabiltzea erresistentzia modu bat da. Espero diren erreferentziak, hitzak, rolak ez erabiltzea edo, adibidez, mundu guztiak oso umorezkotzat ikusten duen egoera bat umoretik ez hartzea edo umore errazena zeneukakeen elementuen erabilerarik ez egitea. Horri erresistentzia pasiboa deritzo Lujanbiok baina hortik erresistentzia aktibora ere umoretik joan daitekeela defendatzen du. Hala ere, zaila dela onartzen du, landu egin behar dela:

“Zerbait berria denean gehiago da *txokantea* umorezkoa baino. Orduan, lortu behar duzu berria izanik edo espero ez dena izanik eta gainera pixka bat jendea *inkomodatuko* duena edo lotsaraziko duena izanik, hala ere umorera hurbiltzen, ez? Horrek oso fin ibili beharra eskatzen du. Guk denbora guztian onarpenarekin jokatzeko baitugu bertsotan. Eta bestela onartuko dizute transgresioa *igual* edo onartuko dizute *inkomodatu* duzula jendea. [...]

Nola barre eginarazi zure elementuekin eta ez emanda dauden elementuekin? [...] Orduan, hor dago niretzat zailtasuna! Oso fin ibili behar duzu, ze haiek molestaturiko dituzu, zenbait behintzat molestaturiko dituzu. Mikatzarekin batera gozo pixka bat eman behar diezu zurekin jolasean segitzeko. Eta *igual* gero eta gozo gehiago. Mikatzasuna *bajatzeko* joango zaie eta onartuko dute eta azkenerako barre egingo dute.”

Bale. Hori ez dut egingo. Oso ondo. Eta, zer egingo dut? Ze klaro! Ezetz esatea gauza bat da. Eta gero? Ezetz esatea eta erresistentzi hori beno... horraino ailegatzen gara baino

gero horren orde, zer? Eta hori da zaila. Hor sortu egin behar da eta gainera jendea zurekin eraman behar duzu, neurri batean behintzat.” (Labaka 2017a: 94)

Txapelketa honetan asko eta modu mamitsuan eztabaidatu da umorearen mugen inguruan, zenbait bertsoaldik tentsioa eragin eta horretarako bide eman dutelako.

4. ANALISIA

Ikerlanaren muina den atal honetan aurretiko planteamendu teorikoak material etnografikoarekin uztartzen ahaleginduko naiz, aurreko ataletan zehaztutako puntu nagusien eta material enpirikoa osatzen duten elkarriketa sakonen arteko gurutzapen posibleak orriotara ekarriz. Horretarako, elkarrizketa sakonak egiteko baliatu dudak galdetegian zeuden atalak errespetatuko ditut, lehen hiruretako ideia nagusiak modu laburragoan islatzen saiatuko banaiz ere⁵⁴. Horrela, beraz, umoreaz modu orokorrean jardungo dut lehenengoan, bigarrean umore-sistema eta genero-sistema elkarlotzen saiatuko naiz elkarrizketatuen esanak heldulekutzat hartuta, hirugarren eta laugarren atalak aurreko uztarketa euskal kulturaren eta bertsolaritzaren baitan kokatzeko saiakerak izango dira eta, azkenik, bosgarren atalean txapelketaren markoan nolabaiteko tentsioak sortu dituzten bertsoaldiak izango ditut hizpide⁵⁵.

4.1. Umoreaz, oro har

Lehen atal hau gaiarekiko hurbilpen gisa baliatuko dut. Hasteko, umorea norbere moduan definitzen ahalegintzeko eta jendartean umoreak duen lekuari nahiz eman ohi zaion pisuari edo garrantziari buruz gogoetatzeko eskatu diet elkarrizketatuei. Euren erantzunetatik abiatuta, datozen lerrootan bildu ditut, modu laburrean bada ere, interesgarrien suertatu zaizkidan ideiak.

“Umorea labana bat da”

Sustrai Colinarentzat umorea besteak zauritzeko, baina, era berean, norbera zauritzeko balio dezakeen labana bat da:

“Nire ustez balio dezake hegemonia bat, norma bat, kanon bat hankaz gora jartzeko baina era berean balio dezake hegemonia, kanon, norma hori betikitzeko ere. Orduan

⁵⁴Lehen galdera hauek modu sakonagoan erantzun nituen iazko Gizarte Antropologiako master amaierako lanean. Horregatik, lan honen luzera mugez jakitun, hurrengo galderetan gehiago sakontzea hobetsi dut.

⁵⁵Uxue Alberdiren kasuan, elkarrizketa sakonetarako baliatutako gidoiaren (Ikus. “Eranskina2”) laugarren eta bosgarren puntura mugatu dut elkarrizketa, aurreko lana burutzen ari nintzela izan bainuen berarekin aurreko galderei buruz hitz egiteko aukera.

batzuetan iruditzen zait kontuz erabili beharreko zerbait dela.”

Maite Berriozabal gai-jartzaileak ere aurrekoaren bidetik jotzen du:

“Umorea baliabide bat da hainbat mezu kamuflatzeko. Askotan oso erakargarria eta eraginkorra izan daiteke. Esan nahi dut: oso osasuntsua da barre egitea, oso erakargarria da umorea. Denontzat beharrezkoa den emozio bat. Askotan gauza oso grabeak esateko modu bat.”

Nerea Ibarzabalek ere bat egiten du Berriozabalekin umoreak beste modurik ez zeukanean zenbait gauza esateko balio izan diola aitortzen duenean.

“Nire ustez umoreari garrantzia aitortzen zaio baina pisurik ez”

Colinarena da aurreko baieztapena eta, bere aburuz, umorearen balioaren gutxiespena gaur egungo kultur eredu bati lotuta dago zeharo:

“Libertimendu hutseko kultur mundu hori umore hutseko gizarte honekin oso lotuta ikusten dut. Hutsa esaten dudanean mamirik gabea. Uste dut umore zuria esaten zaiola. Nik gero eta gehiago duda daukat ez ote den zurien umorea. Gainera zuriak bi zentzutan; faltsuon zentzuan eta gu zurion umorea.

Egia da gauza batzuei barre egiten ez badiezu edo kontra egiten ez badiezu, gauza horiek betikotzen ari zarela, ezta? Orduan, gaur ikusten dut modan dagoen kultur sistema hau, antzerki mota bat, oso *amablea* dena, oso... musika mota bat ere bai esango nuke. Literatura mota bat eta segur aski bertsolaritza mota bat ere bai, eh!

Oso gauza jakinei egiten diegu barre edo egiten zaie barre. Badago adostasun kolektibo bat. Ez gara sartzen gai delikatuetan. Ez gara sartzen gure zaurietan. Nik uste dut hori dela gizartean onarpen gehien daukan umorea, hau da, molestatzen ez duena. Gero, alde batetik logikoa ere iruditzen zait. Gizartea beti konbentzionala izango den heinean, gizarte horretan gailenduko den umorea ere nahiko konbentzionala izango da”.

Berriozabalentzat ere hipokresia puntu bat badago, umorea askotan hain garrantzitsua ez den generotzat hartzen dugulako, barrea eragiten duten pelikulak eta antzerakoak arintasunarekin lotzen ditugulako; drama, esaterako, kontu pisutsuago eta serioagoekin lotuz:

“Baina, bai uste dut gizarteak *berbalizatzen* duena baino askoz boteretsuagoa eta askoz erabiliagoa dela askotan ohartzen garena baino.

Nik uste dela tresna bat gauza oso *dentsoei* eta oso inportantei bide emateko, bestela onartuko ez liratekeen moduan. Horregatik iruditzen zait oso tresna arriskutsua. Eta gizartean iruditzen zait badaukala garrantzi handia baina ez dakit zenbat aitortzen zaion

publikoki”.

4.2. Umorea-sistemaz eta genero-sistemaz

Behin umorearen garrantzia azpimarratuta, bigarren azpiatal hau osatzeko umorea zeren gainean eraikitzen den eta umorea erresistentzia bezala uler daitekeen galdetu diet elkarrizketatuei, umore-sistemaren eta genero-sistemaren artean zein lotura ikusten duten argitze aldera.

“Umorea funtzionatzen duenaren gainean eraikitzen da”

Berriozabalek argi diosku umorea, bere iritziz, ezagutzen dugunaren gainean eraikitzen dela, askotan ezagutzen duguna delako norbera eroso sentitzen den eremua, onartuta dagoena:

“Eta onartuta badago, publikoa ere eroso sentitzen da. Nik uste dut umorea egiteko esparrurik erosoena dela funtzionatuko duela dakizun hori. Eta funtzionatuko duela dakizunean, entzule bezala nik uste lasaiago bizi duzula egoera. Ez bada bestelako lanketa bat”.

Colinarentzat ere umorea, “zoritxarrez”, funtzionatzen duenaren, aurrez funtzionatu duenaren edo gure ustez jende horrengan funtzionatuko duenaren gainean eraikitzen da:

“Susmoa dut gure umorearen bidez ari garela betiketzen Euskal Herri bat, jada existitzen ez dena gainera, askotan. Denok daukagu inguruan edo norberak eduki ditu esperientzi homosexualak ez bada, haurdunaldi subrogatuak... Eta gu oraindik kantatzen heteroarau patriarkal... Ez dakit, susmoa daukat hori betiketzen ari garela eta hori puskatu nahian hasten garenean ateratzen zaigula ETaren azken komunikatukoa bezalako *ez patriarkal* zoragarri bat. Denoi ematen diguna barregura esan duenari izan ezik.

Niretzat horregatik izan da bertso munduan emakumeek egin duzuen gogoeta guzti hori kriston arnasa izan delako interpelatze bat. Eta, nahiko nuke ez dakit... bertsolari *gay* eta lesbianen kolektiboak egingo balu berdin gogoeta hori eta joko baligu beste zaplazteko bat eta hemendik hogei urtera plazan eta bertso eskoletan beltzak eta hego amerikarrak eta txinatarrak egongo direnean ere egingo balute gogoeta hori eta esango baligute “zarete zuri arrazista batzuk!” Nahiago nuke hori gertatzea! Oso sana litzateke”.

“Umorea ez da denontzako berdina”

Aurreko baieztapenekin estuki lotuta, Aitor Sarriegi bertsolariarentzat artaldeka bezala funtzionatzen dugu, geografiaren, adinaren, bizimoduaren... arabera:

“Umorea funtziona dezan, umorea onartua izan dadin, egon behar dute erreferentzi komun batzuk, ezagutza batzuk, informazio bat. Egon behar dute puntu komun batzuk, bestela ez da ulertzen”.

Andoni Egañarentzat, ordea, azken hamarraldietako publikoaren ezaugarria da gero eta ezpalduegia dela eta, ondorioz, erreferentzia ezberdinak dauzkala sektore bakoitzak:

“Eta orduan, batzuentzat umorea dena besteentzat ez da –ez dutelako harrapatzen edo ez zaielako gustatzen-.

Hirurogeiko hamarraldian, txapelketa asko jokatu ziren garaian, balore konpartituak zeuzkan publikoak. Denak ziren oso euskaltzaleak, denak Jainkoarengan sinesten zuten denentzat ama ama bat zen⁵⁶. Gaur egun publikoarentzat balore konpartituak badaude baina beste batzuk ez dira konpartitzen. Horrek zaildu egiten du”.

“Emakume batek ahalegin berezia egin behar du umorea egiteko”

Umorearen eta generoaren arteko loturaz galdetuta, Berriozabalek aurreko kezka plazaratu digu, bere aburuz, bertsolaritzan nahiz telebistako ezein programa edo bakarrizketa nahiz antzerkietan nabarmentzen dena:

“Oso zaila da emakume bati barre egiteko boterea ematea. Emakume bati bere horretan emakumea izateagatik, eta ia emakume horrek umorea egin nahi badu grazia putarik egiten ez duen gauza batekin... Ze grazia hori ere eraikia da”.

Ibarzabalek ere antzera dihardu:

“Umorea bera egiteak jende aurrekotasun bat egotea eta ausartzea eskatzen du. Ez da erraza umorea egitea, ahotsa altxa behar da edo egon behar zara zentro batean. Leku hori historikoki mutilek eduki badute iruditzen zait mutilek diseinatu dutela modu askotan: zeri egiten diogun barre, zer umore mota dagoen. Eta jada bakarrik zerrendatzen hasita, emakume umoregile askoz gutxiago datozkit burura”.

Colinak ere lotura argia ikusten du umorearen eta generoaren artean:

⁵⁶“Joxerra Gartzia bere tesian ondo berezia dauka hamahiru urtean zein aldaketa egon zen. 1967an Uztapideri “ama” gaia jarri zioten eta oso famatuak egin ziren bertso batzuk kantatu zituen “beste zer esanik ezta esanikan: ama” amaituz. Denek txalo jo zuten denentzat ama gauza bera zelako. 1980an Amuriza iritsi zen eta jada publikoa ez zen hain gotorra bere baloreetan eta orduan bere aitari kantatu behar izan zion, bera kartzelan zegoela hil zen horri, bertsotan irakatsi zionari. Eta hori orain *esajeratuz* doa oraindik”.

“Umoreaz hitz egiten duzun momentutik hegemonia batez hitz egiten ari zara. Alde batetik uste dut urteetan emakumeei umorea ukatu egin zaiela bertsolaritzan. Bai emakume bertsolariei, bai bertsolariak entzuten zeuden emakumeei. Bertso afari batean denak zirikatzen aritu eta emakume batengana iritsi eta txanda pasa egin edo asko jota pelukeria izan zela esatea konstante bat izan da urteetan.

Umoreak nahi ala ez *tematika* bat markatzen duela iruditzen zait. Konbentzio horietan oso garbi dago zeri buruz egin daitekeen barre eta zeri buruz ez. Eta kasualitatez barre egin daitekeen gauza gehienak gizonezkoen mundu maskulino batekin lotutako gauzak dira.

Ni desiratzen nago emakumeen gorputzari buruz txisteak gizonezkoen gorputzari buruz bezala egin ahalko diren eguna iristeko. Nahiko nuke gizonezkoen gorputzarekin egin dena baino elegantzia gehiagorekin egindako umore bat egotea emakumearen gorputzarekin inguruan egiten hasten garenean.

Nahiko nuke umore sistema bat hori ere kontutan hartzen duena, izan gabe zerbait *bulgarra*, izan gabe zerbait sexista... Beno oso ongi, zuk nitaz egiten duzu barre, nik zutaz egiten dut barre. Parekidetasuna. Listo. Ez gehiago ez gutxiago. Uste dut horra iritsi behar genukeela. Edo nik nahiko nuke. Aspiratzen dut Maialeni esan ahal izatea “*egge*”⁵⁷ baina zerbait gehixeago”.

Sarriegi ere bereziki kezkatzen du gizonezkoen kasuan inolako erreparorik gabe ezaugarri fisikoei buruzko umorea egin eta emakumeen kasuan ezaugarri fisikoak aipatze hutsa politikoki zuzentzat ez jotzeak. Horren erakusgarri Abadiñon behin saio batean Julio Sotorekin bizitako pasarteak dakar gogora:

“Gizonezko bat zegoen soldaduskatik atera zenez geroztik bizarra moztu gabe. Eta Juliok kantatu zion ea *beste ileak moztu zituen* eta denak barrez. Bazegoen neska bat aurreko egunean kularo karrera irabazi zuena goizeko lauretan eta saria zen ile mozketa bat zen pelukeri batean. Eta nik esan nuen bi pausotako bertso bat egingo dut. Eta kantatu nuen: *saria horrela omen da izaten, eta nik jakin nahi nuke nongoak moztu behar dizkioten*. Eta Juliok esan zuen “joe neska gajoa” eta kantatu zuen: *Zuk lehen aipatu duzu bizarra/ mutilari kantatu eta denak parra/ eta neskari kantatzea zergatik da txarra?*”

Bereizketa honen arrazoi posibleei buruz galdetuta, Sarriegik neska oro har ahulago ikusten direla aipatzen du eta ondorioz, traumatikoagoa izan daitekeela beraiei horrelako zerbait kantatzea⁵⁸. Badirudi pertzepzio sozial hori tarteko bertsotan

⁵⁷ Lujanbio erremerrea da.

⁵⁸ Onarpenarekin ere izan dezake lotura. Oro har, normalizatuago dago gizon batek tripa izatea, burusoil egotea... Edo herriko parranderoa izatea, gaupaseroa, mutil zaharra... Eta onartuago dagoenez, horren gainean kantatzea barregarria izan daiteke. Emakumeen kasuan ez da hala gertatzen.

gizonezkoa baino gutxiagotan izan ohi dela emakumea umore objektu.

Ibarzabalek egoera horiei buelta ematen hasteko modu bat aldarrikatzen du, hain zuzen ere, norbere buruari barre egitea:

“Historikoki ahulenari egin izan zaio barre baina *interesanteago* da askoz ere zure buruaren gainean egitea. Eta zu sentitu momentu batean *erridikulu* eta jendea identifikatuta sentitzea, eurek ere badirelako hori. Niretzako hori da. Baina, prozesu luze bat eskatzen du zeren zu konturatu behar zara eta zuk eduki behar duzu aski segurtasun zure buruari barre egitera heltzeko.

Ni zurekin baldin banoa bertso saiora badakit elkarrekin eraiki behar dugula eta horrek eskatzen du beste *predisposizio* bat. Baina baldin badakizu bestea dela edozer botako duen pertsona bat... Tristeia da baina askotan saio ez hobek baina bai errazagoak edo sormen aldetik gutxiago suposatuko didatenak eduki ditut eurekin, oso momentu *frustranteak* ere bai publikoarekin sartzen hasi garenean.

Momentu batean lehia sartzen da *igual*⁵⁹ eta txapelketatik kanpo bertso afari batean berez, nik ez dut lehiatik kantatzen. Behintzat ez nuke nahi. Baina eurekin bai. Jada bihurtzen da pixka bat oilar borroka bat.”

Colina haratago doa umoreak generoarekin duen beste lotura bat azpimarratzeko garaian. Bere aburuz, bertsoan gizonezko mota jakin bat plazaratu baita umorearen bidez:

“Ni ez naiz batere identifikatuta sentitzen. Nik kantatzen dudanean ez daukadala sexurako gogo handirik edo... jo! Azkenaldian hasi eta bukatu bi minutuan egiten dudala... Ez naiz txisteak egiten ari. Ari naiz igual momentu horretan bizi dudana problema bat kontatzen. Esan nahi dut, edo nire burua humanizatzen edo... Baina ez naiz umorea egiten ari. Eta hori kontsideratzen da umore.

Ea sortzen dugun sistema bat. *Igual* ez duzu hain umore *agresiboa* behar. *Igual* behar duzu algara bat baino irribarre bat. Ez dakit. Eta ondokoarekin konplizitate minimo bat. Karo! Zu ari bazara hori egin nahian eta ondokoa lehenengoan, danba! Haustera joaten baldin bada... Bai, zaila da”.

“Umorea erresistentzia da”

Berriozabalek Irantzu Varela jartzen du adibidetzat, umorea erresistentzia dela eta beste bide asko baino eraginkorragoa dela baieztatzeko. Hala ere, honako kezka

⁵⁹ Gorpuzkeratik, jarreratik... hasita aldaketa sumatzen du markinarrak horrelakoetan.

plazaratzen ditu gaiarekin lotuta:

“Nik uste dut gauza batzuk oso adostuta daudenean, zeini erresistentzia egin –azkenean- kasik dela borroka hegemoniko bat. Dela *erreboluzio* hegemoniko bat. Ez dakit zein puntu arte den erresistentzia.

Adibidez Nereak eta Mirenek Bizkaiko final batean *Bolliviaren*⁶⁰ historia hori ateratzea. Hori niretzako bada adibide bat. Ze, berez esaten duzu kanpotik “ez die egiten erresistentzia ezeri.” Ez ziren gaiaren mugetatik atera. Baina, atera ziren jendearen pentsamendu markoetatik. Eta nik uste hori badela *kapazitate* bat eraikitzailetik erresistentzia egiteko. Askotan daukagu tendentzia kritikatik erresistitzeko.

Mirenek eta Nereak une horretan eraiki zutena izan zen gainera *plus* bat emanaz, *imaginario* bat berritu zuten. Orain gero esatea han zegoen zenbat jenderi iruditu zitzaion hori barregarri edo umorea? Hori seguruen beste mundu bat da”.

Egañak ere erresistentziarako bitarteko bezala ulertzen du umorea:

“Zeure buruarekiko erresistentzia ariketa bat da. Zalantzatia naiz baina oholtzan ez naiz zalantzatia. Ariketa bat eskatzen dizu jendaurrekotasunak. Eta gero bai, egia da hori esaldi ezaguna da: umoreak ez du balio mundua aldatzeko baina aldatu ezinaren pena *goxatu* egiten dizu. Eta, ostra! Jada hor baldin bazaude erresistentzia pixka bat jartzen ari zara, ezta? Gauzen betikotasunari... Emakumeen lanketak ekarri du hori”.

Colinak horrela kontatzen ditu erresistentzien inguruko nahiak eta ezinak:

“Nik zerbait detektatzen dudanean, hau da, nire prozesua bukatzen da detektatu dudan horretan ez erortzeko alternatiba bat bururatzen zaidan momentuan. Niretzat bitalak diren gauzetan tratatzea tokatzen zaidanean traizionatuta sentitzen naiz. Niri ez dit balio eta ikusten dut adibidez hori pixka bat gauza arriskutsu bezala; detektatu eta esatea bakarrik. Esan nahi dut, iritsi behar naiz alternatiba batera.

Eta jakin ez dagoela soluzio idealik. Askotan konpromiso kontu bat dela. Zuk nahi eta ahal duzunaren arteko borroka hori, kanpotik uzten dizuten hori eta kiroltasun pixka bat norbere buruarekin. Exijentzia bai baina zigorra ez, ahal dela. Eta distantzia pixka bat egiten duzunarekiko bai lortu duzunean eta bai lortu ez duzunean. Eta kontzientzia ez galdu. Ez galdu. Niretzako hor dago klabea. Jada zure burua traizionatzea normala iruditzen zaizunean, horrek minik ematen ez dizunean, jada galdu duzu”.

⁶⁰2016ko Bizkaiko finalean Miren Amurizak eta Nerea Ibarzabalek bikotea osatzen zuten gaiak hala eskatuta. Amuriza boliviarra zen eta Ibarzabal lehen aldiz zihoan Amurizaren familia ezagutera Boliviara. *Bollerak* zirela aipatu eta Ibarzabalek azken bertsotan “asko maite zaitut ta/ gora Bolivia!” hitz jokoarekin borobildu zuen saioa.

Egañak beste ideia aberasgarri bat gehitzen dio erresistentziaren gaiari:

“Gogoeta lan honek eta emakumeak plazan indarrez sartu izanak ondorio bat du eta da bertsolaritza bada tradizioa eta sormenaren arteko jolas bat, orain derrigor sormenera gehiago jo dugula tradizioa baino.

Zergatik? Emakumeak hasteko hutsetik sortzen ari direlako beraien tradizioa eta besteok oholtza kideak garelako eta ezin dugulako hortik *paso* egin. Orduan, ostra! Momentu interesgarria da. Eta oso urruti gelditu dira nik ezagutu ditudan garaiak. Orain dela hogeita hamar urte.

Badauzkagu bertsolari euskaldun berriak edo familia erdaldunetakoak eta abar, ezta? Horrek inportantzia ematen dio sormenari. Orduan hor badago *kriki-kraka* bat genero ikuspegiak eragin duena, baina beste faktore batzuk ere badaude. Nik erresistentzia gutxi ikusten dut aldaketa hauen aurrean, baina sumatzen dira. Zergatik da? Ba beno batzuek beti tradizioari pisu gehiago eman diotelako sormenari baino, ezta?”

4.3. Umorea euskal kulturaren

Puntu honetan euskal kulturaren baitan umoreak zein leku duen eta euskaldunak barre zeri egiten dion erantzuteko parada izan dute elkarrizketatuek. Ia denek aipatu dute euskal kulturaz eta, beraz, euskal umoreaz hitz egiteko zailtasuna, arestian esan bezala gizartea gero eta ezpalduago eta atomizatuago ikusten baitute. Hala ere, zenbait ideia interesgarri bildu ditut jarraian.

Colinarentzat, hasteko, badago zapalduaren edo galtzailearen umore mota bat, “zer garen besteek esan digutenez gure buruaz barre egiteko saiakera moduko bat”.

Egañarentzat, aldiz, urte askoan egon da *Fernando amezketarraren* mitoaren antzerako umore bat, Mogelen *Peru Abarka* obrakoaren antzerakoa, non behekoa errebelatzen zen orduko estamentuen kontra, apaiz, abokatu edo kalekume burutsuen kontra. Umore mota horren eraginez, bertsolariengandik ere umore mota hori espero zela eta dela aipatzen du Egañak; boterearen dogmei *ingenioaren* bidez buelta emango dien umorea.

Sarriegik aurrekoaren bidetik deuseztatzen du euskaraz umorerik egin ez dela dioen mamua:

“Nik uste umorea betidanik egon dela, eta ez bertsolaritzan bakarrik. Bertsolaritzan oso presente. Bertsolaritzaz harago pasadizoak, gertaerak... ez dakit. Lazkao Txikiren edo Fernando Amezketarraren edo nik zer dakit zeinen historiak, herri guztietan egon da elebreren bat halako egin zuena, bestea egin zuena. Horien transmisioa umorearen

parte da niretzako”.

Gaur egungoa behatuta, Berriozabalek zineman adibidez gehiegizko arintasunezko lanak ikusi dituela dio, oso absurdotik eta klitxeetatik sortutakoak. Hala ere, antzerkiari aitortzen dio bestelako lanketa bat egiteko ahalegina egin izana.

Ibarzabali, antzerkiari buruz hasita, *Heriotza bikoitza*⁶¹ obra datorkio burura. Hala ere, herri moduan erreferentziak sortzen ahalegintzea falta zaigula azpimarratzen du, izan programa, komiki...⁶²:

“Niretzako egin behar dugu benetan sortu gure erreferenteak, gure umorea... Ze askotan, hain da zaila ez jotzea lehenengotik umore espainolera edo! *Inklusio* gure bertso saioetan. Zer gabiltza Rajoyri barre egiten oraindik gaur egun? Eduki beharko genituzkeenean gure erreferente propioak barre egiteko Iñigo Urkullutaz aparte.

Baina zein umoregile edo iturrietara jotzen duzu gauza euskaldunez barre egin nahi duzunean, ez dena *Vaya Semanita*? Askotan dira bertso saioak eta doble karga da guretzako. Eta interesantea ere bai. Gure eskutan dagoelako umore mota bat egitea baina... Kanpoko etiketekin gabiltza konstanteki. Eta nik uste dut bertsoak hor badaukala funtzio bat, eduki duela eta edukiko duela. Baina bai da zaila zeren sortu egin behar da!”

Euskaldunak barre zeri egiten dion galdetuta erantzun zehatza dakar Sarriegik; norbere buruari baino “besteen ipurdiko zuloari egiten diogu barre”.

Behin puntu honetara iritsita, kritikiko samar agertu da Colina:

“Askotan daukat sentipena euskaldunak ere ez ote duen besteei kritikatzeko diena egiten. Alegia, *Ocho apellidos vascos* bezalako *boom* bat, olatu bat, dator eta euskaldunari egiten zaio barre modu gutxiesle batean. Baina gero jartzen naiz pentsatzen, euskaldun nukleoak, hau da, gipuzkoarrak, nola egiten dion barre nafarrari edo iparraldekoari eta oso antzekoa iruditzen zait.

Azkenean, susmoa daukat ez garela besteak baino hobeak. Eta batzuetan hegemonia non dagoen ahaztu egiten zaigula. Eta batez ere gu garenean hegemonia. Ez da kasualitatea aipatzen nuzun *probintzialismo* zera hori.

Ni hegemonian ez nagoenean eskatzen ari naiz etengabe besteek sentiberatasun bat eduki dezaten nirekiko. Eta ni hegemonian nagoenean, zer egiten dut? Zentzu horretan uste dut ez garela besteak baino hobeak. Eta horri gehitzen badiozu euskalduna ez dela

⁶¹Miren Gaztañaga eta Eneko Sagardoyren antzezlan.

⁶²“Euskalduna naiz eta zu” zentsuratutako telebista programa eta sortu eta gutxira amaitutzat emandako H28 aldizkari satirikoa aipatu ditu, hurrenez hurren.

euskalduna bakarrik jada, denok daukagula garunaren zati bat kolonizatuta, sortzen dira oso bonba *peligrosoak*.

Badakit badagoela hor jende bat bere barruan gauzak desegiten, berregiten, gauzen kontzientzia hartzen baina utziz gero joaten, zoaz nik amildegi bat kontsideratzen dudan horretara. Jende bat oso gustura joango da horra. Horregatik esaten dut zeri buruz bai baino... askotan nola, non, nondik. Zeri egiten zaion barre baina zeri ez zaion egiten. Niretzako hori oso deigarria da. Zeri ez zaion egiten barre eta nori ez zaion egiten barre. Nori ukatzen zaion umorea.

Horrela esanda pixka bat friboloa ematen du baina... ni desiratzen nago gatazkaren inguruan txisteak egiteko baimena ea nork ematen digun edo atea noiz irekitzen den. Uste dut dela zauriak sendatzeko modu bat, ezta? Eta batzuetan susmoa daukat gure buruari hori ukatu izana edo kanpotik hori ukatu izana badela gatazka hau betikotzeko modu bat ere”.

4.4. Umorea bertsolaritzan

Euskal kulturaren eszenatik bertsolaritzaren marko zehatzagora igarota, bertsolaritzaren baitan umoreak zein leku duen izan dut mintzagai elkarrizketatuekin. Gainera, bertsolari nahiz gai-jartzaile bezala zer umore mota ideal bilatzen duten galdetu diet eta umore hegemoniko eta bazterrekoen arteko bereizketaren inguruan ere bai. Atalarekin bukatzeko, umorearen mugak izan ditugu hizpide.

“Umorea oso presente dago bertsolaritzan”

Umoreak bertsolaritzan duen lekuaz galdeginda, elkarrizketatu guztiak datoz bat garrantzia handia aitortzen zaiola baieztatzekoan. Sarriegik eta Ibarzabalek, esaterako, honakoa diote, hurrenez hurren:

“Nik esango nuke umorea oso presente dagoela, bereziki libreko saioetan. Publikoa joaten da ohiko plazetara behintzat umore eske, eta bereziki mahai bueltako saioetara”. (Sarriegi)

“Esango nuke bertso-saioetara jende asko umoreagatik joaten dela. Koadrila asko ezagutzen ditut, zeinak umore punturik egon ez den bertso saioak automatikoki bertso saio txartzat dituzten”. (Ibarzabal)

Colinak ere aurrekoaren bidetik jarraitzen du zenbait zalantza planteatu asmoz:

“Niretzako badago zerbait guk umore deitzen dioguna edo jendeak eskatzen duena. Hori agerikoa da. Baina ez nago konbentziturik guk umore deitzen diogun hori benetan umorea den. Nik uste dut jendeak eskatzen duela gehiago jolasa, ondo pasatzea edo

dibertimendua. Hiruen artekoa *igual*. Batzuetan ikusten dut jendeak zerekin egiten duen barre eta, inor gutxietsi gabe, niretzat ez da umorera iristen hori.

Nik uste plazan eskatzen denak gehiago daukala *kortseta* puskatzearekin zerikusia eta *kortset* horiek puskatzeko jotzen dugula txiste errepikapen askotan nazkagarri batera.

Eskatzen da eta badauka pisu bat, eh! Nik hori ez dut ukatzen. Baina segur aski umorea balitz gauzarik inportanteena plazako argazkia beste bat izango litzakete gaur egun, ez nago konbentzituta bertsolari umoretsuenak dabiltzanik gehien.

Gainera, pena pixka bat ematen dit jendeak umoretsutzat dauzkan bertsolariak nola kondenatzen dituen. Iker Zubeldia, adibidez, jendeak nola kondenatzen duen eta *enkasillatzen* duen umore horretara. Ematen du bertso batean hiru txiste egiten ez baditu ezin duela hor egon. Joe, hori oso tristea iruditzen zait. Batez ere, nik uste dudalako Ikerrek hortaz gain badaukala zer esana, ezta?"

Bertsolari umoretsuen etiketaz ari garela, Ibarzabali ere kezka hau nagusitu zaio azken txapelketaren ondoren:

"Etiketa hori daukadanez, batzuetan molestatu moduan egiten dit, ez dakit jendeak zein umore motarekin identifikatzen nauen. Neska xeble bat bezala irakurria naiz. "Kantatuko du ez dakit zeinek seriotik eta berak kantatuko du xebletik" eta "bestela ipiniko dugu kantatzen hilekoari buruz berriro". Edo, hori da, uste dut azkeneko saioetan izan dela bakarka, feminismoarekin lotura daukaten gaiei buruz.

Askotan hain da zaila jendeak nola irakurriko zaituen. Jende batek bakarrik Txapelketan ikusi zaitu bi saiotan. Eta zortziko txiki batek ondo irten badizu jada xeblearen etiketa daukazu".

Ibarzabalek, gainera, zalantzan jartzen du mikroa edukitzeak berak bertsolariari publikoari buruz "edozer esateko" ematen dion boterea:

"Jende askok bertso saioetatik daukan pertzepzioa hori da. Jende asko doa jasotzera. Behin eskola bateko bertso bazkari bat zen eta irakasleek eurek azaldu zieten ikasleei: "etorri zeren irakasleei barre egiten diete bertsolariek eta ikusiko duzue zelako ondo pasako duzuen."

Lemoan ere pasa zitzaidan iaz zurekin. Hala esan ziguten: "beno, hasieran pixka bat serio eta gero sartu jendearekin." *Klaro*, nola "sartzen da jendearekin" beste modu batean? Ezagutzen ez duzun jende batekin egon behar zara egiten *eskaner* bat fisikotik haratago doazen ezaugarriak imajinatzeke. Ba, beno, hor hasten da *igual* interesanteena. Edo, imajinatu pertsona hori zer den! Baina, *klaro!* Oraindik funtzionatzen ez badu umore horrek edo kode hori ez bada heldu jendearengana eta gu egiten hasi, ba... Izan behar da

kontsensu moduan egin beharko dugun zerbait. Gai jartzaile baten figurak salbatzen ditu horrelako egoera asko. Librean zailagoa da⁶³”.

Hain zuzen ere, Berriozabal izan da gai-jartzailearen ikuspuntua gehitu duena:

“Ni askotan gai jartzaile naizen aldetik borrokatzen naiz publikoak espero duenaren, bertsolariak egin nahi duen edo egiteko prest egon ahal den eta nik nahi dudaren artean.

Nik zer nahi dudana, askotan hori da igual lehenengo gauza kentzen dudana. Eta batez ere abiatzen naiz entzuletik. Baina da nire proiektio hutsa. X plazan nago. Askotan ez naiz egon aurretik. Nire fantasiatik imajinatzen dut den eremua delako, den ordutegia delako ez dakit zer beharko dela. Eta orduan horren arabera umorea bera ere izango da dosi handiago edo txikiagoan.

Baina nik uste dut beti dagoela zati bat umorerako. Niretzako egon behar da, funtzionatzen duelako. Eta bat bat-batekotasunak zerbait baldin badauka, momentuko txispa horrek eragiten du gero jendea askotan asetuta joatea. Beti saio amaieretan eta ahalegintzen zara amaierarako zapora hori izaten. Aldi berean umorea bertso-saioen bukaerarako gordetzeak erakutsi lezake ematen zaion prestigioa, ezta?”

“Hegemonia zalantzan jartzen duen umore bat bilatzen dut”

Sortzaile bezala sortu nahiko luketen umore idealari buruz galdetuta ere erantzun oso interesgarriak eman dizkigute elkarrizketatuek. Colinarenak dira lehen hitzak:

“Nik bilatzen dut ideologia minimo bat daukan umore bat. Ideologia edo mamia, bilatu-bilatu bilatzen dudana da: “horren berri badauka zure nagusiak”⁶⁴. Gero? Saiatzen naiz gero eta gehiago nire buruari barre egiten. Hori ere bai. Ni ere beste guztiak bezala, batzuetan saioaren morroi naiz eta beste askotan txaloaren morroi ere bai. Eta txaloei uko egitera ere iristen naiz.

Adibidez nire buruarekin ernegatzen naiz badakidanean bertsoa hasi aurretik txiste horrek funtzionatuko duela. Gehiago motibatzen nau ona dela susmatu baina erreakzioa neurtzen ez dudanak”.

Colinaren arabera bistakoa da hegemonia hori aldatu egiten dela publikoaren edo tokiaren arabera:

⁶³Ibarzabalek kontatu digu gai-jartzaileek eskatu izan dietela bertsolariei, besteak beste, *gominola* batzuk eman eta publiko artean banatzeko, edo igandeetan zein plan egiten dituzten imajiantzeko... Eta testuinguruzko aitzakia hauek sortzaile moduan asko laguntzen dutela ezaugarri fisikoetara ez mugatzen.

⁶⁴ Ikus. “Eranskina2” Mendiluze eta Colinak zortziko txikian burututako 6. bertsoaldia.

“Niri ez zait interesatzen BEC-en ezker abertzaleari barre egitea, baina *Herriko taberna* batean igual bai. Ez zait interesatzen BEC-en emakumearen ez dakit zer txiste egitea, baina igual Bilgune Feministak antolatutako bertso bazkari batean bai. Pixka bat hori neurtzen, ez? Neurtzen eta aldiro identifikatzen hegemonia hori eta pixka bat zu kokatzen hegemonia horrekiko. Hegemonia hori pixka bat mugitu dezakeen umorea bilatzen.

Eta era berean horra iristeko klabea da norbere buruari ere barre egitea. *Klaro* hori da bestea! Beti bagabiltza besteei egurra ematen eta zure buruari ez badiozu inoiz zaplazteko txo bat jotzen edo behintzat arramazka bat edo...”

Colinak berak aipatu digu bertso plazen sisteman badaudela hegemoniatik kanporako beste plaza mota batzuk non bertsolariak gehiago ausartu ohi diren, esaterako, norbere kontraesanei buruz kantatzera:

“Nik uste dut badaudela plaza batzuk zirkuitu ofizialetik kanpo. Bi *estremo* dauzkagu. Baina gero nik kanpotik ikusten dudana, jende batek gogoeta egiten duela horri buruz eta ari dela saiatzen bera gustura egoteko espazio bat sortzen eta bera gustura egon ahala eta espazio horrek erantzuna eduki ahala espazio hori ari dela handitzen eta eragiten *igual* beste espazio batzuetan.

Baina nik *karkak* ikusten ditut lehen bezalaxe. Eta gehiago esaten dizut, azken txapelketa nagusian irabazle atera den estiloa hortik milimetro batera dago. Nahiz eta gero estilo hori praktikatzen duen jendea beste *honda* batean egon. Ezin dugu gure burua engainatu. Eta ezin dugu pentsatu bertso mundua Maialenen Irungo bakarkakoa⁶⁵ eta *Ez da Kasualitatea*⁶⁶ bakarrik denik. Eta feminismoarekiko sentsibilitatea daukan mugimendu denik edo denok daukagunik.

Bertso munduan *Patxi Bakallo*⁶⁷ asko dago. Askok! Eta publikoaren zati handi bat oso kontserbadorea da. Eta normala iruditzen zait gainera. Hartzen badituzu hauteskundeak emaitzak, *eske* ez da posible. Txapelketak mugitzen duen masa kontutan hartuta, ez da posible BEC-en hamabost mila feminista elkartzea. Edo –berdin zait- atez atekoaren aldekoak. Ez da posible! Eta batzuetan hori ahaztu egiten zaigu”.

Ibarzabalek ere argi dauka ze umore mota egin nahiko lukeen:

“Kantatu eta jakitea inor ez dela mindu baizik eta elkarbanatu egin dela *erridikulu*

⁶⁵Pertsona transgenero baten paperetik kantatu zuen.

Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=AliE4Mk2X7g&t=4s> [Azken bisita: 2018-09-11]

⁶⁶2007an Mutrikun lehen aldiz antolatutako saio hauen bereizgarri dira, batetik, musikaz lagundutako saioak izatea eta, bestetik, normalki lau bertsolari emakumezkoen parte hartzea. Bertsolari emakumezkoen kopurutik bertatik hasita, nolabait eredu hegemonikoa iraultzeko xedea duten saioak dira, transgresioari bide ematen dioten bertso-saio feministak.

⁶⁷Beranduago berariaz aipatuko dugun sare sozialetako *trolla* da Patxi Bakallo.

sentsazio hori. Baina, inoiz ez nuke nahi palestra batetik inor zapaldu eta ahal bada beti lehenengo niregandik pasatutako umore bat nahi nuke egin.

Ez dut beldurra eduki nahi ez nik ez askotan gizon bertsokideak, zeren sumatzen dut asko egon daitezkeela bilatzen modu bat hanka ez sartzeko, politikoki *korrektoa* izateko. Nahiko nuke bide lasterra ez hartzea ez nik, ez guk, ez gizonezko bertsokideek. Orduan, egon behar dira erorialdi asko segur aski. Edozein gauza deseraikitzen denean moduan. Baina hori: beldur barik baina tentsioz”.

Badakit zer umore ez zaidan gustatzen. Badakit zein gustatzen zaidan baina gustatzen zaidan hori oraindik esparru txikiagoa da gustatzen ez zaidan handi hori baino. Gustatzen zait *Ez da Kasualitatea*-an egiten dugun umore hori baina nahiko nuke zabaltzen asmatu eta beste bertsolari batzuekin ere umore hori konpartitu”.

Berriozabalek gai-jartzailearen funtzioa zein den azaltzeari ekiten dio jarraian:

“Demagun saio normal bat, izan daitezkeela lau lagun: hiru gizon eta emakume bat. Dela –gutxi gora behera- saio normal baten estruktura.

Orduan ni ahalegintzen naiz izaten gai batzuk bertsolariarentzako kantagarriak, eurek disfrutatu ditzaketenak. Batzuetan sentsazioa daukat gaien iraultzaren mailak ekarri ahal duela bertsolariak berak ezin aurre egin ahal izatea egoera horri.

Niretzako gure funtzioa da publikoa, entzulea eta bertsolariaren arteko zubi-lana egitea. Nik beti hartzen dut aintzat nork norekin kantatuko duen eta gai batzuk ekidin egiten ditut, nire aurreiritziengatik edo entzun ditudan gauzengatik edo ez ditudalako gauza batzuk entzun nahi eta entzuten baditut ez dudalako erantzulea izan nahi”.

Gai-jartzaileak argi bereizten ditu saio hegemoniko eta bazterrekoen arteko aldeak, bere ikuspegitik:

“Bazterreko saioak deitzen ditugun horietarako gaiak pentsatzen ditudanean askoz ere gehiago pentsatzen dut bertsolariengan publikoarengan baino, badakidalako formatuak berak bere horretan dakarrela leherketa edo apurketa bat. Uste dut ideologikoki ere kaotikoagoa den saio bat izango dela eta askoz ere askatasun gehiago egongo dela. Ez dela hainbeste muga egongo.

Eta saio normaletarako gaiak pentsatzen ditudanean pentsatzen dut gehiago bazkari familiar baterako arropa erabakitzen duzun moduan. Hau da, nahi duzula besteei ondo iruditzea baina zu izaten jarraitu eta azkenean zoazela jantzita ez zu, ez eurek.

Nik neuk emakume izanda talde hau sentitzen dut. Orduan bai sentitzen dut nire lana dela beste bat gehiago izatea magia horretan. Zailagoa da saio hori txarto ateratzea, ez

direlako hain zurrinak. Eta bertsolariak eurek badakitelako euren buruekin askoz ere *permisiboak* izaten. Orduan ni neu ere askoz *permisiboago* sentitzen naiz. Igual beste saioetan *enkortsetatuago* sentitzen naiz.

Iruditzen zait errespetu handia dagoela oinarrian eta ez dela hainbesteko zaintza lanik egin behar gaien ikuspegitik. Bestelako saioetan autozentsura asko lantzen duzu. Askotan bertsolariak ez daudelako askatasun egoera berean, ez direlako ari berdinetik berdinerara bertsoan. Eta nik neuk ere gaia ipintzen dudanean sentitzen dut hori”.

Ibarzabalek ere antzera bizi ditu *Ez da kasualitatea* bezalako bazterreko saioak:

“Dagoelako konfiantza bat, badakigulako publiko horrek ulertuko duela. Eta guk ere bai elkar. Umore bat, txotxinei buruzko umorea, gure estriei buruzko umorea... Gure buruei barre egiteko konfiantza bat.

Norberak bere buruari barre egitea uste dut dela umorerik onena eta hortik gauza asko adierazten dituzula kontraesanak azaleratuz. Eta leku denetan ez da sentitzen konfiantza hori: zu lasai biluzteko modu batean eta jakiteko argi ez zabiltzala inor zapaltzen. Konfiantza eta kode konpartitu bat. Nik hori sumatzen dut askotan”.

Kode konpartitu hori eraikitzerakoan gai-jartzaileak funtzio argia duela ikusten da berriro ere. Bertsolariarentzat behin diskurtsoa eraikita hortik aurrera umorea egitea errazagoa delako, bestela diskurtsoa berak egin behar duelako eta hor ez zaiolako umorerako tarte handiegirik geratzen. Berriozabalen arabera, hori litzateke justuena, “zerotik abiatzea eta ez azpitik”:

“Zuk utzi dezakezu *kanpo* bat zabalik eta esan begira hemen sortu liteke nahi beste txiste super feminista. Hala ere, zure bertsoak baten erantzunak eragin dezake zurea jada ez izatea txiste bat. Ez dut horrekin gure erantzukizuna ekidin nahi. Erantzukizun handia dauka gaiak... Zelan dagoen idatzita, zelan esaten den, nor den kantuan hasten dena, nor den boterean, nor ez...

Nik badakit musikatu batean ipini dezakezula gai bat... edozein gai tradizional izan ahal da feminista. Baina txapelketan ez, edo beste edozein saiotan ez. Eta hori zelan neurtu. Zuk ipintzen duzu gai bat: bikotea zarete, ohean zaudetela gaur ere B-k ez duela gogorik esan dizu. Argi dago B emakumea dela. Munduan denok, denok –beno igual batzuk ez– baina nik bai, imajinatzen dugu egoera hori: gizon bat emakume bat. Eta berdin da kantuan nor dagoen, eh!

Eramaten duzu gai hori plazara... nik ez nuke ipiniko. Eta da gai bat *hiper-tipikoa* Lizasori orain 25 urte Zegaman edo jar ziezaioketena... Eta kantatuko luke andreak mozkortuta etorri zara eta ez dakit zer.

Txapelketarako horrelako gai bat ipintzen badugu, bertsolariak izan behar du erantzule zer egiten duen eta zer ez duen egiten. Baina bertsolariak *matxakutzen* badu bestea eta epaileak hori ez badu zigortzen zer egin behar dugu guk? Gaia ez ipini?”.

“Nire ustez nire umorearen mugak dira arbuiatzen dudana hauspotzea”

Aurreko baieztapena Colinarena da. Eta bi jarrera argi identifikatzen ditu mugekin lotuta⁶⁸:

“Edo haustailea izan eta mugetatik atera eta denak horri buruz hizketan jarri. Edo beti egon muga hartu eta metro bat harago bultzatzen, bultzatzen eta azkenerako inor konturatzera, aiba! Ze espazio handia sortu dugun hemen!

Nik uste dut biak behar direla, ez direla kontraesankorrak eta eguneroko bizitzan mugak metroka-metroka bultzatzen joan behar dela eta batzuetan puskatu egin behar dela baina jakin egin behar dela noiz ari zaren puskatzen”.

Egañaren aburuz, umorearen hiztegia bera izan daiteke muga zenbait kasutan:

“Kriston desoreka dago. Baina ez oholtzatan bakarrik. Kafe bat hartzerakoan ere edo neska eta mutilen arteko koadrila batean... Ostra! Metaforizazio horren alde baterako pisua oso nabarmena da. Eta bertsotan gehiago.

Gaitetik kanpo izan ditugu guk gai horiek. Peña⁶⁹ eta niri inoiz ez digute jarri “bi emakume zarete, biek daukazue hilekoa. Egañak sekulako minak pasatzen ditu eta Peñari oharkabea pasatzen zaio ia.” Ez zaigu gai hori behin ere tokatu. Eta, zergatik ez? “Bi amona zarete eta batek leihotik ikusmiran egotea desio du eta besteari beti sukaldean egotea ez zaio batera inporta.” Hori posibleago zen. Baina, zergatik? Amonaren estereotipo *mariaventanas* bat badagoelako.

Eta bizitza erreala ez zen hori gurea. Guk hilekodun emakume gehiago ezagutzen genituen sukaldean bainak aletzen ari zirenak baino. Pena da urte askotan horrelako gairik ez edukia”.

Diskurtsoaren inguruko mugei buruz galdetuta, Egañak bere zalantzak plazaratzen ditu:

“Automugak behintzat txarrak dira. Eta automugarik eza ere txarra da. Orduan tarte horretan ibili behar da. Printzipio teorikoak garbi daude: parez pareko umorea egin edo goitik dagoenari jo adarra. Baina hori ere ez dago hain garbi: momentu batzuetan boteretsu direnak ere *igual* gero ez dira”.

⁶⁸Ikerlan honen hasiera-hasieran datorren Arantxa Urretabizkaiaren aiparekin paralelismo handia du Colinarenak.

⁶⁹Anjel Mari Peñagarikano.

Egañarekin jarraituz, berarentzat umorearen mugetako bat da minik eman gabe zirikatzea, mugiaraztea; “*kalanbrazo* bat bai baina ez elektrodoak”.

Ibarzabalek ere hor jartzen du muga, hain justu, norbait mintzen den momentuan:

“Boteretsua mintzea bai. Nik minik sentitu ez eta beste bat... azpirago dagoen bat mintzea ez. Hau da, altura bat edo... irudikatzen dut bertikalki moduan. Ahaleginduko naiz barre egiten lodia zaudelako, *kalba* zaudelako eta begi bat falta zaizulako... hori ez”.

Berriozabalek ere modu zorrotzean ekin dio gaiari sakontzeari:

“Txapelketan zehar kontra argumentazioak mahaira ekarri direnean “*eske* hori fikzioa da eta fikzioa erreproduzitu nahi baduzu...” esanez, argumentazio hori iruditzen zait dela ez duzula pribilejio egoera bat onartu nahi.

Marra gorriak niretzako badaude. Niretzako mugak daude pertsona deseroso sentitzen den momentutik. *Punto*. Berdin zait zein gai. Ez da generoa bakarrik. Batzuk esango dute “*eske* arriskatu gabe ez dago umorerik”. Eta egia da. Muga horiek apurtzeko batzuetan hanka sartu beharko da. Eta ados nago. Normalizatuta dauden gauza batzuk des-normalizatzeke lana izan behar da umorearena edo erresistentziarena. Oso ondo honek egiten dizue kriston grazia baino niri ez. Eta ahaleginduko naiz zuen normalizazio horri barre egiten.

Bertsolariak ez ezik entzuleak ere ipintzen dizkio mugak umoreari”.

Gai honi tiraka, Ibarzabalek lehenago atera den ideia bati heltzen dio berriro ere:

“Kalkulatzen badituzu zure umorea egiteko limiteak besteari egin diezaiokezun minaren arabera, iruditzen zaigu automatikoki emakume baten ezaugarri fisikoekin sartzeko askoz mingarriagoa dela.

Urte asko daramate gizonak euren umore hori egiten euren akatsen inguruan ere. Akatsak edo... zakil txikia, handia, tripa... Hori da urte askotako kode konpartitu bat eraikitzeke denbora eduki dutelako⁷⁰”.

Ibarzabalek, gainera, honen guztiaren atzean ahul agertzeko beldurra egon daitekeela aipatzen du:

“Umorea da –askotan izan ahal da- zure ahulgunea ezkutatzeko *fuerte* agertu, edo zure

⁷⁰Klitxeen gainean kantatu dute ia etengabe. Aldiz, *Ez da Kasualitatea* bezalako saioei esker gero eta ohikoagoa da emakumeen sexualitateari buruz kantatzea, baina beste modu batean, bizipenetan oinarrituta eta askoz ere modu errealagoan.

ahulgunea erakutsi eta *fuerte* agertu. Niretzako askoz ere interesanteagoa da zure ahulgunea erakutsi eta *fuerte* agertzea. Baina horrek aurretiko ahalduntze bat eskatzen du”.

Ibarzabalen beraren ahotik bertsolarien hanka sartzeko beldurra izan daut aipagai lehenago eta hari beretik tiraka, Uxue Alberdik ere atal hau borobiltzeko moduko ideia interesgarriak dakartza bere hitz-hartzera:

“Nik uste dut libertate osoa emango niokeela umorea egiten ari denari, autore bezala nire buruari hori opa diodalako. Baina gero analisi sakon bat behar da horren inguruan.

Argi daukat *esponitzen* zaren momentutik zure hitzen ardura daukazula. Biderik errazena *igual* da pertsonak epaitzea, segur aski denok egin dugunean modu batera edo bestera plaza batean edo bestean horrelako umorea. Eta iruditzen zait hori *ebitatu* behar dela baina horrek ez du esan nahi isiltzea. Iruditzen zait analizatu behar dugula zer gertatu den, zergatik gertatu den, beste pertsona batzuen artean gertatuko balitz horrela gertatuko zen...

Ikusten ditut bertsolari asko diskurtsoak benetan gorputzetik pasa gabe, hau da, pantaila pasa nahian kontraesanetatik pasa gabe eta zauririk batere gabe. Eta iruditzen zait feminismoan ezin dela horrela, denok dauzkagula gure minak, gure kontraesanak, hanka sartu dugula mila aldiz eta gainera ez dagoela egia bakar bat. Joaten zarela ertz diferenteak ikusten. Batzuetan menperatua zarela besteetan zuk menperatzen duzula... Eta boterea zure kontra etorri daitekeela, zuk ere erabiltzen duzula.

Txapelketan bereziki iruditzen zait badagoela halako *eskaparatean* jarri nahi bat batez ere gizon bertsolari jatorrenenen aldetik. Ikusi ezazue nik zer ondo egiten dudan! Ez daukat mantxarik. Ez didazue topatuko mantxa bat ere!”.

4.5. Umorea txapelketan

Alberdiren bidez txapelketa aipatu dugu dagoeneko eta ondoren datorrena da elkarrizketarekin izandako berbaldien muina, aurretik esandako guztia Txapelketaren marko espezifikoan kokatzen ahaleginduko garena. Hasteko, umoreak txapelketan duen lekuaz mintzatuko gara, plazaz plazako ohiko jardunean duenarekin erkatzeko asmoz. Gainera, umorearekin lotzen diren ariketak nahiz gaiak izango ditugu mintzagai. Bukatzeko, aztergai dugun txapelketan eztabaida eragin duten zenbait bertsoaldi konkretu aztertuko ditugu elkarrizketarekin esandakoen laguntzaz.

“Graziosoak ez du inoiz irabazten”

Txapelketan umoreak duen lekuari buruz galdetuta, Colinak jendeak estimatzen duela

dio, baina tranpa moduko bat ikusten duela ere gaineratzen du:

“Jendearentzat txapeldunak umorea egin behar du baino *graziosoak* ez du inoiz irabazten. Tristeia da horrela esatea baino denok daukagu buruan Euskal Herriko txapeldunak pertsona serio bat izan behar duela, umorea egiten ere jakin behar duen arren.

Nik uste dut hori errealitate bat dela. Eta gainera *inkluso* jende horri esango zaio “ez dela Txapelketako bertsolaria”. Txapelketako bertsolaria ba... *eztakit* pa! Emaitzek ez dute hori erakusten”.

Sarriegik ere ezberdintasun nabarmenak hautematen ditu txapelketako saioen eta ohiko plazen artean:

“Txapelketan –niretzako- diferentea da bertsolarien jarrera eta entzulearena ere bai. Txapelketa pasa berritan jendeak espero du, adibidez, plazara joan, bakarka gai bat jarri eta Txapelketakoaren antzeko emaitza bat. Baina gainontzeko baldintza guztiak ez dira ematen. Jendea ez dago prest bi minutu itxoiteko. Ez dago isiltasun bera. Ez dago tentsio bera. Ez dauka transzendentzia bera hango lanak. Orduan baldintza guztiak ez dira ematen eta, beraz, emaitza berdina ezin da espero.

Eta nik uste –adibidez- gai jartzaile taldetik egin izan direla eta egiten direla ahaleginak denok buruan daukagun muga horiek edo kortse horiek pixka bat aldatzeko. Baina kezkatzen nauen zerbait da askotan ez dugula edukitzen aukerarik geuk erabakitzeko noiz hartu nondik Txapelketan. Eta askotan jokatu egin behar duzu horrekin. Ondo ikusia izango al da hau umoretik hartzea?

Bakarkakoetan igual barkamen gehiago ematen zaigu. Baina, nik gogoan daukat Iruñean Unai Agirre eta biok anorexiaren gaiarekin⁷¹.

Alberdik ere bereizketa argia egiten du txapelketako markoaren eta plazako jardunaren artean:

“Nik uste Txapelketan denok sentitzen duguna dela *fortzatua* dela. Eta neurri batean guk onartzen dugun paktu horrek zilegitzen du nolabait, baino bestela niretzako da *inkluso* biolento samarra. Badaudelako ariketa konkretu batzuk umorea exijitzen dena eta gainera gaia ere kanpotik dator, gainera hiru bertsotan agortu behar da. Orduan horrek ez dizu uzten, nire ustez, umorearen osagaia oso inportante bat den bat-batekotasuna edo *espontaneidadearekin* sortzen.

Umoreak berez balio du askotan zerbait askatzeko dagoen botere harreman bat

⁷¹Aurrerago, bertsoaldi hautatuen azterketa burutzerakoan berhartuko dugu Sarriegik aipatutako bertsoaldi hau.

iraultzeko edo zuk barruan daukazu blokeo bat korapilo bat askatzeko. Orduan, han, Txapelketan gehiago da ariketa bat ebatzi beharrekoa. Beste denak bezala.

Txapelketako testuinguru aseptiko ia-ia lixibarekin garbitutako *Neutrex Delicada* horrek ez du asko laguntzen askatzen eta lasaitasunetik umorea egiten. Horrek gehi aurrera pasa nahiak.

Nik uste plazan denok goazela batez ere -esango nuke- *a priori* baita ondo pasatzera ere. Baina iruditzen zait Txapelketaren testuinguruak berez garmatzala umorearen kontrakora, hau da zurruntzera. Batere graziarik egiten ez duen testuinguru bat da”.

Jaialdietan sortzeko askatasun gehiago sentitzen duela ere aitortu digu:

“Jaialdietan askotan zuk gai bat entzuten duzu eta *a priori igual* gai serioa da baina zu kantuan hasten zara eta *igual* hirugarren bertsoan umorerantz jotzen duzu, umore printza bat topatzen diozu. Edo topatzen diozu grazia puntu bat edo beste umore kodigo hori piztu dezakeen hari bat eta hortik tiraka *igual* buelta ematen diozu gaiari eta gaia doa eboluzionatzen.

Txapelketan ez dago denborarik eta umorea egin behar da ahal bada lehenengo puntutik. Orduan, niretzako horrek badakar makinaria behartzea eta gainera iruditzen zait plazan baino oraindik eta bortitzago edo ageriago gelditzen direla bakoitzaren posizioaren aldamiok.

Nola “ya!” egin behar den umorea eta “ya!” *artilleria* guztia deskargatu behar dudana, abiatzen naiz nik ahal dudana botere kuota handienetik. Eta logikoa da. Ehun metroan korrika egin behar baldin baduzu, ez zara hirurogeita hamabosgarrengoa esprintean hasiko. Hasiko zara lehen minutuan. Uste dut bestelako saioak askoz ere karrera luzeagoak direla”.

Alberdik, gainerako saioetan behintzat, umorea bilatzen duenean gorputzaldi bat bilatzen duela kontatu digu:

“Plazan jolaserako aukera dago eta txapelketan ez. Biolentzia gainera hortik dator, egiten da jolasa *performatu* benetan azpian jolas bat ez dagoenean, lehia dagoenean. Eta iruditzen zait plazan aldrebes dela. Plazan jolasa dago eta jolasak eduki ditzake lehia tanta batzuk. Baina proportzioak aldatu egiten dira.

Ez dut nahi edo ez zait gustatzen umorea egitea edo -berdin zait- bertsoan egitea hanka sartzeko beldurrez. Eta adibidez hori bada Txapelketan kakotx artean “molestatu” edo krika-krika egiten didan zerbait ikusten dudalako –eta ni ere hala egon naiz Txapelketan eta egongo nintzakeela iruditzen zait- hanka sartzeko beldurrak edo bai, epai diferenteen beldurrak askoz pisu handiagoa daukala plazan daukanak baino.

Igual horrek ere badauzka bi alderdi. Batetik plazan entzuten ditugun hainbat eraso, gehiegikeria edo hainbat diskurtso *ez korrekto* ez dira entzuten. Eta alderdi horretatik garbiagoa da *igual Txapelketa*. Baina nik esango nuke plaza errealagoa dela.

Diskurtsoa: perfektu. Baina, bien! Orduan, zertaz ari gara? Ez dakit zer ari zaizun pasatzen. Ez dakit zer pentsatzen duzun. Ez dakit gai honek nola mugitzen zaituen. Ez dakit benetan elkarrizketa hau benetan balitz, epailerik gabe, kamarik gabe zer pasako litzakeen. Alde horretatik plaza *igual zikinagoa da baina errealagoa da*”.

Alberdientzat publikoa jarrera desberdinarekin joateaz gain, gaur egungo Txapelketan bada pisu handia duen beste sektore bat ere:

“Nik uste publikoa desberdin doala baina horrek baino gehiago pisatzen diela gaur egun bertsolariei bertsokideen eta nolabait epaile errealen eta gero nolabait bertsozale kualifikatu, ikerlari, adituen... iritziak.

Iruditzen zait feminismoak pisua hartu duen bezala, bertsolariek publiko orokorra baino gehiago zeukatela buruan Kattalin Miner bat edo *twitter*-en honetaz hitz egingo duen norbait. Edo gai horren inguruan autoritatea eduki dezaken jendea.

Bestela –iruditzen zait- beste publikoa, publiko orokorra, plazetakoaren antzekoa dela nahiz eta jarrera diferentea eduki diskurtsoarekiko. Beste gauza bat da mailarekiko. Iruditzen zait hobeto egin nahi duela bertsolariak Txapelketan publikoa bere bertso mailari, teknikari eta hutsegiteei askoz ere adiago dagoela eta horrek ere estutzen duela.”

Alberdik mahai gaineratutako gaiak geldialdi bat egitea eskatzen du nahitaez, sare sozialei buruz hitz egitea komeni baita jarraian. Ibarzabalentzat sare sozialena modu bat izan da, “ez oso fidagarria” izan arren, jendeak zer komentatzen duen jakiteko:

“Aurreko txapelketetan antzerako proiektzioa izan dute hedabideek. Baina sare sozialek eman diote egonkortasun bat. Ez da *Berrian* zutabe bat irten da atzo eta gaur inork ez dauka. *Retwiteatzeak*, esaterako, onerako zein txarrerako sentimendu batzuen iraunkortasuna luzatzen du. Eta seguraski Txapelketako bertsolari denak beldur batekin sartu gara *twitter*ren.

Lehen posible zen saio ostean geratu tabernako elkarrizketan “ez zait gustatu Nereak egin duena baino...” Orain tabernakoa gehi hori. Kriston interesantea da hori eramaten jakitea. Ni ez naiz oso kapaza oraindik edo ikasten ari naiz oraindik. Gure sorkuntza publikora ateratzeko prest gaude baina ez gaude prest gero iritzia entzuteko.

Patxi Bakalloren kasuan gertatzen da ia anonimotasuna ia beste gai bat da, e! Tabernako

elkarrizketatan ere horrelako jendea badago. Orain dago *twitter*.”

Alberdientzat sare sozialek denean eragin dute, bai bertsolariei eta suposatzen duenez, baita epaileei ere:

“Azkenean zarata hori hor zegoen eta *Patxi Bakallo* entzun dugu bertsolari askoren izena baino gehiago. Orduan bai iruditzen zait aztertzea dela eta pisu handia eduki duela.

Nik inguruko lagun bertsolariak bai sentitu ditut bukatu orduko ea sare sozialetan beraietaz zer esango zen jakiteko beldurrez. Eta adibidez hanka sartzearen beldur handienetako bat zen sare sozialetan hori nola kudeatuko zen.

Ez da gauza bera tabernan esaten badizute, ez? “Jo! Baina hor zer esan duzu?” Ze jende askok ez lizuke esango aurpegira beldurratik. Baina sare sozialetako zarata eta zutaz eraikitzen den irudia eta esaten dena hori dena kontrolaezina da”.

Berriozabal amorratu samar agertu da sare sozialetan jazotako zenbait gertaeren aurrean:

“Nik hitzarmena sinatu nuelako, ze bestela... Momentu batzuetan burua berotzen zaizu. Iruditzen zait dela munduko tresnarik *marabilosoena* baina arrisksuena.

Umore moduan nik uste saiakera guztiek ez dutela balio. Baina balio du. Inork ez du zentsuratzen. Ez dago hor inor ezer esateko. Gai jartzailtza ikuspegitik mamuak sortu dizkigu. Txapelketa sortzen doan prozesu bat da. Guk ez dugu diseinatzen irailak batean eta gero uzten dugu solte eta esaten dugu: “aber zer pasatzen den!” Ez, gu goaz saioz saio egokitzen, moldatzen, zuzentzen. Hori ere izan da *komponente* bat gure jardunean eragin duena.

Iruditzen zait hori dena esan behar dela baina ez dakit hori den momentua eta modua. Baina klaro, nola hemen denak garenez iritzia emateko nor. Adibidez *Patxi Bakallorena* iruditzen zait *un desastre absoluto*... Umoreak dauzka bere mugak. Eta *Patxi Bakallo* da mugatik kanpo dagoen pertsonaje bat.

Igual hemendik 60 urtera egongo gara egoera batean non grazioso izango den. Uste dut *Patxi Bakallo* bezalako *pertsonaje* batek egingo duela grazia hori normala ez denean. Lejitimitatea eman zaion pertsonaje bat izan da eta euskal prentsak aipatu duena.

Argazkiaren aukeraketatik hasita: Gizon, zuri, gipuzkoar, hegemoniko, ganorabako bat, txiste merkeak egiten eta jendeak erosi dituenak. Eta, zenbat jendek irakurri du?”

Sarriegik aurreko galderari erantzuten dio sare sozialek horrenbesteko eragina izan izana zalantzan jarriz. Bere arabera, uste baino dimentsio gutxiago du sare sozialak

kontuak.

Colinak, aldiz, existitzen den zerbait denez inportantzia eman behar zaiola aldarrikatzen du, baina, era berean, ez du uste “ematen zaion inportantziaren laurdenik daukanik”.

“Ez zara ahazten non zauden”

Ibarzabalentzat, sare sozialetaz haratago, publikoan dagoen jendeak ere eragin zuzena dauka:

“Askotan ez dakigu ze jende dagoen Txapelketako publikoan. Oso irakurketa zaila da. Zuk gutxi gora behera badakizu gaur joaten bazara Zaldibiara kantatzera *soziedadera* edo Lasarteko Gaztetxera, badakizu zeini kantatuko diezun. Baina Txapelketan da... badakit dagoela sektore bat *a muerte* zurekin.

Askotan aipatzen dugu bertsolaritzaren mugimendua eta hemen dago jendea elkar ikusi ere ez duguna. Orduan umorearekin berdina pasatzen da. Eta esaten duzu, zerk funtzionatuko du hemen? Nahi dudana egin nahi dut baina ulertuko duena publiko honen bi herenak behintzat.

Termometroak bost punta behar ditu! Epailak, telebistatik ikusten daudenak, zure lagunak eta gero bost aitona edo esaten dutenak: aber zer egiten duen neska horrek”.

Markinako bertsolariak muga bezala bizi du txapelketan ariketa konkretu batzuetan umorea nahitaez egin behar izatea:

“Umoreari lotuta ariketa batzuk baino ez daudenez, plazan baino askoz leku gutxiago dauka umoreak txapelketan.

Jendea bai egoten dela eskatzen. Iruditzen zait zortziko txikiaren atala hasten denean sentitzen dela horrelako zirrara bat. Zerbait sakratua apurtzea da bestela. Argi daukagu zortziko handia pixka bat hartzen baduzu arinagotik edo beste modu batean alferrik galduta dagoela. Orduan umorea mugatzen da zortziko txikira eta puntukako edo koplatako ariketara. Eta bakarka ere alferrik galdutako ariketatzat jo liteke umoretik hartzea.

Umoreak erritmo bakar bat baleuka moduan da⁷², eta justu erritmo horretan ez bazara aski ona, galdu egiten duzu umorea zure modura egiteko aukera. Hau da, puntuka,

⁷²Azkartasunarekin lotzen den arren, umorearen erritmoa pausatuagoa ere izan diateke berez. Aitor Mendiluzek nabarmenki azkarrago kantatu zuen Durangoko finalurrekoan. Julio Sotok ere egin izan du hau, puntu-erantzunetan adibidez.

emakume asko eta askoren *handicap* eterno hori.

Derrepente hemen egin behar dut umorea. Dazkat bost minutu txapelketa osoan eta hemen egin behar dut! Dago oso zurrun! Kasualitatez *ebidentemente*, zein da ona umore mota horretan? Erantzun azkar horretan zein dago ohituta? Aitor Mendiluze, Unai Agirre... Ez da kasualitate bat.

Zortziko handi bateko gai serio batetik zator eta, bale! Orain umorea. Ez dizu ematen margen bat saio libre baten moduan esateko: "hartuko dugu umoretik. Edo hartuko dugu seriotik." Ez. "Ala! egin ORAIN umorea, hiru bertso dauzkazu hori egiteko." Eta, hor ezin zaizu ezer irten. Ezin da. Askotan moldeetan sartzen gara gure sorkuntzaren aurka".

Sarriegik, txapelketako umoreaz galdetuta, kolpeei buruz hitz egiten du:

"Asko jokatzen da. Hiru kolpe, bereziki zortziko txikian. Ni akordatzeko naiz lau Txapelketak izan direla, lau bertso zortziko txikian zirenak –ez hain aspaldi gainera-. Eta asko aldatzen da antolatze *txip* hori: gehiago joaten zara *igual* elkarrizketa bila edo plaza baten bezala. Zeren zaila da lau kolpe garbi edukitzea hasieratik. Plazan *inkluso* doblea, seiko egin dezakezu ofizio bat, ondo baldin badao".

Colinarentzat ere, gainerako elkarrizketatuentzat bezalaxe, testuingurua hain mugatua izateak (epaitzen den marko batean eta hiruna bertsoan) zuzenean eragiten du bertso jardunean:

"Tiroak. Igual plazan jendeak beste jarrera bat dauka erantzuteko-edo baina txapelketan tiroak, jo behar hori. Jo beharra. Zer esan nahi du horrek? Baina sortu dugun hizkuntza arraro honetan ba hori!

Nire ustez umoreak funtzionatzeko aurretik zerbait behar du. Oso zaila da zeretik saio bat lehertzen. Era berean saioa lehertu eta gero oso zaila da hurrengoan are gehiago lehertzea.

Eta hori da Txapelketaren *kortseta* nire ustez. Plazan ikusten baduzu aurrekoek *trunfatu* dutela zortziko txiki bizi-bizi batekin eta zuri jartzen badizute gai alai bat baina ikusten baduzu ia erregistro horretan eginga dagoela, igual hartzen duzu beste doinu bat eta probatzen duzu beste zerbait. Eta ez da ezer gertatzen. Txapelketan behartuta zaude.

Hiruko muga hori izateak laguntzen du, gainera, estereotipotik are eta gehiago kantatzera. Hau da, zuk daukazunean garatzeko tarte gehiago ez dakit zenbat bertsoan marraztu ditzakezu pertsonaiak eta beste modu batean...

Bai, eredu horrek zenbat eta *enkorsetatuagoa* izan asko zailtzen du arnas berri bat *aportatzea*. Txapelketan, zoritxarrez, nire ustez zortziko txikia ez da arriskatzen den

terreno bat. Jendeari entzungo diozu bakarkakoak landu dituela, puntu erantzunak landu dituela, hamarreko txikia. Baina inori ez diozu entzuten zortziko txikia landu duenik”.

“Ariketa zehatzetan espero da umorea”

Ariketei buruz galdetuta denek egiten dute bat erantzunetan. Sarriegik honela laburbiltzen du arestin han-hemenka errepikatu dena:

“Tarteka tokatzen da pixka bat besteen *terrenoa apropiatzea* baino bai, hala daukagu buruan. Zortziko handia, hamarreko txiki, seiko motza: serio. Zortziko txikia, puntutan: umorea.

Eta gainera puntutan egin dezakezu kriston saioa umore askorik gabe baino jendeak baloratuko dizu espero duen hori. Bestela, oso ondo egin behar duzu espero ez duen zerbait baloratzeko. Eta hori bertsolarien baitan ere badago.

Orduan jendeak zuregandik espero duena⁷³. Edo jendeak espero baldin badu zerbait oso serioa norbaitengandik gai serio batean eta *derrepente* ematen dio umore buelta bat eta, ostra! Edo oso ondo egiten du, edo arriskutsua da.

Hausten duzunean funtzionatuko duela badakizun horrekin umorea izan baino lehen da *txokantea* den *zeozer* eta jendeak ez duela umore kontsideratzen. Tokiz kanpo egindako zerbait bezala da”.

Berriozabalek gai-jartzaile ikuspegitik honela ikusten du:

“Nik uste dut umoreak behar duela beste buelta bat eta askoz genero konplikatua dela. Orduan txapelketan esango nuke batez ere betiko moduan estruktura onartuetara jo dugula. Zortziko txikia da umorezko ariketa bat. Puntutako ariketa da umorezko ariketa bat. Eta koplatako ariketa da umorezko ariketa.

Bertsolaria ere kontziente da zortziko txikia heltzen denean umorea egin behar duela eta horrek presioa suposatzen du. Baina gu ere kontziente gara ariketa horretan bai ala bai umorea egon behar dela. Ez dakigu non idatzia dagoen hori, baina hala da.

Eta adibidez zortziko handi batean segun ze gai den umorea egin ahal den ala ez ahalegindu gara gauza batzuetan ez ekiditen baina ez dugu sustatu. Sarriegi batek, esaterako, bakarkakoetan umorea egiteko apustua egin du.

Baina kontziente gara bertsolarientzako txapelketaren markoaren barruan umorea

⁷³Aurrez aipatu dugu Zubeldiaren kasua. Aipagarria da helduen bertso-eskoletan umorearen inguruan emandako ikastaro guztietan galdetu dudala hasieran burura etortzen zitzairen lehen bertsolari umoretsuaren izena esateko eta gehien errepikatu dena, diferentziaz, berea izan da.

egitea oso zaila dela. Ez dakit, bertsolariak berak ere zenbateko ahalegina egin nahi duen txapelketan umorea egiteko. Ez dakit guk zenbateraino bultzatu behar dugun umorea egitera. Bai publikoak nahi du. Baina guretzako inportanteena Txapelketan bertsolaria da. Publikoa ere bai –eta egia da aintzat hartzen dela- bestela bestelako ariketa batzuk egingo ziren igual zuentzako erosoagoak. Baina aldi berean niretzako hor zaindu behar dena bertsolaria da”.

Era berean, Alberdientzat egia da esperotako ariketetatik kanpo egindako umoreak badaukala “plus” bat asmatuz gero, asmatzea zailagoa dela badakigulako.

“Gaien aldetik ere mugatuta sentitzen gara”

Doinukera bera ere muga izan daitekeela kontatu digute, normalean zortziko txikirako doinukera jakin bat baliatzen baita, oso bizia, oso kolpera bideratutakoa, errepika duena... gainera, gaien aldetik ere sentitzen dituzte mugak betsolariet, Egañak azaldu moduan:

“Nik uste txapelketan gertatzen dela gauzarik murrizgarriena. Eta da gai jartzaileek ere erabaki egiten dutela zein gai izango diren umoretsuak eta zein ez. Gaia entzun eta jendeak barre egiten badu, *malo*.

Jada bultzatu zaitu horra eta gainera ez duzu *kontzebituko performance* horretan bere gainetik egotea. Gai jartzaile taldeak jarri du gaia denborarekin eta grazia egiteko baina ez grazia gaia berak, gero letorkeenak. Eta gero letorkeena ez da behin ere iristen maila horretara. Hori triste da”.

Gaiei dagokienez, Berriozabal izan da gai-jartzaile taldeko kidea eta berak eman digu lan honen berri:

“Ez da berdina gaiak zuk bakarrik ipintzea edo talde batek. Hori abiapunturako. Askoz ere aberasgarriagoa da taldean lan egitea baina alde berean taldean sintonia bera ez badago oso lan nekeza da gauza jakin batzuk adostera heltzea. Txapelketan gai jartzaileontzako arazo handietako bat da adostasuna. Eta uste dut horrek eragiten duela gero ere: kalitatean, gaien tematiketan, etab. Badaude, gainera, kontrolatu ezin ditugun gauzak: zozketa bidez erabakitzen da nork zer ordenetan kantatuko duen eta norekin tokatuko zaion kantatzea. Gaiak, beraz, ezin dira pertsona batentzako egokitu.

Gai-jartzaile taldean aurrean izan gara hemezortzi edo, astakeria bat! Eta bakoitza dator bere lanketa pertsonalagaz. Hori ez daukagu landuta. Eta horrek ekartzen du edozer gauza eraiki behar izateko *pelma* sentsazio handia daukazula. Garrantzitsua da ohartzea ze abiapuntutatik ari garen gaia jartzen. Eta ez da bakarrik gaia bera. Izatea kontziente gaia dela *detonante* bat gero etorriko den *bonba* batena.

Kriston boterea daukagu gai jartzaileok. Nik uste dut askotan bertsolaria ez dela kontziente zenbat lan egin beharko lukeen gu manipulatzeko.

Jende askoren artean lan egitearen ekarpena da... Ez da homogenea eta hori ona da. Baina heterogeneotasun hori izan beharrean marra batetik gora da heterogeneotasuna bere horretan: bizi gara politikoki zuzena den jendarte batean eta ez da hain nabarmena diskurtsiboki”.

Umorea zeri buruz egiten den galdetuta, gai edo egoera erridikuluak aipatu dituzte elkarrizketatuek eta jarrera kritikoa agertu dute oro har. Colinak, esaterako, honako kritika plazaratu du:

“Ez dira ez gaiak, ez egoerak! Pena handia ematen dit zortziko txikiko horiek gaiak ez izatea eta hain umorera bideratuta egoteak ariketa eramaten gaitu hasiera hasieran aipatzen nizun umore zuri konbentzional hori egitera. Ari gara betiketuzen gauzak”.

Berriozabali bere ikuspegiari buruz galdetuta, umorea “betiko gauzen inguruan” egin dela baieztatzen du:

“Nik sentrazioa daukat ez dela asko berritzen, Txapelketan batez ere, ez dela askorik arriskatzen. Eta ez dela ideia berririk ekartzen. Eta bi gauza argigatik da. Alde batetik ez dakizulako funtzionatuko duen. Baina beste alde batetik eske... *kriston desmadrea* muntatu liteke txapelketan.

Desmadre ideologikoa ere bai. Eta gu askotan gara oso kontserbadoreak ze askotan aitzakia oso ona da edozer gauza entzuteko. Momentuan bertsolariak daukalako segundu batzuk eta super kontziente gara, niri ematen didan moduan barregura eman behar ez didanak, ba beste pertsona bati irteten zaio irten behar ez zaiona.

Nik uste dut ahalegintzen garelako alde batetik betiko gaiak ez ipintzen. Baina uste dut askotan betiko gaiak ipintzera jotzen dugula. Niretzako plazer bat da gure gaiak ez izatea oztopo. Nik uste hori izan behar duela gure helburua. Gure gaiak ez suposatzea pertsona bati kantatzea *kortse* baten barruan.

Gure sortzeko prozesua da: ekartzen dira gaiak, bakoitzak ekartzen ditu bere gaiak bere imajinario pertsonaletik eta gero ahalegintzen gara *tematikak* ez *koinziditzen*. Tematikak ezin dute *kointziditu* zortziko handietan, ez zortziko txikietan, ez pertsona horri ez rol bera ez *ez daki tzer*.

Egia da askotan, txapelketaren ehuneko ez dakit zenbateko baten, harremani buruzko gaiak izaten direla. Ahalegintzen gara harreman hori ez egotera estereotipatuta guztiz non kantuan tokatzen direnak ez izatea gizon emakumeak eta justu emakumeari tokatuko zaio guk nahi ez dugun rola. Eta gero gainera hortik eraikitzen dena kontziente

izan da kriston arriskua dagoela entzuteko nahi ez dugun gauza bat. Eta entzun nahi ez dugun hori ere ez dago landuta. Hor mugitzen gara”.

Alberdientzat zortziko txikiko txapelketako gaiak ez dute aukera handirik ematen:

“Badakit oso zaila dela, e! Maite⁷⁴ entzunda errudunago sentitzen naiz gaiak kritikatzeko, baina... Jo! Ba, askotan Txapelketan kasuan justu berdindu beharrak paperak eta *personajea* hiru bertotan eraiki beharrak ez du laguntzen.

Personaje gaizto bat, adibidez, ai ama! Zer kantatuko dugu hortik? *Klaro* Txapelketak eskatzen duen neutraltasun horretan gertatzen da: zure txakurra joan dela txiza egitera eta egin diola besteari hankara eta, beno ba oso ondo.

Eta gero aparte, oraingo Txapelketan oraingoan eta beti, zenbat erreferentzi nekazal munduari! Gure eskuetan dago ere euskaltasuna definitzea eta eraikitzea eta iruditeri konpartitu bat. Baina ez daukagu denok baratza bat! Eta hiritarrak daude. Bilbon bizi diren pertsonak. Euskal Herri asko gaude hemen”.

Ibarzabalentzat ere gure egunerokotasuna kantatzen dena baino askoz anitzagoa da. Baina askotan aniztasun horri buruz kantatzeko beldurra sentitzen dugu, ez dakigulako kodea ulertuko den ala ez. Zentzu honetan, gaien aldetik, Txapelketako baldintzek euren ere ez dute baimentzen “oso aske hegan egitea”, eremu neutro bat sortu nahi izateak:

“Niretzat umorea da gehiago pintzel fin batekin ertzak ateratzea bestela, ezta? Eta ez dago horretarako margenik. Juxtu neutraltasuna bilatze horretan gauza oso orokorrean buruz kantatzeko eskatzen da. Orduan ez daukazu tarterik ez zure *personajea dibujatzeko*, ez perfil bat ateratzeko, plazan badaukazuna. Eta jausten gara ere politikoki *korrektotasun* horretan.

Ipini ia karga bat gaiari eta egin hortik barre. Horrela pixkanaka geu ere hezi eta jendea hezten badugu politikoki *korrektotasun* horri beldurra galduko diogu, gauzak esateko beste modu bat pentsatuz. Doble efektua dauka niretzako.

Deseraikitzea edo *inklusio* batzuetan mozorrotzea sistemaz edo gaiztoz eta mozorro horretatik zeu autosuntsitzea. Horrek daukan indarra!”

Alberdientzat, bestalde, zeri buruz kantatu baino zein testuingurutan kantatu den da garrantzitsua, aurrez esan dugun moduan, testuingurua bera behartua delako:

“Pintorea, lore-saltzailea, etengabe gauzak eskatzen dizkion auzoa... Haserrea eragin

⁷⁴Berriozabal.

dezaketen harremani barre egitea edo horrek grazia egiten digula kanpotik ikusita. Giza harremanen talkak. Sexu eta *ligoteo* gaiak hor jarraitzen dute.”

Berriozabalek ere bat egiten du aurrekoarekin eta bere hitzak dira ondokoak:

“Nik uste dut txapelketa bera dela euztektura oso zurruna, Bertsozale Elkartearen markoaren barruan.

Sentsazioa daukat bertsolariak zaretela *feliziano* batzuk uzten dituzuenak zuen borroka ideologikoak eta zuen gaitasun teknikoak jende talde baten esku. Eta jende talde hori izan daiteke hau edo hori. Eta etorri ahal da urte batean super ahaldunduta eta beste batean ez. Eta hor nik bai bota dut faltan muga ez izateko *igual* bide *koneksuen* beharra. Epailtza beste mundu bat da eta dauzka bere mugak eta gu gai jartzaileontzat kriston muga da epailea, plazan sartzen ez den figura bat. Eta ez dugu nahi bertsolaria *puteau*. Ipiniko dugu gai bat super progrea? Klaro! Eta gero ez badaki kantatzen? –Ah, baino jakin behar du!

Nik uste dut zentzu horretan geroz eta erantzukizun gehiago aitortzen zaiola gai jartzaileari egiten duten lanean. Onerako eta txarrerako. Ipintzen dugunean gai bat, zer puntura arte arriskatu behar dugu bertsolaria bera izateko diskurtso berritzaile batekin datorrena eta irauliko duena gaia. Eta *igual* gai jartzaileek askoz sinpleagoak izan behar dute eta askoz: gaia da gaia eta horrekin egiten dena bertsolariaren erantzukizuna da. Baina ez dut uste horrela denik”.

Txapelketa Nagusiko zenbait bertsoaldi aurrez aipatu badira ere, hurrengo orriotan tentsioa eragin dutenak edo ikergaiaren aldetik interesgarri zaizkigunak banan banan aztertzea dagokigu:

1. Ibarzabalek begiak estali zituenekoa

Txapelketan sonatua izan da Ibarzabal eta Nahikari Gabilondok Zumaian zortziko txikian osatutako bertsoaldia⁷⁵, hain zuzen ere, goxokiak lapurtzen ari zen umearen paperean Ibarzabalek begiak esatalita kantatu zuelako bere bigarren bertsoa. Protagonista izandako Ibarzabalek berak kontatu digu honakoa:

“Uste dut Txapelketan ez direla oso ondo ateratzen umorezko gauzak. Ez dakizulako zenbat arriskatu *pedrada* bat askatzen, plaza batean duda barik askatuko zenukeena. *Igual* niri oraingo Txapelketa ez zaidalako hainbeste inporta eta begiak itxita zoaz mikrofono aurrera. Baina imajinatu jarraitzen badut bertsoan eta zortzi urte barru nahi badut finalean sartu *igual* ez nuke egingo”.

⁷⁵Ikus. “Eranskina2” 1.bertsoaldia.

Ibarzabalek Txapelketaren pisuaren adierazgarritzat du Zumaiakoa, argi baitu Txapelketan hori egin izanak “graziosaren etiketa” jarri duela beragan:

“Zergatik derrepente graziosaren etiketa? Pentsa zenbateraino, argazkia zenbat zabaldu zen! *Patxi Bakallok* idatzi zuen “Markinako erbiak” ez dakit zer... Egin nuen behin! Besteetan ez dut egin. Pentsa zenbaterainoko karga daukan Txapelketak! Onerako zein txarrerako”.

Alberdik honako irakurketa egiten du Zumaia bertsaldia inguruan:

“Transmititzen zuen askatasun bat *Ez da Kasualitatea* batean *perfektamente* izan zezakeena. Niretzako beste leku batzuetan entrenatu, probatu edo esperimentatu izanak gero ahalbideratzen dizu Txapelketako testuinguru horretara ere eramatea.

Batetik da hori beste leku batzuetan esperimentatu izana eta bi lehenengo Euskal Herriko Txapelketa. *Ez dakit* hemendik bi urtera eta lau urtera, zortzi urtera jendeak, sistemak, exijituko liokeenarekin behar bezain aske sentituko litzakeen hori egin ahal izateko”.

2. Iguaranek eta Artetxek doinu pausatuegi bat hautatu zutenekoa

Oihana Iguaran eta Miren Artetxeren Durangoko zortziko txikiko bertsaldia⁷⁶ daukat txapelketara umore mota ezberdin bat ekartzeko ahaleginaren adibidetzat. Berriozabalek ere bat egiten du nire ustearekin:

“Umore batzuk sortzeko eta egon dira ahaleginak baina uste dut oraindik publikoa gauza batzuetarako ez dagoela prest. Baina horrek ez du esan nahi egin behar ez denik.

Baina bai uste dut egon dela aldaketa bat. Ze... ia niretzako bakarrik sortu den eztabaida eta harrotu diren hautsak garrantzia eduki duelako da. Eta gai jartzaileen artean bertan, zenbat eztabaida eduki dugun gai horren inguruan! Duela lau urte hori ez zegoen.

Durangon hor egon zen ahalegin bat. Baina hori da. Eurei ez zaie falta txispa. Txispa publikoari falta zaio. Baina, zelan hezi?”

Colinak ere bat egiten du aurrekoarekin, aipagai dugun bertsaldia seguruki aski beste giro bat eskatzen zuela azpimarratuz, “fokoetatik hasita”:

“Aukera inteligentea zen niretzat. Ez du funtzionatzen horrela. Horrek ez du esan nahi ez denik eraman behar. Nik uste eraman behar dela eta seguraski limatu beharko da handik eta hemendik funtzionatu dezan hegemonian. Baina ez dago urruti

⁷⁶Ikus. “Eranskina2” 3. bertsaldia.

funtzionatzetik”.

Berriozabalentzat, Zumaiaiko aurreko adibidean bezala, bi bertsolari hauek aurretik beste eremu eta kodigo batzuk konpartitu izanak lagundu zuen hegemonikoagoa den txapelketako plazara saiakera hau ekartzerako orduan:

“Nik uste dut zure burua ez baduzu entzun horrela inoiz, ez duzula horrela kantatzen Txapelketan. Ez diozu zure buruari permititu *topless* egitea zure herriko *plai*an, ez duzu paseatuko Kontxatik *topless*en domeka eguerdi batean. Nik uste dut ahalduntze prozesu bat badagoela. Azkenean da *esposaketa* maila oso handia Txapelketa.

Zure puntuazioak daude jokoan. Puntuazioen ondoren zure plaza egon daiteke jokoan, zure ospea, zure psikologoaren orduak... Zure mila gauza. Eta gero gainera nahi duzu *aportatu* eta marka bat utzi. Eta, nik uste horrelako arrisku bat hartzen duzula ez denean hain arrisku. Benetan sentitzen duzunean terrenoa maneiatzen dut. Eta hori da terreno bat oraindik ez dagoena hain esploratuta, txapelketa honetan hori ikusi da”.

Jardun dugu dagoeneko zortziko txikiari “dagokion” doinukeraren inguruan eta Berriozabalek dioten eran, aipagarria da Artetxe eta Iguaranek horrekin hautsi zutela:

“Doinua ere aukeratu zuten⁷⁷. Justu biak zeuden, niretzako egon zen oso gertu *Ez da Kasualitatea* batetik edo behintzat saiakeratik. Eta hor ez zuen funtzionatu.

Ez zuen funtzionatu *inkluso* Mirenenak. Eta Miren oso ondo egon zen. Esan nahi dut ez zuen funtzionatu Unai Agirrek potoloarena kantatu zuenean bezala. Ez dakit. Niretzat momentu horretan izan zen: Ai ama! Kristona ari da egiten baina ari da beste modu batera, orduan jendeak ez du... Hori doinua erabaki zutela seguruen, daukan historiagatik beste saio batzuetan eta beste plaza batzuetan. Duda barik.”

Alberdik ere aitortu digu ikaragarri gustatu zitzaion umorezko saioa geranioena izan zela:

“Iruditzen zait Txapelketatik kanpo dabilen giro feministetan umorea noraino joaten den, batzuk ezin dutela imajinatu ere egin.

Lehen goan egin zuten *Errekaleorren* Saioa Alkaizak, Miren Amurizak eta Miren Artetxek koplatako saio bat jende artean. Bikotea ziren eta trio bat egin nahi zuten eta aukeratu behar zuten... Eta, kriston saioa!

Momentu batean zen *bollerismoaren* barruko txisteak. Nik *pelilarga* bat nahi nuen baino ez dago erraza. Hauek dira hemengo *blackblooka*. Kriston txiste pila. Eta konparatzen

⁷⁷Patxi Bakallok saioan bertan kritikatu zuen *twitterren* doinuarena eta Iguarani bertso-eskolako kideek ere esan zioten ez zutela doinuarekin asmatu.

nuen segur aski –guk gehiago ikasi ditugu, gehiagotan egon garelako baino- baserri giro itxiko umore klase bat.

Zuk ez dakizu zer den *rotabatorra* eta horrekin txiste bat egiten dizute. Oso ondo ulertzen dut hor ondo funtzionatzea zeren da beraien egoera. Eguneroko hitzekin, eguneroko errealitatetik sortzen den zerbait. Eta hori Txapelketan... Eske ez dago denborarik. Ez dago espaziorik.

Bizkaikoan *Bolliviaren*arekin pasa zen. Badagoela nik uste *igual* esparru handiago bat eta sareak badakarrela hori, *igual* publikoaren ehuneko ehunak ez baino, badago publikoaren ehuneko hamabost bat oso ondo ulertuko duena, ez? Eta momentu batean sakrifikatzen dut ehuneko ehuna eta kantatuko dut horientzako eta niretzako hemendik. Aldi berean bakarrik begiratzen diogu honi emakumeen artean baina gizonek gizonen artean daukaten konfiantza berdina da. Puntukako saio batean Unai Agirre eta Mendiluze tokatzen direnean, ez da bakarrik teknikoki elkar ezagutzen dutela da mila aldiz kantatu dutela elkarrekin horrela. Orduan aurre lan horrek beste umore klase bat sortzen du. Eta gainera beraiek daukaten *bentaja* da jende askok ikusi dituela batera kantatzen aurretik. Nik badakit zurekin kantatu dudala ahalduntzen baina, zenbat jende ikusi gaitu?”

3.Sarriegiren bakarkakoak⁷⁸

Lehenago esan dugun bezala, txapelketak umorerako eremu edo ariketa erreserbatuak dauzka. Sarriegi izan da, ordea, entzuleari sorpresa eman eta bakarkako ariketetara ere umorea eramateko ahalegina egin duena. Berriozabalek hitz hauen bidez eskertu du bere lana:

“Nik maite dut bere burua biluzten duen jendea eta uste dut Aitorrek egin duela lan polit bat horretan. *Igual* oso gauza sinplea eta orain berrogei urte grazi bera egingo luketen gauzak kantatu zituen baina niri oso barrutik eta oso absurdotik, asko gustatu zitzaidan bertsokera bat izan zen. Gainera bakarkako ariketan *arriesgada* bat”.

Ibarzabalek ere ez dio meriturik kentzen Sarriegiri baina umorea sortzeko legitimitatea aurretiaz nork daukan planteatzen du. Bestela esanda, Sarriegiren bertsoak emakume batek kantatu izan balitu, adibidez, berdin funtzionatuko ote luketen:

“Niretzako daukagu jende asko gure kontra aktiboki: Gure gaiei esker olatu batera igota gaudela eta pribilegio gehiago dauzkagula... Eta seguru ez daukala onarpen berdina.

Amaierako esaldi hori “gazteak zarete eta gozatu dezazuela” hori esaten du Ane Labakak eta... Aitor Sarriegik esanda munduko onena da. Berez bertso teknikoki sinplea da,

⁷⁸Ikus. “Eranskina2” 11. eta 12. bertsoaldiak.

normal bat. Egia da. Gure baitan dagoelako, kanpotik ematen dugun irudi hori. Gizon *soltero*, xelebrea, *potolito*, sexuari buruz berba egiten...

Gero ere zeinek daukan legitimitatea zer esateko. Eske... hain da. Eta noiz lortzen den legitimitate hori eta zeinek lortzen duen. Maialenek dauka. Baina zeinek gehiago dauka nesketan? Gauzak aldatzen hasteko legitimitatea. Eta froga bat egin eta funtzionatzeko eta esateko bale entzun egingo dut askatasunez.

Legitimitatea nola irabazten da? Euskal Herriko bi txapel edukita? Zuk egin dezakezu *kriston* lanketa baina klaro ez daukazu autoritaterik. Beste batek badaukana. Orduan zurea hor geratzen da. Hor genero-sistema sartzen da”.

Sarriegirentzat, lehenago esan bezala, oso garrantzitsua da bertsotan jendeak nola ikusten zaituen identifikatzea:

“Nik beti kontsideratu dut ni *–eztakit* nola esan- nahiko serioa, zozoa. Orduan ba... ez zara sentitzen hain legitimatuta gauza batzuk egiteko edo *eztakit* hartu eta ba! Melena *soltau* eta! Ez?

Eta ni aurten, nik ondo egin nahi nituen gauza batzuk gaizki egin ditut eta jendeak igual beste gauza batzuek baloratu dizkit, umorearekin zer ikusia daukana nik gutxiago espero nituenak baloratzea eta gelditu naiz pixka bat *deskolokatuta*. Zeren nik beste gauza batzuk egin nahi nituen ondo.

Ez zen erabaki kontziente bat izan bakarkako lanetakoa⁷⁹. Irunen bai. Irunen bai Maialenen atzetik nintzelako eta banekielako. Gaia entzun nuen eta honek imajinatzen nuen zer egingo zuen. Eta esan nuen orduan, zerbait oso diferentea egin behar dut. Hori bai. Baina bestela ez. Txapelketako jarrera bezala ez”.

Bertsoaldi honen harira, legitimitatearen gaiari heltzen dio Alberdik ere:

“Hor aztertzea litzateke zenbateraino gure posizioak, hau da, bakoitzaren posizioak, laguntzen edo oztopatzen duen ezarritako eremuetatik kanpo umorea egin ahal izatea. Eta ez bakarrik posizioak baizik bakoitzaren egoera psikologikoak.

Ez zait iruditzen harrizkoa Sarriegik horrelako Txapelketa egin izana. Jada pixka bat erabaki duenean uztea eta pixka bat epai horretatik eta bere karreran zer pasako den beldur horretatik askatu den momentuan, nolabait galtzaile talentudunaren paperetik. Ze... inoiz ez da izan bertsolari arrakastatsuenetako bat baina ikaragarri bertsolari ona da. Jendeak hori badaki eta pixka bat paper horretan sartu denean, borrokatik atera

⁷⁹Doinuaren aukeraketari buruz galdetuta kontatu digu Sarriegik bukaera optimista bat zuen doinu bezala aukeratu arren ez zuela hasiera batean behintzat umorerako doinu bezala ulertzen.

duenean bere burua... Konbinazioa da, ez? Txapelketan ikaragarri baloratzen da teknika eta Sarriegik izugarritzko teknika dauka.

Da nolabait sortu duela *pertsonaje* bat bere baitan, kontraesankorra, eta oso ondo funtzionatzen duena. Ze alde batetik bada, badauka galtzailearen xarma, badauka anbiziorik ez duenaren xarma, langile xumearena. Jefeari kantatzen dion horretan, ez? *Parranderoa*, bere amak larrutan harrapatu zuena...

Gauza sinpleak esatearena, eguneroko bizitzakoak. Ez du saltzen *intelektualidade* bat. Ez du saltzen ikaragarritzko gogoeta. Txapelketan saltzen den beste gauza bat, ez? Ez du hori saltzen baina egiteko modua oso da intelektuala, oso da teknikoa eta da ia perfektua. Orduan konbinazioa da *explosiboa*.

Sarriegik oso ondo betetzen ditu Txapelketaren exigentziak eta Txapelketaren exigentziei traizio egin gabe, badirudi Txapelketako arauak hausten ari dela. Andoni Egaña ere izan zitekeen horren adibide. Aldiz, emakumeetan *klaro!* Gu hezi gaituzten moduagatik baita ere super perfektionista. *Igual* Onintza Enbeita izan daiteke bakarria momentu batean horrekin hausten duena. Baina ez zaio barkatzen ez izatea teknikoki perfektua eta ez izatea intelektualki *hiper brillantea*.

Onintza igual ez nuke Sarriegirekin konparatuko baina beste era batera Unai Agirrerekin bai. Baina Unai Agirrek oso ondo funtzionatzen duen bezala, Unai ez da mutil zaharra baina izan zitekeen eta mutil zaharrak funtzionatzen du eta neska zahar graziosoak ez Txapelketan. Gero egia da Unai ere badaukala naturaltasuna deitzen zaion hori, freskotasuna, ahozkototasuna, zirtolari puntu hori, belarritik oso ondo sartzen diren bertsoak”.

4.Hozkailu batean preso geratu zirenekoa

Hurrengo bertsoaldiak ere Sarriegi bera du protagonista Alaia Martinekin batera. Hozkailu batean geratu ziren bi pertsonen paperetik kantu behar izan zuten Iruñean biek, zortziko txikiko ariketan⁸⁰. Gai honi dagokionez, lehenik eta behin egoki deritzot Sarriegiren beraren bizipenak biltzeari:

“Gaia ere xeble xamarra zen. Hozkailu batean geunden biok. Eta jendea barrez hasten da. Eta jendearen %90-aren burutik oraindik pasatzen da gauza berdina. Eta gu jendea gara. Eta gure burutik ere pasatzen da. Eta bai eragin zidan esateko “bale edozein bide bilatu behar dut hori izan ezik.” Eta hori ere ez da oso bidezkoa. Autozentsura maila horretara iristea.

Nik bigarren bertsoan momentu batean esan nuen “irteera pragmatikoa bilatu behar dut”. Bale ba... Ostra! Mugikorretik deitu dezake kanpora. Eta hasi nintzen: “zure

⁸⁰Ikus. “Eranskina2” 4. bertsoaldia.

moduko neskek ohi duten modura”...

Etorri zitzaizkidan publikotik gero bi pertsona. Batek ia kargua hartu zidan. Esan zidan: “jode Aitor, zer gai zen hori! Hasi zarenean esaten zure antzeko neskek hori duten... “buaaa! Mobilarena! Bueeeeno. Beste bat etorri zen eta esan zidan: “zure antzeko neskek hori duten modura” eta... bahuan garaia!

Eta esaten nuen: nik ikusten nuen nire ikasle bezalako neska gazte bat. Nik egin nuen irudia izan zen neska gazte batena. Ba hori, egun guztia mugikorrarekin dabilen horrelako neskato bat eta mugikorra behintzat edukiko du eskuan.

Baino niri biak iritsi zitzaizkidan. Batek: joe uste genuen sartu behar zenuela behingoz gaian, ze jende guztia horren zain zegoen eta hala ere, ez zara sartu! Eta beste batek: “egon zara hortxe kriston hanka sartzea egitekotan” Eta esaten duzu beno, denekin ez dago asmatzerik!

Sarriegik berak kontaktzen du aipagai dugun bertsoaldia ez dela Txapelketan zehar mugatuta sentitu den bakarra:

“Beste behin ere sentitu nuen. Irunen Maialenekin ni nintzen behin eta berriz bizi lagunari gauzak eskatzera zihoana. Eta aurretik Jonen eta honen, saioa egon ez balitz ziurrenez horrek horretan bukatuko zuen. Ze esan nuen: aber ni beste zerbaiten eske nator baina ez didazue entenditzen.

Eta han zeudenean ez da batere eroso horrela sentitzea. Mugak jartzen zure buruari”.

Alberdik ere hizpide hartzen du atal honi dagokion gaia:

“Niri gogorarazten zidan Estiballes eta nire saunarena⁸¹. Klaustrofobia sortzen didaten gaiak dira. Atea itxita dauden gaietan ia klaustrofobia sortzen zait. Bestea zen beroa eta hau hotza. Bestean toallak eta hemen barazkiak.

Niretzako gai hauen arazoa da ez dagoela gairik. Esan nahi dut: ez dela errealia. Esan nahi dut gutako inor ez da geratu sauna batean harrapatuta eta barazki *konjeladore* batean gutxiago! Orduan nola ez dagoen gairik... Gaia da itxita zaude pertsona honekin nonbait. Hori da gaia. Eta gero egongo dira adonu diferenteak, ez?

Beste gai guztietan iruditzen zait daudela harreman erotiko bat edo, botere harremana markatuta dago. Goiko biziaguna-beheko bizilaguna, kamareroa-langilea, bakoitzak posizioa dauka eta ez dira besterik gabe bi gorputz gure sisteman gorputzek daukaten

⁸¹Pasarte hau 2009ko finalurreko batean lekutu zen, Donostiako Belodromoan. Alberdi eta Estiballes ziren kopleto saioan ofizioka aritzekoak eta orduko hartan sauna batean kokatu zituzten, atea ezin irekita. Oso bertsoaldi biolentoa da, Estiballesek Alberdirekiko hartu zuen jarrera eta kantatu zuena medio. Alberdik berak aitortzen du oraindik orain ez duela eszena hura burutik kentzea lortu.

irakurketaren menpe. Kamarero batek zeregin batzuk dauzka; lorezain batek zeregin batzuk dauzka; loreak eroatera doan batek nahi konkretu batzuk dauzka... *dibujatuak* daudela esan nahi dut.

Iruditu zait horrelako gaiekin kontua ez dela gaia ezin da jarri zeren eraso bat egongo da. Kontua da: *eske* igual gai txarra da. Besteen aldean ez daude *dibujatuta* *personajeak* orduan hiru bertsoara Txapelketako testuinguruan eta elkarri dardoak botatzen aritzeko aukera gutxi ematen dituen gai bat da”.

Berriozabalek gai-jartzaile taldean ere Alberdik egindako paralelismoa aurrez egin izana kontatu digu:

“Arkaitz eta Uxeri saunarekin gertatu zaiena ea ez den erreproduzitzen hemen! Orduan –esaten genuen- biak barruan. Ze, biak kanpoan ezin dira. Beno, biak barruan. Eta gainera hotza da. Ez dago beroa. Hotzak ez dauka hainbeste... Baina berotzeko izan daiteke. Bai, baina hori ez dute kantatuko! Gainera, eurek ere izan behar dute kapazak eraikitzeko. Eta gero zen zer dagoen barruan, okela eta izan dadila berdura ez genuelako ikusten hain gauza sexuala. Gero esaten duzu, izan daiteke kalabaza,... *de etxo* irten ziren beste batzuk.

Ez dakit. Nik orain ikusten dut bertsoaldi hori eta esaten dut: “*igual* ez genuen ipini behar gaia.” Baina aldi berean esaten dut: joe, horretara bakarrik eramaten zuen gai horrek? *Igual* bai. Ba, zuek esaten baduzue bertsolari moduan horrek bakarrik eramaten duela horretara, gehiago ez dira gehiago geldituko *entzerratuta* inon!

Orduan, zer da? Inoiz ezin dira gelditu bi pertsona *entzerratuta* inon ez garelako kapazak beste bide bat hartzeko? Nik uste dut bertsolariak kapazak izan behar direla horretarako. “Emango dizut *pele* pornoa eta zu ezin zara eszitatatu”. Ez da hori ere. Ez dut uste gure lana hori denik. Nik ipiniko dizut munduko probokaziorik handiena, eta kasu horretan –nik uste- probokazio lar handia izan bazen akatsa handia dela. Argi dago.

Ni ez naiz kapaza probokazioa hain handia zen jakiteko. Jakin beharko nuke, Sarriegik hori sentitu zuen. Ba... *igual* ez genuen ipini behar. Baina jo! Ezin gara gai izan ere... Nik uste dut bertsoan ari zareten emakumeak eta bestelako ikuspegiak daukazuenak askotan ez duzuela burutik pasatzen zaizuen lehenengo gauza kantatuko.

Nik eskertzen diot Sarriegiri asko gai hori ez izatea txapelketako gairik kritikatuena. Ze, seguruena berari esker izango da. Hala ere, uste dut taldean autokritika gutxi egin dugula. Esan nahi dut ez dugula sakondu: zer eraiki dugu, zer ez, egin dugu *aportaziorik*, ez dugu egin...

Eta uste dut egon direla beste mila gai segur aski hemendik lau urtera entzungo direnak eta... Momentuan oso zaila da denbora guztian egotea eraikitako horren gainetik. Ez zaude, zaude parean eta tapatzen dizu ikuspegi guztia. Bai, bai... egongo dira gauza pila

bat seguruenik”.

5.Futbolariak emakumezkoak izan ezin zutenekoa

Egañak umorea erresistentzia bezala⁸² erabili izanaren adibidetzat dauka BEC-eko finalean goizean zortziko handian eginiko saio hau⁸³:

“Maialenek kritikatzan du klub deportiboen komertzialtasuna aldeko paper batetik. Aldeko papera ematen diote eta esaten du, ba! Txinoei salduta gaude eta zer inporta du pixkat gehiago saltzea? Ezta?

Inklusio erresistentzia lortu dezakezu kontrako paperetik. Teorian defenditu behar zuenean estatusa, esaten du: bai, bai estatusa hain da barregarria, pixka bat gehixeagotatik *igual* dela. Eta pixka bat gehixeagotatik *igual* dela esaten ari denean kritikatzan ari da estatus osoa.

Harrigarria da nola lotzen duen gaiari pegatuta kantatzea eta kritikatzan sistema bat teorian alde egon behar zuen toki batetik, mundu hori kritikatzan. Alde hitz eginaz bezala. *Estremora* eramaten du”.

Berriozabal, gai-jartzaile bezala dagokion autokritikatik, kexu da:

“Ahalegintzen gara beste rol batetik hartzen gauzak edo beste ikuspegi batetik. Adibidez: futbolari profesionalak zarete, Maialen Lujanbio eta Unai Agirrerren gaia finalean. Ni gero konturatu nintzen bakarrik izan zitezkeela gizonetzkoak, momentuan ez nintzen konturatu.

Gero esan nuen: *puta mierda* de gai. Gero kriston saioa egin zuen. Baina: *puta mierda* de gai. Ezin zen izan gizona. Zelan biziko da emakume kirolari bat publizitatetik? Nork sinesten du hori? Inork ez. Ez da *kreiblea*. Ez da erreala. Maialeni kantatu arazi genion gizon futbolari baten ikuspegitik. Eta egin zuen oso ondo. *Igual* egin behar da baina gu izan behar gara kontziente zer ari garen eraikitzen. Eta nik uste dut batzuetan gu geu ez garela kontziente zer puntura arteko baldintza izan ahal garen bertso jardunerako”.

6.Kamiseta arrosa batek gizontasun hegemonikoa zalantzan jarri zueneko

Aztergai dugun Txapelketan bertsoaldi konkretu batek hautsak harrotu zituen, Bastidako saioan Jon Martin eta Agin Laburuk osatutako zortziko txikiko ariketak⁸⁴, hain zuzen ere.

⁸²Colinak Mendiluzerekin egindako zortziko txikia ere izan daiteke erresistentziaren beste adibide bat.

⁸³Ikus. “Eranskina2” 9. bertsoaldia.

⁸⁴Ikus. “Eranskina2” 2. bertsoaldia.

Gaia etxea margotzearen ingurukoa izan arren, Martinek bigarren bertsoan, margolariari horrenbeste denbora galaraztea justifikatu nahirik bezala, berarekin “enamoratu” zela kantatu zion Labururi. Laburuk, orduan, “hori nola esaten dek/zer dek gay edo gai? [...] Kamiseta horrekin pentsatzen nian bai⁸⁵” erantzun zion bigarrenak. Arratsalde hartako bertsoaldirik txalotuenetako bat izan zen bi gizonezko hauek osatu zutena.

Egunean bertan sare sozialetan hasi ziren eduki homofoboagatiko lehen kritikak eta hurrengo egunetan hedabide ezberdinetako artikuluetan ere izan zuen lekua gaiak. Geroztik, bertso munduko partaide garenok hainbat eztabaida izan ditugu honen inguruan.

Egañak honela azaltzen du Txapelketan zehar eztabaida gehien sortu duen bertsoaldiaren larritasuna:

“Nire ustez ez da larria sei terdian gertatu zena, lau terdian gertatu zena baizik. Alegia, Aginek Jon ikusi zuenean oholtzara igo aurretik. Beretzat arrosa homosexualen kolorea da. Horretan da niretzat larria. Ez kantatu zuena baizik ikusi zuenean sentitu zuena. Eta hori urte askotako *zera da*”.

Sarriegi ez dago ados eta Aginek pertsonaje estereotipatu bat sortu eta bere larrutik kantatu izana defendatzen du sutuki:

“Nik oso garbi daukat pintore estereotipo batetik kantatutako zerbait dela. Nik Agin ez dut ikusten esaten hori zer den gehi edo gai. Nik uste dut puntu horretan ia nahikoa definitzen duela bere *pertsonajea*.

Egia da estereotipo kutsatu komun bati haize bai ematen diozula. Eta orduan, kontuz ibili edo ez dakit bai. Eta baita ere egia da bat batean ari zarela.

Begira hezurren eta gaien bertan, ez? *Honen berri badaki zure nagusiak* eta guardia zibil baten paperean puta kumearena egiten badu batek denok oso garbi dakigu jokatzeko ari dela. Maskararekin dabilela⁸⁶.

Igual Aginek pentsatu zuen maskara honetatik honek funtzionatuko du. Igual grazia egingo du eta igual ez. Igual da iritzi oker bat, kalkulu akats bat, igual da estereotipo...” Niretzako bigarren puntu horrek definitzen du edo horrek –ez dut esango salbatzen du baino– horrek adierazten du garbier *pertsonajea* jokatzeko ari dela. Eta *hori nola esaten*

⁸⁵Jon Martinek kamiseta arrosa bat zeraman jantzita.

⁸⁶Andoni Egañak ere aipatu du elkarrizketan zehar Harkaitz Canoren “maskara gardenaren” kontzeptua. Ikus. <http://www.bertsolari.eus/bertsolaritzaren-hemeroteka/autofikzioa-eta-maltzurkeria-harkaitz-cano/>

dek gehi edo gay. Maskara oso gardena jartzen baldin baduzu ere, zuk badakizu Aginek hori, Aginek ahotik ez dela atera.

Baino egia da umorerako erabiltzen den elementua, kamiseta arrosa kasu horretan, oraindik ere, nahiz eta zu ez izan gay-en inguruan edo besteen inguruan horrela edo hala pentsatuko duen pertsona bat, egia da horrelako lehen esan dudan elementu komun kutsatu mordo bat badaude.”

Ibarzabalek ez du hain argi ikusten pertsonaiarena:

“Buruko kaxoian hori zeukan. Hori irten zitzaion. Ematen didana pena da Agin batek eta beste askok hori beldurra hartzeko. Baino hori da, beldurra ez. Ez beldurrerako baizik eta ekintzarako. Sustoa hartu. Aitortzen dut txarto pasatzea eta ez dut nahi txarto pasatzea pertsona batek. Edonor ahal zen izan. Ni izan nintekeen. Edo eskapatzen zait bakarkakoan hori. Eta gure artean *señalau* feminista zoro denak eta esan, ze mierda daukagun barruan eta goazen hastera lantzen. Beti da interesantea niretzako.

Eta lau urte barru igual hau *superatuta* daukagu eta beste gai bat izango da. Eta konturatuko gara zuri europar *putamierda* batzuk garela eta ez dakigula ezer feminismo afroamerikarrei buruz. Baina beti joango gara hanka sartzen.

Zentzu honetan, feminismoren lanketa egiten ari diren emakume bertsolariak kontraesanak eta hanka sartzeak onartzeko askoz ere entrenamendu handiagoa dugula iruditzen zaio Ibarzabali:

“Gizonezko bertsolariak ematen du perfektuak direla *inkluso* diskurtsoan. Horregatik dator beldurra. Kontraesanei kantatzeko askoz entrenamendu gehiago daukagu, askoz gehiagotan egin dugulako. Eta kontraesanak onartzeko. Iruditzen zait urte askotan ezkutatu direla *kalitate berdin teknikaren* atzean. Eta teknikaren arabera neurtu dutela euren burua.

Derrepente: “ai ama!”. Baloratzen denean beste *zeozer*, baloreak. Normala da. Da beldur bat. Esaten duzu: jo, nola aldatuko dut orain nire bertsokera? Nire bertsokera aldatzeko dena aldatu behar badut. Marko teorikoa dena aldatu behar dut, edo?

Baina iruditzen zaidana da oraindik geldi daudela. Begira gaur egun. Jo! Indar bat dabil hor eta zu zaude tapak jarrita belarrietan. Ahal zen izan Agin edo beste edonor”.

Sarriegi ere ados dago Ibarzabalen azken esaldiarekin eta gogor kritikatzeko du Agin bere momentuan “horrenbeste” kritikatu izana:

“Nik uste dut bota zuen bezala botata jaso zuen egurrak kalte handiagoa egin zuela bota zuenak baino. Nik horrela ikusten dut. Txapelketa martxan zegoen. Beste gauza batzuen artean ez da ahaztu behar: bertsolaria ari da bat-batean. Bertsolariak ez du esaten esan

nahi duena nahi duen bezala, batzuetan ez du nahi duena ere esaten.

Bi segundotan hartu duen erabaki bat da hori botatzea, horrekin umorea egitea edo iruditu zaio hori umorea dela eta gero konturatu da *igual* ez dela. Ia berandu da. Eta hori hartu, disekzionatu eta... Bale gero bukatzen denean nahi duzuna baino oraindik jokoan dagoen pertsona batek, nik uste kasu horretan Agini min handia eman ziola eta hori neurtu behar dela.

Nik uste mikromundu batean izan zela gehiago. Hori ere askotan auto engainatzen dugu gure burua. Eta Txapelketa entzutea, *inkluso* saio horretara joan zen jende gehiena hortik kanpo gelditu da.

Hau da, hori mugitu da ba... jarraipen oso zuzena egin dionetan, medio jakinetan jarraitu dionetan edo zirkulu jakinetan. Igual feminismo munduan mugitzen den jendea edo LGTB munduan mugitzen den jendea. Nik uste *fokalizatuagoa* izan dela askotan igual iruditzen zaiguna baino. Guri iristen zaigu, jarraitzen duzu baino, nik sentsazio hori badaukat. Eta igual Aginek ere oso... sentitu da oso eraso-tua edo *eztakit* baina, igual bere benetako dimentsioa ez dio eman. Eta ez da erraza Txapelketa barruan egonda”.

Colinak, aldiz, honako iritzia dauka kamiseta arrosaren aferaren inguruan:

“Daukat sentipena pixka bat lehoietara bota direla. Eta gero daukat kezka bat edo. Eta da: gauzak eta kronikak ikuspegi bakarrarekin egitearena. Esan nahi dut, oso ondo dago ikuspegi feminista batetik idaztea. *De etxo* uste dut hau zela horretarako egokia zen Txapelketa. Baina hala egiten baduzu, egin behar duzu saioro –ez dut uste kasua izan denik-.

Hori batetik eta bestetik eta bestetik beste ikuspegi asko daudela kontutan hartuz. Lurraldetasun ikuspegitik ez da egin irakurketarik. Berriz ere herren ibili gara. Ni barne. Horri buruz ez da ezer esan. Zaharren tratamenduaz ez da ezer esan.

Ze zaharren estereotipo daukagu? Hortz *postizoak* eta bastoiak oso ondo daude baina, zaharrak hori baino zerbait gehixeago dira, ezta? *La ostia* iruditzen zait gu iritsi garenean, gure zaintza lanetarako horiek ateratzen eta famatzen bertsoetan, bizitza guztian hori egin dutenak eta orain ere hori egitera derrigortzen ditugunak *matxakatzea matxakatzen* ditugun bezala. Batez ere –esaten dizut- lau *klitxe* tonto horiekin.

Gaur oraindik entzuten dudanean amona etxeako andreak⁸⁷, zer nahi duzu esatea? Nire ama amona da eta abokatua da.

Gure buruarentzat eskatzen duguna ea besteentzat egiteko gai garen”.

⁸⁷Ahalduntze bertso-eskolan ere iazko ikasturtean presente egon zen kezka hau.

Nire aburuz, eta aztergai dugun bertsoaldira itzuliz, argia da bertsoaldi hau maskulinitate hegemonikoaren⁸⁸ errepresentazioarekin lotuta dagoela, ezinbestean. Hasteko, aipagarria da, Labururen hirugarren bertsoa aipamenaren bidez bi plano nahasten direla, batetik, bertsoaldiaren beraren gaiarena (bezera eta margolariarena) eta, bestetik, Jon Martin eta Agin Labururena. Laburuk Martinen kamiseta aipatuz errealitateari egiten dio erreferentzia, nolabait gizontasun hegemonikoarekin bete-betean bat egiten ez duela iradokiz. Eta aurrez esan bezala, ikuslegoaren gehiengoak ideia hau gogotsu txalotzen du.

Bi planoak nahastearena askotan jazo ohi da, esaterako, emakume bat eta gizon bat kantuan ari direlarik eta gaiak horretarako bide ematen ez duelarik gizonezko bertsolariak emakumezkoaren fisikoari, erropari, orrazkerari... erreferentzia egin eta bertsoaldira ekartzen duenean.

Jon Martin bertsolariaren ibilbidea ezagutzen dugunok, oro har, badakigu ez dela maskulinitate hegemonikoaren eredu nabarmenena. Ahots tonalitatez goxoagoa da, sakonago eta poetikoago kantatu ohi du, bere bertsoak ez du beti azken kolpeetan oinarritzen. Hautsi egiten du, nolabait, gizarteko nahiz bertsolarietako gizon hegemonikoaren irudiarekin. Labururena, kontrara, bertsoak biziak dira, zirtoan eta kolpean oinarrituta, hegemoniatik gertuago egon daitekeena.

Nire uste apalean, bertsoaldi honetan argi markatu zuen Laburuk Martinen maskulinitatea hegemoniaz kanpokoa zela. Gainera, bera heterosexualitatean kokatuta homosexuala izan zitekeenari, menperatu edo marginatuari⁸⁹, egin zion barre. Ohikoa den moduan, gainera, homosexualitatearena iradokitzeko gizartearen roletan ustez emakumezkoena izan daitekeen elementu bat baliatu zuen; kolore arrosa.

Egia da bertsoan ari garenean bat-batean ari garela eta bat-batekoa sormen lan prekarioa dela. Baina, hala ere, aipagarria eta aldi berean susmagarria zait bertsoaldi honen osteko polemikan gizonezko bertsolarien artean sortutako konplizitatea⁹⁰. Laburuk kantatua justifikatzeko nahia hedatu zen gizonezko bertsolarien artean, bere

⁸⁸“Maskulinitate hegemonikoa ez da izaera finko mota bat, noiznahi eta nonahi bera dena” (Connell 1979: 11). Aitzitik, genero harreman zehatz batzuk dituen eremuan kokapen hegemonikoa okupatzen duen maskulinitatea da, beti lehiatu daitekeena. Maskulinitate hegemonikoa, beraz, normalki eta orokorki onartua den estrategia gorpuzten duena litzateke, patriarkatuko gizon boteretsuen eta emakume menpekoen arazoari zilegitasuna ematen diona. (ibid.: 12)

⁸⁹Zapalkuntzak maskulinitate homosexualak gizonen arteko hierarkiaren geruzarik baxuenean kokatzen ditu eta zenbait teoriko homosexualen arabera, maskulinitate hegemonikoaren ikuspuntutik homosexualitatea feminitatearekin lotzen da (ibid.: 13).

⁹⁰Connellentzat Hegemonia, menperakuntza eta konplizitatea genero ordenamenduaren barruko erlazioak dira (ibid.: 15).

uste eta aurreiritzietatik kanpo margolari matxista estereotipatu bat irudikatzen ari zela argudiatzeraino.

Hitz gutxitan, bertsolari hegemonikoa gizonezko zisgeneroa, zuria, klase ertainekoa, gaztea eta heterosexuala da. Plazaz plazako jardunari behatzea baino ez dago hau baieztatzeko.

7. Bi neska gazte puntuka inongo graziarik egin ez zutenekoa

Azkenurreko atal hau osatzeko Alaia Martinen eta Miren Amurizaren Iruñako bertsoaldia aletzea dagokigu jarraian⁹¹. Berriozabal izan da bere berbaldira saio zehatz honen aipamena ekarri duena:

“Buffetaren gaian, adibidez, bi gizon pisuz gora doazenek egiten dute kriston grazia loditasunaren inguruan txiste txarrak egiten (ez zirelako oso onak) eta Miren eta Alaia direnez argalak, guapak eta emakumeak ez dute egiten graziarik gauza bera egiten.

Orduan esaten duzu hor: muga ez da umorea bakarrik hor muga haratago doan beste gauza bat da. Kasu horretan niretzako ez zaio umoreari mugarik ipini behar, ez? Ze, ez da honek txarto egin du. Ez da hori. Niretzako da hor zer pasatzen den”.

Berriozabalen hitzek aurretik landu dugun umorerako zilegitasunaren gaia berhartzera garamatzate:

“Bi neska gazte aipatzen zer jan zuten eta nola arrasatu zuten, inongo graziarik ez du egiten. Eta Unai Sarriegi eta Unaik egin zuten anorexiarena. Beraiek biak jarriz gero bertso igualekin, zer?

Beti esaten duguna zeinek daukan legitimitatea zeinek ez”.

Aipagarria da Unai Agirrerri beste ofizio batean Oihana Iguaranekin kantatzea egokitu zitzaiola eta hor ere gizon “lodi” edo “jatun ona”-ren kartarekin jokatu zuela⁹². Alberdik argi diosku zergatik funtzionatzen duen batzuen kasuan besteenean funtzionatzen ez duenak:

“Azkenean gizartean ere baimentzen zaiolako adin horretako gizon bati tripa edukitzea eta lodi egotea grazioso delako. Eta emakume bati ez. Ia umorea egiteko ere diferente jasotzen da. Batean ari zara onartzen den zerbaiti buruz eta bestean gaizki ikusia dagoen

⁹¹Ikus. “Eranskina2” 8. bertsoaldia.

⁹²Ikus. “Eranskina2” 5. bertsoaldia.

zerbaiti buruz.

Batetik hori, bestetik delako umore bat sozializatuta dagoena eta kode konpartitu bat daukana. Bestetik, ez bakarrik lodi egotea, bata da gaiak esaten duen gorputz horretan sartzea baina beste gauza bat da *inkorrekt*a izatea. Berdin du zer gairi buruz.

Golfa, *inkorrekt*a, jatuna... Falta zaizkigu erreferenteak eta gainera ez dago ondo ikusita eta emakumea gehi adjektibo itsusi bat ez du grazia egiten ez”.

Alberdientzat, gainera, beste aurre-suposizio batek ere badu bere pisua bertsoaldi honetan. Ibarzabalek lehenago aipatu du emakume bertsolarien *handicap* moduan puntukako ariketa eta Alberdik honakoa gehitzen dio:

“Aurre-suposizio hori “hauek badakite puntutan eta beste hauek ez”. Eta horrek ere... Hasi aurretik daukate autoritate maila ariketa konkretu horretarako.

Iruditzen zait emakumeoi ematen zaigula autoritatea sakonkerietarako. Hauek badakigu pentsatzen dutela. Irakurtzen dute. Oso saiatiak dira, oso ikasiak eta formalak dira eta gainera ondo kantatzen dute” eta orduan bakarkakotarako, hamarreko txikitarako, zortziko handirako ematen zaigu autoritate *prebio* bat. *Inklus*o batzuetan segun ze gizoni baino gehiago.

Baina umorerako eta umorea gehi oso tekniko den puntutarako ez. Erreal da gu ez gaudela hain trebatuta horretan... gutxiago egin dugulako eta uste dut genero sistemak ere eragiten duela horretan. Hau da, gu ez garela gelditzen astero *soziedad*e batean librean egiteko eta gizon batzuk bai”

8. Anorexiari buruzko gaia umorez hartu zutenekoa

Aztergai izango dugun azken bertsoaldiak ere zeresan ugari eman zuen Txapelketan zehar eta ostean. Aurreko ataleko ideiei jarraiki, interesgarria deritzot Iruñean Sarriegik eta Agirrek osatu zuten bertsoaldia aztertzeari⁹³.

Gai-jartzaileek anorexiari buruzko gaia planteatu zioten bikoteari eta Sarriegik horrela azaltzen du jazotakoa:

“Gai oso serioa da. Nik ezagunak izan ditut gaixotasun horrekin gertu. Baina esaten genuen zer egin behar dugu ba? Bi bakarkako? Hamarreko txiki batean...”

Unai Agirre eta bioi sobratzen zaizkigun kiloekin ia beste pertsona bat egin daitekeenean, esaten duzu: joe gu hemen hastea “benga baiii eta besteeaa eta

⁹³Ikus. “Eranskina2” 10. bertsoaldia.

akordatzen naiz” eta estigmatizatuta eta beste... Esan egin genuen, arriskatua da baina, saiatuko gara. Aurrez komentatu genuen eta badakit batzuentzako mingarria izan zela.

Baina era berean mingarria izatea ulertzen dut baina berdin izan daiteke mingarria beste batentzako burusoilen inguruan txisteak egitea, beste batentzako suizidioen ingurukoak... Guk oso erraz esaten dugu: “salta ezazu leihotik behera” “jota kotxearekin botako zaitut”. Eta zure parean dagoenak *igual* alaba galdu du kotxe batek jota. Egia da konturatu ginela *terreno pantanoso* batean sartzera gindoazela.

Umorea egiteko erabiltzen dugun gairik ia ez da libratzen hortik. Egia da gure arriskuak hartu genituela.

Azkeneko bertsoa nahita kantatu nuen pixka bat ekartzeko. Horri inportantzia kentzeko bestela *fribolizatze* hutsean geldituko zen. Eta horretarako gaia ez zen”.

Berriozabal, berriro ere gai-jartzailearen ikuspegitik, kritiko agertu da Sarriegik eta Agirrek egindako hautuarekin:

“Beti egoten da gai bat trastorno *alimentarioaren* inguruan eta esaten genuen “zelan landu gai hori estereotipatu gabe?”. Hau da pentsatu gabe jendeak ez duela jaten argal egon nahi duelako. Ez dadin irten tesi hori. Ez dadin irten tesia pentsatzen duena anorexikoak direla behin ere osatuko ez diren pertsonak. Goazen ematera gai dramatiko bati, gaixotasun bati ikuspegi eraikitzaile bat. Eta da: “gaixorik egon zara, orain ez zaude gaixorik eta non eta supermerkatu batean egin duzue topo, zuen arerio gogorrena bihurtu da eremu horretan”. Eta niretzako atera zen *kaka* absoluto bat bertsoaldi hori. Baina konturatu nintzen publikoak zelako erreakzioa eduki zuen.

Eta guk komentatu genuenean gero gai jartzaileen taldean, nire harridurarako jendeari iruditu zitzaion “beno beno: batzuk gauza batzuk kritikatu ahal ditzakezu baina, hau eaaaarra izan da!” Niretzako hori bai da bajoi sentsazioa. Ze gainera, zuek bertsoan daukazuen sentsazioa *pelma* batzuk zaretela, gai jartzaile taldean ere batzuk *pelma* hutsak izan gara.

Aginena pasa zenean horrelako onarpen moduko bat gai jartzaile taldean. Baina askotan ez dakizu onarpen hori den “isildu zaitez, onartuko dut.” Edo “benetan ados nago”. Eta adibidez gai horrekin niri oso grabea iruditzen zait egin zen bertsoaldia. Niri entzule moduan egin zitzaidan oso tristea. Nik bertsozale moduan ez dut horrelako bertsoaldirik entzun gura.

Horrekin umorea egitea... Ez dakit gaixotasun mental batekin umorea egin ahal den. Suposatzen dut baietz baina uste dut oso zaila dela. Ez bada oso oso... Ez dakit plazako saio batean, baina da oso gauza puntuala. Horrelako gauza batekin testuinguru hartan...

Berriozabalek, gai honi tiraka, enegarrenez dakarki zilegitasunaren gaia:

“Imajinatzen dut gauza bera emakumeek egingo balute. Zero grazia egingo luke. Gauza bera. Zero. *Eske* ez lukete egingo hasteko.

Eta niretzako hor ikusten zen jende batek jarraitzen duela... niretzako hori da orain hogeitau urte egingo zen bertsoaldia. Ipintzen zenean: “zure alabak bikotekidea dauka. Beltza da”. Sasoi horretako bertsoaldi bat izan zen.

Gu oso kontziente ginen gure errua ez zela. Edo horrela ondorioztatu genuen. Ez dakigu eh! Agian hori eztabaidagarria da. Esaten genuen ez dugu uste gaiak hainbesterako arriskua ematen zuenik. Izan da euren ezintasun bat gai honetan sartzeko eta hau kantatu dute. Orduan, esaten genuen: zelako inpotentzia guk daukagun tresna hori findu dugula ahalik eta gehien eta hala ere... Ez? Ez direla baliatu tresnaz.

Eta gero gainera, niretzat oso *frustrantea* da taldeak berak ez daukala ikuspegi bera. Aberasgarria izan da taldean lan egitea, baina *frustrantea*”.

Bukatzeko, Alberdiren hitzak biltzea komeni da, Txapelketa den eremu “garbia”-n horrelako kasuak agertu eta hauen inguruan eztabaidatzea aberasgarritzat jotzen baitu:

“Nik nahiago dut hori, ni Txapelketan horrelako gauzak kantatzearen aldekoa naiz. Gero hortaz pentsatzeko eta hitz egiteko eta inor *kruzifikatu* gabe. Ze nire ustez Agin ez da beste bertsolari asko baino matxistagoa eta momentu batean *cabeza de turco* bat ondo etortzen da eta hau bai eta besteok libre. Eta horren aldekoa ez naiz.

Eta iruditzen zait opa behar diogula elkarri hanka sartzeko aukera eta libertatea ze bestela, egingo dugu diskurtso perfektua baina denok egongo gara elkarrekin haserre eta gure buruaren barruan beldurtuta. Nik ez dut nahi horrelako bertsolaririk.

Ez zait gaizki iruditzen egin izana. Ondo iruditzen zait bakoitzak egin dezala nahi duena. Baina niri ez zidan graziarik egin. Txolinkeri bat adierazi zen gaixotasun bat baino gehiago eta... Nire buruan ez zen umorerik kabitzen.

Edo beste era bateko umore bat behintzat. Ez dakit nola esan: ahultasunetik egindako umore bat. Ez nituen ikusi anorexia daukaten edo eduki duten bi pertsona. Ikusi nituen bi gizon kontrolatzen ez zuten gai baten inguruan umorea egiten. Horrek ekarri zidan burura Aginek behin esan zigula Ainhoa eta niri tranpa egin genuela pilotarien paperean⁹⁴. Nik uste dut berari antzeko zerbait gertatu zitzaioela. Ez zituen bi pilotari ikusi.

⁹⁴2009ko Txapelketan Ainhoa Agirreazaldegi eta Alberdiri pilotaren inguruko gai bat jarri zieten. Agirreazaldegi pilotaria zen eta Alberdi zorte ona eman ziezaion kandela bat piztu zuen bere amona. Emakumezko pilotariaren paperetik kantatu zuen lehenak.

Eta begira erreala izan daiteke hori. Egia da, ez dizuet sinestu orduan niri ez zait gustatu. Baina ez da izan ez dut sinesten bakarrik: mina ematen du. Min ematen dit edo mingarria egiten zait eta beldurra ematen dit iruditzen zaidalako hemen publikoaren artean egongo dela pertsona bat baino gehiago arazo hori daukana”.

5. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Behin ikerlan honen azkenetara iritsita, umiltasun osoz baina harrotasunez aitortu dezaket lortu dudala hasierako helburua betetzea, hots, orain arteko lan teoriko hutsaz haratagoko pauso bat eman eta, analisiaren bidez, teoriatik praktikarako jauzia egitea, nolabait. Bide honetan, noski, oinarri bezala baliatu dut aurrez zedarritutako oinarri teorikoa eta hau dageoneko barneratuta izateak asko lagundu dit aurrerantz (eta sakonerantz) emandako pauso bakoitzean.

Kasu zehatzen azterketa egitea nerabilen buruan aspalditik eta, zentzu honetan, uste dut asmatu dudala eszenatokiaren hautaketarekin. Izan ere, iazko irailaren 23an Baigorri hasitako Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, bertsolaritzaren eta bertsogintzaren gailurtzat hartzen dena, oso abagune interesgarria iruditu zait umorearen nondik norakoak zukutzeko.

Marko teoriko-analitikoan egindako txapelketaren gaineko irakurketa kulturean zehaztu bezala, lau urtean behingo erritotzat ulertuta ikertu dut Txapelketa, dagoeneko behin baino gehiagotan aipatu gisan, ariketa kolektibo honen baitan entzulegoaren eta bertsolariaren arteko harremana aldatzen dela (entzulea epailego bilakatzen da, nolabait esateko) eta kantatutako diskurtsoen bidez komunitatea (bir)sortzen dela kontuan hartuz.

Txapelketa, horrela, giza talde baten mundu ikuskeraren nahiz balioen adierazgarritzat definitu dut arestian. Lau urtean behingo fenomeno honek gizarteko *statu quoa* erreproduzitzen eta mantenduarazten lagundu dezake edo, kontrara, eraberritzeei eta aldaketei bide eman diezaike, Txapelketaren historiari buruzko atalean argi erakusten den eran.

Umoreak berak ere bi funtzio horiek izan ditzakeela azpimarratu nahi izan dut hasieratik, hain zuzen ere, normak markatutakoa betikotu eta indartzea ala, aitzitik, markatutako horri erresistentzia egin eta iraultzea.

Kontua da, ikusi dugun moduan, Txapelketaren markoan umorea (ere) mugatua dela zentzu askotan, azalari edo formari dagozkion mugak nahiz mamiari edo edukiari dagozkionak tarteko. Txapelketaren testuinguruak zurruntasuna du bereizgarritzat eta plazaz plazako jardunean baino kortse estuagoak sentitu ohi ditu bertsolariaren gorputzak.

Aitor Sarriegi izan da lehen muga horiek gainditu eta bakarkakoetara umore printzak ekartzen ahalegindu izana aitortu, saritu eta txalotu zaion bertsolaria. Gainerakoan, eta Sarriegik berak Alaia Martinekin Iruñeko saioan egokitutako hozkailuaren gaiaren inguruan kontatutakoei tiraka, edukiarekin lotutako mugek ere eman dute zer hausnartua, zuzentasun politikoaz nahiz honek dakartzan automugez eta autozentsuraz jardun dugularik.

Badira, bestalde, bertsogintzaren arau formalekin nahiz edukiarekin zerikusi zuzenik ez duten mugak ere. Lan honetan, Alaia Martin eta Miren Amurizak Iruñean egindako puntukako ofizioaren bidetik, entzuleak bertsolariei aurrez aitortzen dien umorerako edo “graziosoa izateko” zilegitasuna izan dugu aipagai, genero-sistemak bete-betean gurutzatzen duen muga, hain zuzen.

Niri, ikerlari moduan, azkena aipatuaz gain bigarren muga horiek (diskurtsoarekin lotutakoak) zaizkit interesgarrien eta bigarren horien barruan genero-sistemarekin lotura zuzena dutenei behatu diet gehienbat. Horrela, Txapelketan umorearekin lotuta pitzadura edo zirrikitu desberdinak izan direla defendatu nahi izan dut, tentsioa sortu duten zenbait bertsoaldi eta oharkabeen pasa diren beste zenbait orriotara ekarriz.

Laburki bada ere banaka erreparatzekotan, Maialen Lujanbiok BEC-eko finalean futbolariaren paperetik egindakoa aipatu nahi nuke lehenik. Izan ere, bertsoaldi honetan Lujanbiok jokatzeko duen rolari esker argiki baieztatu daiteke umorea erresistentziarako bide ezin egokiagoa dela.

Gainerakoan, tentsioak bi norabidetan sortu direla esango nuke. Batetik, badirudi historikoki baloratua izan den umore motak, goitik beherakoa denak eta hegemonikotzat izendatu dugunak, ez duela orain artean bezain harrera ona izan publiko zati baten aldetik behintzat. Honen erakusgarri dira, esaterako, Agin Laburu eta Jon Martinen Bastidako kamiseta arrosaren inguruko afera nahiz Laburuk berak Unai Agirrerekin Iruñean anorexiari buruz umorez jorratutako bide zenbaiten aldetik kritikatu.

Bestetik, eta aurrekoei ispilu eginez, badira bestelako umore edo bazterreko umore deitu diegunak erdigunera ekartzeko ahaleginaren erakusgarritzat har daitezkeen

bertsoaldiak. Nerea Ibarzabalek Zumaian bertsolarien ustezko zurruntasuna hautsi eta begiak estalita kantatu zuenekoia izan daiteke adibide bat. Saiakera guztiek ez zuten, ordea, Ibarzabalenak bezain ondo “funtzionatu” eta horren adibidetzat har daiteke Oihana Iguaran eta Miren Artetxek Durangon egindako bertsoaldia, doinuaren aukeraketatik bertatik hasita apurtzailea izan zitekeena.

Funtsean, bertsoaldi hauek erakusten dute umorea arrakalak sortzeko bitartekoa izan dela azken Txapelketa Nagusi honetan ere.

Pozgarria da, gainera, Txapelketaren ibilbidean zehar zenbait bertsoaldik horrenbesteko eztabaida sortu izana, umorearen mugei buruz luze eta zabal hitz egin izana umoreari benetan duen garrantzia aitortzeko ahaleginaren erakusgarri izan baitaiteke.

Etorkizuneko lanetarako inplikazio posibleei dagokienez, jakitun naiz bertsolaritza, eta kasu zehatzago honetan Txapelketa sistema edo aktore sare gisa ulertu eta azaldu eta ikerketan ahalik eta aktore gehien barneratzen saiatu banaiz ere, zenbait agenteren esanak ikerketatik kanpo utzi ditudala halabeharrez, lan honen aurretiazko luzera mugak medio. Agente horien artean dago, esaterako, Txapelketako epaile taldea, ezbairik gabe, gai honen inguruan zeresan handia izan lezakeena.

Alabaina, agente hauekin izandako hartu-emanetatik asko ikasi dudala azpimarratu nezake. Izan ere, bereziki interesgarri suertatu zaizkit beraiekin izandako hizketaldiak eta horregatik ekarri nahi izan ditut ahalik eta modu osoenean beraiek hitzak analisiaren atalera, nire usteekin kontrastatu ahala, beraiek esandakoei hitzez hitz leku egitea hobetsiz.

Lanean zehar azpimarratu dudan moduan, badakit bertsolaritzan oro har eta zehazkiago Txapelketan publikoak duen eragina nabarmena dela, eta zer esanik ez, umore prozesuen negoziaketan. Hargatik, aurrera begira entzuleen hitzak eta ikuspegiak ere lan honen jarraipen posibleetan barneratzea gustatuko litzaidake⁹⁵.

Beste behin ere, beraz, bide posible ugari agertu zaizkit aurrean, tira egiteko moduko hari posible ugari ikusten ditut zintzilik oraindik eta denborarekin ikusiko da norantza jotzea deliberatzen dudana. Oraingo, orain artean egin dudana moduan, bidearekin gozatzen, ikasten eta, batez ere, bertsolaritzaren eraldaketan eragiteko nire aletxoak jartzen jarraitzea dagokit.

⁹⁵Harkaitz Zubiri eta Xabier Aierdik burutu berri duten ikerketa soziologikoak publikoaren pertzepzioen inguruko zantzu batzuk ematen dituelakoan nago. Laister egingo da publiko aipatutako ikerketa.



“Ez ezazue berez dena baino gogaikarriagoa egin, gizonak, eta utz ezazue umore hau guretzat, zeina geure buruak estigmatizatu gabe egiten dugun eta zuek baino askoz ere hobeto... Agian badakigulako zertaz ari garen⁹⁶”

Barbijaputa, eldiario.es-eko *Zona Crítica* blogean

“Umoregile feminista hauek! Suntsitu egingo dute etxera inongo hausnarketarik egin beharrik gabe itzultzen uzten zizun umore oinarritzkoa!”

Nerea Ibarzabal, *Berria*

⁹⁶ Itzulpena nirea da (in Nueve, A., (2018), “Otra vez los límites del humor”, *El Salto*, Tribuna)

Erreferentziazko bibliografia

Agirre, L., (2017), "Zuzendariaren hitzak", *Jakin*, 220, Tolosa, 7-8

Akizu, M., (2018), "Diskurtso komunitatea. Bertsolaritzaren kasua. 2001 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletako gaien azterketa", EHU, Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea

Sarean: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/27943/TFG/GRAL_AkizuBidegain-M.pdf?sequence=2&isAllowed=y

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Alberdi, U., (2010), "Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak bertsolaritzan" in Lasarte, G. et al (koord.), *Gorputza eta generoa: euskal kulturaren eta literaturaren*, Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua, Bilbo

Anduaga, U., (2016), *Herri barrez, umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua* (tesia), Soziologia eta Gizarte Langintza saila, EHU

_____, (2017), "Umorearen sarrailez eta giltzez", *Jakin*, 220, Tolosa, 25-40

Amuriza, M., (2017), "Pailazo izatea", *Berria Sarean*:

Sarean: http://www.berria.eus/paperekoa/1777/018/002/2017-06-29/pailazo_izatea.htm

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Aranbarri, I., (2017), "Umorearen zimurrak", *Jakin*, 220, Tolosa, 11-23

Artetxe, M., (2017), "Umore eman gabe", *Argia*

Sarean: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2546/umore-eman-gabe>

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Asensio, M., (2015), "Bi kolorearen diktadurapean", *Berria*

Sarean: http://www.berria.eus/paperekoa/1939/004/001/2015-12-13/bi_koloreren_diktadurapean.htm

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Barth, F., (1969), *Ethnic groups and boundaries. The social organization of culture difference*, Universitetsforlaget, Oslo

Bertsozale Elkarte, (2002), *Gai-jartzailearen eskuliburua*.

Sarean: <http://bdb.bertsozale.eus/es/web/liburutegia/view/3392-gaijartzailearen-eskuliburua>

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Bertsozale Elkarte, (2005), *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak. 2005eko Txapelketa Nagusia*.

Sarean: <http://www.bertsozale.com/liburua/epailtza2005/sarrera/sarrera1.htm>

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Butler, J., (1990), "Variaciones sobre sexo y género: Beauvoir, Wittig y Foucault" in Seyla Benhabib (ed.) Valencia, Alfons el Magnànim

Cano, H., (2017), "Autofikzioa eta maltzurkeria", Bertsozale Elkarte
Sarean: <http://www.bertsolari.eus/bertsolaritzaren-hemeroteka/autofikzioa-eta-maltzurkeria-harkaitz-cano/>
[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Crenshaw, K., (2016), "The urgency of intersectionality", TED
Sarean: https://www.ted.com/talks/kimberle_crenshaw_the_urgency_of_intersectionality?language=es

Colina, S., (2018), "Badago korriente kontserbadore bat, bai gizartean eta baita bertso munduan ere", Euskal Herria irratia (elkarrizketa)
Sarean: <https://euskalerrirratia.eus/nafarroa/1515409819891-sustrai-colina-badago-korriente-kontserbadore-bat-bai-gizartean-eta-baita-bertso-munduan-ere>
[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Connel, R.W., (1997), "La organización social de la masculinidad" in Teresa Valdés y José Olavarria (ed.), *Masculinidades, Poder y Crisis*. Santiago de Chile: ISIS-FLACSO.

Del Valle, T., (2015), "Procesos de la memoria: cronotopos genéricos", *Revista de Estudios de Género. La Ventana*, 1(9):7-44.

Dicharry, E., (2012), "Bertsolaritza eta umorea", *Bertsolari aldizkaria*, 82. zenb., Bertsoamintza IV, Txosten monografikoa, Inertziak erantzi garena jantzi, 42-83

Diez, C., (2002), "Deporte, socialización y género" in Medina, Xavier eta Sánchez, Ricardo (eds.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*: 150-180. Icaria.

Egaña, A.; Garzia, J. eta Sarasua, J., (2001), *Bat-Bateko bertsolaritza*, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Donostia

Eskisabel, I.; (2017) "Txapelketa, gure inurritegi hori", *Berria*
Sarean: https://www.berria.eus/paperekoa/1955/026/001/2017-12-23/txapelketa_gure_inurritegi_hori.htm
[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Etxezarreta, J.M., (1993), "Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak", *Sendoa*, Oiartzun, Ausporen Sail Nagusia

Foley, J., (1991), *Inmanent Art*, Indiana University Press, Bloomington/Indianapolis.

Gartzia, J., (1995), "Jartzailea gaitzat harturik", *Bertsolari* 18, 46-63.
Sarean: <https://issuu.com/egunea/docs/b18>
[Azken kontsulta: 2018-08-30]

_____, (2012), *Bertsolaritza: euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna*. Etxepare Euskal Institutua= Instituto Vasco Etxepare.

Guglielmi, F., (2013), "Sobre el poder y sus regularidades" in *Nuevo Itinerario Revista Digital de*

Filosofía, 10 Resistencia, Chaco

Hernández, J. M., (2007), "Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea", *Kobie* aldizkaria, 12. zenbakia

_____, (2016), "Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertoetarako bizitoki" in Esteban, M.L., eta Hernández J.M., *Etnografia feministak Euskal Herrian, XXI.mendera begira dagoen antropologia*, EHU-UEU

Haraway, D., (1991). Conocimientos situados: la cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial. *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, 313-346.

Ibarguren, L., (2010), *Nolako umorea egin nahi dugu emakumeok arte eszenikoetan? Emakumeak, oholtza eta umorea*, Feminismo eta Genero ikasketak, EHU

Ibarzabal, N., (2018), "Zenbat", *Berria*

Sarean: <https://www.berria.eus/paperekoa/2048/016/002/2018-08-26/zenbat.htm>

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Imaz, V., (2005), "Género y humor: la triple transgresión", *Emakunde aldizkaria*, 59. zenb.

Irusta, E., (2016), *Diario de un cuerpo*, Catedral, Bartzelona

Iturriaga, U., (2017), "Zenbait ohar umorearen gainean", *Jakin*, 220, Tolosa, 41-48

Juliano, D., (1992), *El juego de las astucias*, Cuadernos inacabados, Horas y Horas, Madril

Labaka, A., (2017a), "Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik", EHU, Master Amaierako lana, Gizarte Antropologia masterra (argitaratu gabea)

_____, (2017b), "Txapelketaren barregrafia (posible) bat", bertsozale.eus ataria, Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017

Sarean: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albisteak/txapelketaren-barregrafia-posible-bat>

[Azken kontsulta: 2018-08-30]

Landa, J., (1987), "Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia", *Jakin*, 44 zenbakia

Larrañaga, J., (2013), "Jolas sakona: Txapelketaren prozesu erritual eta bertsolariaren arrzoi sortzailea XXI.mendeko agoran", Doktorego-tesia, EHU, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Lekuona, J.M., (1980), "Jendaurreko bertsolaritza", *Jakin*, 14/15

Maqueira, V., (2001), "Género, diferencia y desigualdad", in *Feminismos, debates y teorías contemporáneas*, Alianza Editorial, Madril, 127-190

Mintegi, L., (2017), "Umoreak ez die graziarik egiten", *Jakin*, 220, Tolosa, 50-65

- Nueve, A., (2018), "Otra vez los límites del humor", El Salto, Tribuna
Sarean: <https://www.elsaltodiario.com/tribuna/otra-vez-los-limites-del-humor>
[Azken kontsulta: 2018-08-30]
- Retolaza, I., (2017), "Genero Ikerketetatik Literatur Teoria Feministara" hitzaldia, Euskal Literatur Kritika eta Genero Ikerketak ikastaroa, UEU, Eibar
- Rodriguez, Z. eta Etxebarrieta, O., (2016), *Borroka armatua eta kartzelak*, Lisipe
- Rubin, G., (1986), "El tráfico de mujeres: notas sobre la economía política del sexo" in *Nueva Antropología*, III-30:95-145, Mexico.
- Sarriugarte, I., (2010), "Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 ute: P.Abarrategi eta E.Uriarte Poxpolin antzokian", Karmel, 2010-2, 270, apirila-ekaina, 3-41
- Saujani, R., (2016), "Teach girls bravery, not perfection", TED
Sarean: http://www.ted.com/talks/reshma_saujani_teach_girls_bravery_not_perfection
[Azken kontsulta: 2018-08-30]
- Urretabizkaia, A., (2017), *Bidean ikasia*, Pamiela
- Zinkunegi, I., (2014), *Emakumeak eta bertsolaritza: Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspegitik*, EHU, Ikus-entzunezko Komunikazioko gradua, Gradu Amaierako Lana, EHU, Bilbo
- Zubiaga, M. eta Arana, E., (2017), "Tirabirak: Euskal gatazka binetetan", *Jakin*, 220, Tolosa, 67-81
- Zulaika, J., (1985), *Bertsolariaren jokoa eta jolasa*. Baroja, Donostia.

ERANSKINA 1: ELKARRIZKETA SAKONETARAKO GIDOIA

- Sarrera

- Ikertzailearen aurkezpena
- Proiektuari buruzko argibideak: helburuak...
- Anonimotasuna?
- Elkarrizketa grabatzeko baimena eskatu

1.Umorea, oro har

- Zer da umorea zuretzat?
- Umoreak zein leku dauka jendartean? Zer pisu/garrantzia ematen zaio?

2.Umorea eta generoa

- Zein lotura dago umorearen eta generoaren artean?
- Zeren gainean eraikitzen da umorea? (Estereotipoak, metaforizazioa...)
- Umorea erresistentzia bezala uler daiteke? Adibiderik bururatzen zaizu?

3.Umorea euskal kulturaren

- Euskal kulturaren barruan umoreak zein paper/leku duela esango zenuke?
- Euskaldunak zeri egiten dio parre?

4.Umorea bertsolaritzan

- Bertsolaritzan zein leku dauka umoreak?
- Bertsolari/Gai-jartzaile bezala, zer da zuretzat umorea?
- Zein dira zuretzat umorearen mugak?

5.Umorea txapelketan

- Zein leku dauka (izan du) umoreak txapelketan? Plazaz plazako ohiko jardunetik zer aldatzen da?
- Zein ariketekin lotzen da?
- Zeri buruz egiten da umorea (zein da subjektua, zein objektua)?
- Zein dira umorezko gaiak?
- Azken txapelketari erreparatuz, zein bertsoaldi lotuko zenuke umorearekin?
- Umorearen mugen inguruan eztabaida batzuk sortu dira azken txapelketan zehar. Zein da zure iritzia honen inguruan?

6.Besterik?

ERANSKINA 2: BERTSOALDI HAUTATUAK

Aurkibidea

Zortziko txikia

1. Zumaia (2017-10-08): Nahikari Gabilondo/Nerea Ibarzabal
2. Bastida (2017-10-28): Agin Laburu/Jon Martin
3. Durango (2017-11-12): Oihana Iguaran/ Miren Artetxe
4. Iruñea (2017-12-02): Aitor Sarriegi/ Alaia Martin
5. Iruñea (2017-12-02): Unai Agirre/ Oihana Iguaran
6. Barakaldo (2017-12-17): Sustrai Colina/ Aitor Mendiluze
7. Barakaldo (2017-12-17): Igor Elortza/ Maialen Lujanbio

Puntuka

8. Iruñea (2017-12-02): Miren Amuriza/ Alaia Martin

Zortziko handia

9. Barakaldo (2017-12-17): Unai Agirre/Maialen Lujanbio

Hamarreko txikia

10. Iruñea (2017-12-02): Unai Agirre/ Aitor Sarriegi

Bakarka

11. Irun (2017-11-01): Aitor Sarriegi
12. Iruñea (2017-12-02): Aitor Sarriegi

Zortziko txikia

1. 2017-10-08 Zumaia Txapelketa [Bertsoa] / Nahikari Gabilondo, Nerea Ibarzabal

Kokapena: XDZ - Xepelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Zu, Nahikari, gozoki-denda bateko langilea zara. Nerea bezeroak denbora luzea darama dendan bueltaka. Laguntza eskaintzera joan zarenean, ahoa beteta daukala harrapatu duzu.

N. Gabilondo:

Ondo kudeatzea
ez da hain erreza
bezero lotsagabe
eta aldrebesa
ahoa hemen husterik
ez zazula pentsa
baina utzi patrikan

dezun palotesa. (bis)

N. Ibarzabal:

Palotes hori gero
probatu nahi nuke
bakarrik dauzkat eta
bederatzi urte
ta ipuinek horrenbeste
fantasia dute
sorginek gozokiak
pozointzen dituzte. (bis)

N. Gabilondo:

Nik ez det aterako
erraz etekina
hala begi itxirik
jardungo bagina
bederatzi urterekin
bizkorra jakina!
Ta zu zera pozoirik
ez duen sorgina. (bis)

N. Ibarzabal:

Baina apurka-apurka
banoa handitzen
nahiz eta lehen neskato
hain formala nintzen.
Harrapatu egin nauzu
gozokiak biltzen
ikusten ez bazaitut
ez zara existitzen! (bis)

N. Gabilondo:

Ez sartu begi itxi
hoien babesean
nahiko azukre bada
zenez gosean.
Hona ez zaitez sartu
denbora luzean
zure gurasoekin
etorri ezean. (bis)

N. Ibarzabal:

Baina ez zaitez ipini

orain hain erreta
amakin etorriko
naiz berriz tarteka
ta umore txar horri
emaiozu buelta
pika-pika gehiegi
jan dituzu eta! (bis)

2. 2017-10-28 Bastida Txapelketa [Bertsoa] / Agin Laburu, Jon Martin

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Zu, Agin, pintorea zara, eta Jonek bere etxea margotzeko kontratatu zaitu. Kolorearekin asmatu ezinik, hiru aldiz margotu behar izan duzu etxea. Jon oraindik ez dago konforme.

A. Laburu:

Hemen daude jarririk
pareta handiak
eta Titanluxenak
poto ugariak.
Kolore asko dizkik
Jon hire kabiak
fakturaren kolorez
pintatuko diat! (bis)

J. Martin:

Lehenik berdearekin
a ze adorea!
Ondoren granatea
ondoren morea.
Aldatu izanakin
damutu, ordea...
Berriz jarri zaidazu
lehengo kolorea! (bis)

A. Laburu:

Hori gogoratzeko
diat panorama
beti eduki dek hik
sibarita fama.
Ez dezadan egin nik
alperreko lana
pintatuko al diat
bakoitzetik bana? (bis)

J. Martin:

Radio Olé jarrita
ibiltzen zera maiz
beti txistuka hortxe
ta umore alaiz.
Zu joaterik ez dut
nik desio garaiz
egia da: zurekin
enamoratu naiz! (bis)

A. Laburu:

Horregatik etxean
nahi du mila paisai
hoi nola esaten dek
zer dek gay edo gai?
Ez zekiat Jon baino
nik hoi ez diat nahi.
Kamiseta horrekin
pentsatzen nian bai! (bis)

J. Martin:

Lastima joateko
zure ariketa!
Ez al zaizu gustatu
nere kamiseta?
Pintatu dena txuriz
ta etxera buelta
baina hor utzi zazu
zure silueta! (bis)

3. 2017-11-12 Durango Txapelketa [Bertsoa] / Oihana Iguaran, Miren Artetxe

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Zu, Oihana, arropa lehorra biltzen hasi zara balkoian. Miren, goiko bizilaguna, oraintxe hasi da landareak ureztatzen.

O. Iguaran:

Nahiz eta beti lagun
moduan jardun gu
erropa lehortu hau
nahi nuen leundu
ta hara bapatean
ur tantez lurrundu
arren ez zaidazula

hainbeste lagundu (bis)

M. Artetxe:

Lasai bizilagunak
holakoak gara
nere lanetan ere
ondo nabil jada
seiretan nahi izaten
du honek ba, hara!
nire geranioa
kapritxosoa da (bis)

O. Iguaran:

Seitan hartzen ote du
horrenbeste premik?
bostetan ez al dezu
izaten kemenik?
gora begiratuta
balkoira lehenik
kaktus batzuk zirala
pentsatzen nuen nik (bis)

M. Artetxe:

Kaktusa zela uste
zenuen zuk, klaro!
geranioa izateko
baitago arraro
barkatu ez dizut ondo
azaldu lehenago
sei t´erdiak dira ta
malaletxez dago (bis)

O. Iguaran:

Sei t´erdiak dira ta
noski orduz nahastu
baino gure harremana
ezin ondo jastu
grabitateak biok
gaitzake kakaztu
atzo eroritako
kuleroak ahastu (bis)

M. Artetxe:
Ba zureak ikusi
ote dituzu ba?
hilekoa daukazu
nik ez daukat duda
begiratu hain tela
zurian barrura
lasai mantxentzat ona
da geraino ura (bis)

4. 2017-12-02 Iruñea Txapelketa [Bertsoa] / Aitor Sarriegi, Alaia Martin

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emand **Jarritako gaia:** Zuk, Aitor, barazki biltegi bat duzu. Alaia gaur hasi da bertan lanean. Aitor, Alaiari lantegia erakusten ari zarela, hozkailu gelara sartu zarete. Alaiak atea itxi du, eta kanpotik bakarrik ireki daiteke. Hiruna bertso, zortziko txikian, Aitor hasita.

A.Sarriegi:
Hasieratik pinta
zeneukan arraro
ta hozkailu barrura
gu biok igaro
hau jarri behar zaigu
gero ta hotzago
pentsatze hutsarekin
izoztuta nago.

A. Martin:
Hipotermia dugu
lehenengo sintoma
nik poltsikotan daukat
untxi baten forma
kulpa zurea duzu
eta ez da broma
manga motxetan nola
sartu zara hona?

A. Sarriegi:
Lasai ez zait igoko
neri kalentura
hartu ote didazu
hozgian itxura
zure edadeko neska
guztien modura
mobila poltsikoan

izango dezu ba!

A. Martin:

Jo, juntu ahaztu zait nahiz ta
eduki beharra
nobioakin euki
dut lehen liskarra
izozteak berez du
alde txar bakarra
betiko bizitzeko
da era bakarra.

A. Sarriegi:

Gainera hor kanpoan
ez da inor pasa
ta bihar pasaz gero
norbait bere kasa
hemen aurkituko du
kristoren nahas-masa
porrua izoztuta
eta kalabaza.

A. Martin:

Kalabaza bikaina
eta mundiala
eman beharko dizut
denbora joan ahala
hau esparru freskoa
eta naturala
bi artaburu eta
ze *berenjenala!*

5. 2017-12-02 Iruñea Txapelketa [Bertsoa] / Unai Agirre, Oihana Iguaran

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Zu, Oihana, artista gaztea zara, eta Unai zure aita. Oihana, gaur inauguratu duzu lehen erakusketa, eta aretoa zure aitaren lagunekin bete da

O. Iguaran:

Sarri ze gogorra den
Oteizaren hutsa
ta zuk noski alaba
nahi zenuen bultza.
Zinez estimatzen det

guztien laguntza
etorriko al ziran
gero ez balitz luntxa? (bis)

U. Agirre:
Alaba eman nahi nizun
egun hontan babes
baina ez didazu uzten
gauza oso errez
luntxarena ez zazu
aipatu mesedez!
Ez ziran etorriko
eta neu ere ez. (bis)

O. Iguaran:
Artistak ez du aski
hipsterren posea
juxtu estu sumatzen
hasi naiz kortsea
aita ezetz egin ni
zu ainakoxea
arteak berarekin
badakar gosea. (bis)

U. Agirre:
Egia borobila
hori alajaina
bakoitzak jakin beza
beraren tamaina
artetikan gosea
omen dator baina
lasai emango dizut
zuk jateko aina. (bis)

O. Iguaran:
Eskerrak zure jana
eta teilatua
umetatik daukadan
neretzat hartua.
Estimatzen det hona
hola ausartua
firmatuko al dizut
zure erretratua? (bis)

U. Agirre:
Agian famatua
eingo da gerora
marra bat ziharrera
ta bestia gora.
Segi zazu alaba
pozik ta gustora
ulertzen dunarentzat
ona izango da. (bis)

6. 2017-12-17 Barakaldo Txapelketa 11:00 [Bertsoa] / Sustrai Colina, Aitor Mendiluze

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Zu, Sustrai, arkeologoa zara. Lanean ari zaren indusketa-gunean topatutako giza hezurak daramatzazu autoan. Laborategira bidean zoazela, Aitor poliziak geratu zaitu.

S. Colina:
Mugan berriz kontrola
kauenla kauenla!
Nik hezurak atzean
nola ba bestela?
Ikusiz nere planta
txuri ta zimela
pentsatu ote duzu
nereak zirela? (bis)

A. Mendiluze:
Aizu polizia naiz
ta errespetoa?
Maleta izan ohi da
beti atzekoa
bat soinekoa eta
bat aldatzekoa
baina beti txaketa
ez eskeletoa. (bis)

S. Colina:
Nik eman nahi nituen
mugako jauziak
baina guardia zibilen
eskutan jauziak
nik garraiatzen ditut
hezur biluziak

hori badaki zer den
zure nagusiak. (bis)

A. Mendiluze:
Aizu ni ez nahastu
kolpetik lehenean
ta zentratu gaitezen
orain gaudenean.
Hezurdura bat dezu
kotxe barrenean
hitz egiten al zuen
irten zarenean? (bis)

S. Colina:
Indusketak egiten
tematu naiz aurten
hezurrek ez baitute
hain gutxi irauten.
Asko esaten dute
asko di-da baten
zuei buruz ez dute
deus onik esaten. (bis)

A. Mendiluze:
Neri ez zait ba inporta
ez onik ez txarrik
atxilotuta zatoz
eta ez alperrik
eskuburdinak dauzkat
pare bat bakarrik
zure lagunak ez du
ipini beharrik. (bis)

7. 2017-12-17 Barakaldo Txapelketa 11:00 [Bertsoa] / Igor Elortza, Maialen Lujanbio

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Bizilagunak zarete. Igor, bart gauean birritan esnatu zaitu Maialenek sexu jolasetan zebilela. Gaur goizean, igogailuan egin duzue topo.

I. Elortza:
Egun on, ustez atzo
zenbiltzan ta ongi
ni logureak nago
ta zu berriz grogi

hori bai bart gauean
zu zenbiltzan jori
kendu ezazu tonto
irriparre hori! (bis)

M. Lujanbio:
Sexua suertea da
eta ez da luxu
bart gauez dena irrintzi
ta izerdi putzu...
Zuk berriz behakoa
serioa duzu
duzun inbiri horrek
zimeldu zaitu zu! (bis)

I. Elortza:
Batzuentzat bizitza
bero ta maitasun
besteontzako berriz
sasi eta asun.
Sexua suerte dela
hala dizut entzun
ta antza dena zeuri
tokatu zitzaizun. (bis)

M. Lujanbio:
Izan ere zu zaude
hain muker ta erkin
ez dezu ligatuko
jarrera horrekin
baino bart zeure kabuz
al zenuen ekin
gure etxeko efektu
espezialekin? (bis)

I. Elortza:
Logure nintzen baina
belarriak arin
alboan bazen zenbait
sexu joko gordin.
Diozu nik gozatu
nezakeela berdin
ta zeinek esan dizu
ez nuela egin? (bis)

M. Lujanbio:
Zu tristetzeko ez det
hainbeste interes
baino irrifarre bat
egizu mesedez!
Zer-nolatan zabiltzan
bisaia da juez
egin igual ein zendun
baina gozatu ez! (bis)

Puntukakoak

8. 2017-12-02 Iruñea Txapelketa [Bertsoa] / Miren Amuriza, Alaia Martin

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda puntutan **Jarritako gaia:** Buffeta duen jatetxe batean bazkaldu duzue elkarrekin. Bazkalondoan, mugitu ezinda zaudete.

A. Martin: "Buf" eta "buf" egiten
nabil buffetean

M. Amuriza: bufanda jarri behar
zeuk'e kopetean

A. Martin: janari asko eta
prezio merkean

M. Amuriza: eskerrak heldu garen
gu gose betean!

M. Amuriza: Ogi apurrik ere
ez duzu laga ta

A. Martin: dijeritu nahi nuke
dena pixkanaka

M. Amuriza: kroketak be iruntzi
ditugu launaka

A. Martin: eta nik irentsi dut
kilo bat patata.

A. Martin: Osasunantzat ona
baita almidoia

M. Amuriza: poltsikoarentzat ez
hortxe dago goia.

A. Martin: Nik desataskatzeko
behar dut limoia

M. Amuriza: kontuak egiteko

badugu sasoia.

M. Amuriza: Jan biok egin dugu
ta ordaindu nola?

A. Martin: Nik uste dut zuretzat
egoki dagola.

M. Amuriza: Egia esan gaur ez zait
askorik axola

A. Martin: kontuz hortza artean
duzu eskarola!

A. Martin: Bai, kendu duzu bueno
geratzen da pixka`t

M. Amuriza: nahi al duzu probatu
zati hau zuk behintzat?

A. Martin: Postrerako hartuko
dut pare bat KitKat

M. Amuriza: eskerrak zeunkadana
nik neska mizkintzat!

M. Amuriza: Ondo disimulatzen
duzu bai gosea

A. Martin: dena mitxelina da
ta dena posea!

M. Amuriza: Nahiago nuke neuk be
izan holakoxea

A. Martin: baina tripan dudana
gehiena haizea.

A. Martin: Grua deitzea ere
gaizki ez legoke

M. Amuriza: gu biok altxatzeko
hori gauza ote?

A. Martin: Hemen kokatu zaizkit
hiru eskalope

M. Amuriza: etzanda eramateko
esango nioke.

M. Amuriza: Gabonetako jada
goserik gabe gu

A. Martin: baina aperitibu
bat ein dezakegu.

M. Amuriza: Izango gara beste
guztien eredu

A. Martin: nahiz orain ezin garen
zutikan mantendu.

Zortziko handia

9. 2017-12-17 Barakaldo Txapelketa 11:00 [Bertsoa] / Unai Agirre, Maialen Lujanbio

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emanda **Jarritako gaia:** Kirolari profesionalak zarete, eta publizitatea egiteko eskaintza asko jasotzen dituzue. Zu, Maialen, edozer iragartzeko prest zaude. Unai, ordea, ez.

M. Lujanbio:

Hemen dirua baita kontua
nola ez esan? Akabo!
Futbol zelaian egiten degu
izerdi eta ur trago
Real Sociedad SAri ta
txinoei salduta nago
ta honezkero zer inporta zait
pixka bat salduxeago. (bis)

U. Agirre:

Real Sociedad SA jarri
degu zerura bidian
gauza hoiekin larritu xamar
dago Unai aspaldian.
Edozer gauza ein leikela ta
nago beldurrak aidian
diru beharrik izango banu
egingo nuke agian. (bis)

M. Lujanbio:

Bederatzia bizkarrean ta
orain oparo zabilta
promesa eta errealitate
dena aparra, dena bitsa
baina hautsi ezkerre belauna edo
zartatu iztarreko mintza
Unai esnatu laburra da ta
futbolarion bizitza. (bis)

U. Agirre:

Barkatu baina hau izango da
segun nun jarri tamaina

ni familia xume batetik
etorri naiz alajaina!
Gure bizitza oso laburra
degu futbolean baina
urtebetean irabazi det
nornahik bizi osoan aina. (bis)

M. Lujanbio:
Nahikoa diru badezu behintzat
hortan ez zera labaintzen
nik hala ere segitu nahi det
banku kontua bikaintzen
ta hor azaltzen naiz kremekin edo
txanpuaz ilea zaintzen
futbolarioi ez digute ta
pentsatzearren ordaintzen. (bis)

U. Agirre:
Berak zipitzik ez du pentsatzen
gogorra izan da gero!
Nere burmuinak kontu honekin
orain daude bero-bero
baina sekula saldu ez naizenik
ere ez zazu espero
sagarduana igual eingo det
Unaik eskatu ezker. (bis)

Hamarreko txikia

10. 2017-12-02 Iruñea Txapelketa [Bertsoa] / Unai Agirre, Aitor Sarriegi

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Binaka gaia-emand **Jarritako gaia:** Zuek biok anorexia izan zenuten nerabezaroan. Garai hartan, elikadura nahasmenduak tratatzeko zentro batean ezagutu zenuten elkar. Hamar urte pasatu dira, eta gaur erosketak egiten egin duzue topo.

U. Agirre:
Urte haiek ez ziran
pasatu hain alai
zulotik ertetzeko
biyok ez ginen gai
bainan indartu ginan
Aitor eta Unai

begiratu hutsean
konturatu naiz, ai!
Ni ondo sendatu naiz
baina zu ere bai. (bis)

A. Sarriegi:
Estimatuta dago
milesker laguna
nik ere ahaztu nahi det
hain garai iluna
ta orain sentitzen det
nik askatasuna
begiratu karroan
orain daukaguna
lehen urte osoan
jango ez genduna. (bis)

U. Agirre:
Garai bat izaten da
txoroa, txepela
egon behar nuena
argal ta zimela.
Orain ispilura joan
ta ohartzen naiz bela
gizena ikusten naiz
orduan bezela
baina orain badakit
gezurra ez dela. (bis)

A. Sarriegi:
Bioi begiratuta
gauza nabarmena
gainera ze umore
txoro alaena!
Anorexia joan zen
hori da onena
baina zuk ere majo
bete dezu dena
ez dakit pasa zaizun
transtornoarena. (bis)

U. Agirre:
Neri gizena deitzen

gaur zein eta bera!
Barkatu baina biyok
borobildu gera.
Alai bizi zerala
hartzen det tankera
lehen elkartu ohi ginan
ura edatera
hau ospatu dezagun
goazen bazkaltzera. (bis)

A. Sarriegi:
Egin geranez gure
bizitzaren jabe
jatetxeren batera
egin daigun alde
eta goza dezagun
xuabe-xuabe
ospa dezagun baina
zera ahaztu gabe:
orduan zeuden batzuk
oraindik han daude. (bis)

Bakarka

11. 2017-11-01 Irun Txapelketa [Bertsoa] / Aitor Sarriegi

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Bakarka gaia-emanda kartzelako-lana **Jarritako gaia:** Dena ondo zihoan argia piztu den arte.

Denbora asko zen juergara
ni ez nintzela atera
izugarrizko gogoa
ta suertatu zait aukera.
Barra ertzean neska bat
bai bera ote da bera?
Aspaldi begia bota
nion ta noan hastera.
Hizketari ekin diot
ta segi dugu aurrera
bapatean bota diot
"Goazen amaren etxera".
Igo eta pasilloan
ia lapurren antzera

elkarri eskutik helduta
gelaraino heldu gera. (bis)

Bapatean baztertu det
planean neukan gaupasa
ta nere baitan pentsatzen
ere hasi naiz nere kasa.
Batzuetan ligatzea
ez da izaten erraza
eta gaurko honek dauka
oso gutxitako traza.
Arropak kendu ditugu
berotu zaigu arnasa
maindirepean sarturik
bizkortu dugu konpasa
pentsatzen ari nintzela
hau izango da demasa
argia piztu dute ta
eten digute jolasa. (bis)

Ta atean noski ama
ezin zen izan bestela!
Ezerezean geratu
zaigu ahalegin ustela.
Horrelakoetan nola
sentitzen den bat txepela
nik uste nuen builaka
bertantxe hasiko zela
ta bapatean esan dit
inoiz entzun ez bezela:
“Gaur sorpresarik ez Aitor
gauzak behar dik horrela”
eta esan dit kondoiak
mesanotxean daudela
“Gazteak zarete eta
gozatu dezazuela!”. (bis)

12. 2017-12-02 Iruñea Txapelketa [Bertsoa] / Aitor Sarriegi

Kokapena: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Lana: Bakarka gaia-emandak kartzelako-lana **Jarritako gaia:** Ezkutatu egin zara ikusi ez zaitzaten.

Gustora nintzen kalean
hiru taberna igaro

eta eskuan basoa
hartu ditut zenbait trago
lagunekin berriketan
“Benga beste bat gehiago”
ia ez dakit zenbat baina
joan dira hamar bat ardo
ta bapatean sorpresa
ene nereak akabo!
Nagusia ikusi det
kalean pixka’t beherago
berez kaso egitea
besterik ezin itxaro
baina ezin estresagatik
baja hartuta bainago. (bis)

Kalean ikusi eta
pentsatu nire nibela
tabernaraino sartu naiz
oso azkar ahal zela
gauzak nahiago nukeen
irten balira bestela
baina bapatean hara
hor komunaren epela
eta barrura sartu naiz
delikuenta bat bezela
tarteka begiratuaz
begiekin keinu bela
ta urduritzen hasi naiz
normala da dena dela
ikusi berri dedanez
komunera datorrela. (bis)

Zuei agian bai baina
neri ez dit egin grazi
aitzaki hobeak jartzen
beharko nuke ikasi.
Ez dakit egoera hau
ia nola iragazi
gauza onik ezin baitut
honetatik irabazi
ta aitzakiak pentsatzen
ere nazkatu naiz kasi.
Begiratu dit ta zuzen
“Aitor ze ari ote haiz hi!”

Gin-tonica bota diot
bere izotz eta guzi
ordaintzen duenerako
ez du besterik merezi! (bis)